

E G A

2003 eta 2004

Azterketak
eta
erantzunak



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Azterketaren moldatzaileak:

EGA BATZORDE OFIZIALA

Batzordeburua: Maximino Gómez

Koordinatzailea: Karmen Uharte

Batzordekideak: Ana Arakistain, Koldo Asiron, Miren Basurto, Idoia Beloki, Amaia Irazusta,
Jose Luis Irigoien, Paskual Rekalde, Fernando Rey, Javier Tirapu.

EIBZko IRAKASLEAK: Sagrario Crespo, Susana Lasarte, Pello Uharte, Juantxo Urdiruz.

Gure eskerrik beroenak Euskadi Irratiari entzunaren
ulermeneko probak osatzeko bere programazioko
zenbait entzungai erabiltzeko baimena eman digulako

Izenburua: EGA 2003 eta 2004. Azterketak eta erantzunak
Azala: Asís Bastida
Argitaratzailea: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua
Fotokonposizioa: Pretexto
Inprimatzailea: Arc Espacegrafic
L.G.: NA-1904/2005
ISBN: 84-235-2802-2

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza Departamentua.

Sustatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondona
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Navas de Tolosa kalea, 21
Telefonoa: 848 42 71 21
Faxa: 848 42 71 23
31002 Iruña
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es

AURKEZPENA

Atsegin handiz aurkezten dut *EGA 2003 eta 2004. Azterketak eta erantzunak* liburua. Argitalpen honekin Nafarroako Gobernuak iaz hasitako proiektuari jarraipena eman nahi izan dio. Xedea bikoitza da: EGA agiria eskuratzeko aurreko ikasturteetan egindako azterketak gizarteratzea, eta proben egituraren eta zuzenketa irizpideen berri ematea.

Gaur egun esan dezakegu, ezberrik gabe, EGA agiria eskuratzeko azterketaren probak, formatuaren zein edukiaren aldetik, egokitzen zaizkiela Hizkuntzen Erreferentzi Mar-ko Europar Bateratuaren eskakizunei.

Liburu honek laneko tresna praktiko, hurbil eta erabilgarria izan nahi du hurrengo probak prestatu nahi dituzten pertsonendako. Hori hala izanik, liburuan bi atal bereizi dira. Lehenean, azterketako atariko probako, proba idatziko eta ahozko probako egitura-
ren eta zuzenketa irizpideen gaineko sarrera egin da. Bigarrean, 2003ko eta 2004ko deialdietako azterketak jarri dira, haien errereferentzia eta adibide izateko. Ukaezina da erabilgarriak direla oso.

Ibilbide luzea egin dute EGA agiria eskuratzeko deialdi ofizialek, jadanik hogeitabi-
tik gora baitira. Etengabe saiatu gara proposatutako azterketak kalitatezkoak izan daite-
zen eta, hartara, bermatu nahi izan da eskuratzen den EGA agiri horrek euskararen era-
bilera aurreraturako beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna egiaztatzen duela.

Deialdiz deialdi, baita oraingoan ere, zenbait alderdi gaurkotu dira proben antola-
ketan, egituraren eta edukietan. Hezkuntza Departamentuaren mendeko Euskara Zerbitzu-
ko eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko (EIBZ) teknikariek prestatu ohi
dituzte probak. Bestalde, EGA azterketaren Batzorde Ofiziala arduratzen da azterketa an-
tolatu, prestatu eta berrikustez.

Orain arte 12.000 matrikula egin dira eta 2.800 agiri eman. Datu horiek garbi era-
kusten dute EGA beharra eta onespen soziala.

Nahi nuke Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko
azterketak prestatu nahi dituztenek liburu hau baliatzea eta haien lanean lagungarri iza-
tea. Pertsona horiei guztiei euren ahaleginagatik eskerrak eman nahi dizkiet.

Luis Campoy Zueco
Hezkuntza kontseilaria

AURKIBIDEA

I. Sarrera	9
II. Azterketak	15
1. 2003ko lehenengo deialdia	17
Atariko Proba	19
Erantzunak	39
Proba Idatzia	41
2. 2003ko bigarren deialdia	47
Atariko Proba	49
Erantzunak	69
Proba Idatzia	71
3. 2004ko lehenengo deialdia	77
Atariko Proba	79
Erantzunak	99
Proba Idatzia	101
4. 2004ko bigarren deialdia	107
Atariko Proba	109
Erantzunak	129
Proba Idatzia	131
III. Ahozko proba	137
IV. Eranskina: entzungaien transkripzioa	157

I SARRERA

Euskararen Gaitasun Agiria: datu historikoak

Nafarroako Gobernuak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) emateko ardura 1985ean hartu zuen bere gain. Ordura arte Euskaltzaindiak egiten zuen lan hori: D titulua ematen zuen Nafarroan. Harrez geroztik ezarri zen, batetik, Hezkuntza Departamentuak jarduera hori egiteko legezko esparrua zehaztuko zuela, eta, bestetik, horretaz arduratuko ziren organoak eratuko zirela (Nafarroako Gobernuaren 1985eko irailaren 11ko Erabakia).

Ildo horri jarraikiz, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) sortu zuen (1535/1985 Foru Agindua).

1986an Euskararen Gaitasun Agiria eskuratzeko arauak onartu ziren foru agindu bidez (541/1986 Foru Agindua).

1990ean Nafarroako Hizkuntza Eskolaren esku utzi ziren Euskararen Gaitasun Agiria eskuratzeko probak antolatu, burutu eta zuzentzeko eginkizun teknikoak (152/1990 Foru Agindua).

1998an Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Euskara Zerbitzuak bere gain hartu zituen Euskararen Gaitasun Agiria eskuratzeko probak antolatu, prestatu, burutu eta zuzentzeko dagozkion eginkizun teknikoak. Halaber, lan hori egiteko EGA azterketaren batzorde ofiziala eta epaimahaia eratu zituen (463/1998 Foru Agindua).

1998tik hona urteroko deialdiak arautzen dira Euskararen Gaitasun Agiria eskuratzeko probak.

Zer da Euskararen Gaitasun Agiria?

Euskararen Gaitasun Agiriak aditzera ematen du agiridunak euskaraz badakiela eta trebe dela euskaraz idatzi eta hitz egiteko. Halaber, frogatzen du Euskaltzaindiaren arauak ezagutzen dituela.

Euskararen Gaitasun Agiriak euskararen ezagutza-maila ona ziurtatzen du, pertsona batek lan munduan beharko lukeen euskara mailaren parekoa, lau hizkuntza trebetasun hauetan: entzunaren ulermena, irakurriaren ulermena, adierazpen idatzia eta ahozko adierazpena.

Deialdiak eta antolamendua

Euskararen Gaitasun Agiria eskuratzeko, urtero bi aldiz egiten dira azterketak: bata apiril aldera eta bestea irailean. Bi deialdietan hiru probak (atarikoa, idatzia, ahozkoa) gainditu beharko dira, nahitaez.

Lehenengo deialdian atariko proba eta proba idatzia gainditu dituztenek ez dituzte iraileko azterketan proba horiek egin beharko.

Azterketaren egitura

Euskararen Gaitasun Agiriak hiru atal ditu, nahitaez gainditu beharrekoak hirurak:

- A) Atariko proba (gramatika, entzunaren ulermena eta irakurriaren ulermena).
- B) Proba idatzia (idazlan laburra eta luzea).
- C) Ahozko proba.

A. Atariko proba

Proba objektiboa da (test erakoa) eta ondoko gaitasun eta jakintzak ebaluatzeko balioko du:

- Hizkuntzaren ezagutza. Azterketaren zati honetan, aukera anitzeko proba baten bidez neurtzen da zenbateraino ezagutzen diren praktikan ahozko eta idatzizko komunikazioan eskuarki erabiltzen diren hizkuntza baliabideak eta Euskaltzaindiak euskara estandarrerako eman dituen arauak. Horiek guztiak hartzen dira kontuan ondoko arlo hauetan:
 - Aditza
 - Datak, zenbakiak, puntuazioa...
 - Deklinabidea
 - Egokitasuna
 - Erdarakadak
 - Esamoldeak
 - Lexikoa
 - Sintaxia
 - Galdera kopurua: 70 (1etik 70era)
 - Puntu kopurua: 70
- Entzunaren ulermena. Grabazio bat entzuten da eta hartan oinarritutako aukera anitzeko hamar galderari erantzun behar zaie. Aukeran jarritako lau erantzunen artean zuzena hautatu behar da.

- *Galdera kopurua*: 10 (71etik 80ra)
- *Puntu kopurua*: 15 (puntu eta erdi galderako)
- Irakurriaren ulermena. Testu baten edukiaren gainean aukera anitzeko hamar galderari erantzun behar zaie. Aukeran jarritako lau erantzunen artean zuzena hautatu behar da.
 - *Galdera kopurua*: 10 (81etik 90era)
 - *Puntu kopurua*: 15 (puntu eta erdi galderako)

Lehen atalean 100 puntu atera daitezke gehienez. Atal hau gainditzeko 65 puntu atera behar dira gutxienez.

Azterketa osoa irakurgailu optikoz zuzentzen da. Azterketa berrikusi nahi bada, aldez aurretik hartarako ezarritako egunean eskatu beharko da. Hala bada, lehenik eskuz zuzentzen da eta gero irakurgailu optikoak emandako puntuazioarekin alderatzen da.

B. Proba idatzia

Proba idatziak bi zati ditu:

- Idazlan laburra. Proposatutako bi gaien artean bat aukeratu eta gutun, ohar edo antzeko zerbait idatzi behar da. 100 hitzekoa izanen da gutxienez, hasierako eta bukaerako formulak kontuan hartu gabe.
 - *Kalifikazioa*: GAI/EZ GAI
- Idazlan luzea. Proposatutako hiru gaien artean bat aukeratu eta gutxienez 300 hitzeko testua idatzi behar da.

Proba hau zuzentzean, egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna eta, batez ere, zuzentasuna neurtuko dira.

- *Kalifikazioa*: GAI/EZ GAI

Proba idatziaren zatietako bakoitza gainditu behar da, nahitaez.

Maila-bateratasuna ziurtatzeko, idazlan bakoitza gutxienez bi aztertzailek zuzenduko dute. Probei emandako bi kalifikazioen artean izan daitezkeen desadostasunak desegiteko, bi aztertzaileak bildu eta zuzentze-irizpideak erkatuko dituzte kalifikazioa adosteko. Hala ere, desadostasunak bere horretan jarraitzen badu, beste aztertzaile batzuek zuzenduko dute azterketa.

Azterketa berrikusi nahi bada, aldez aurretik hartarako ezarritako egunean eskatu beharko da.

Idazlanak zuzentzeko irizpideak

Idazlan laburra eta luzea balioesteko, lau alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- *Zuzentasuna*

- Ortografia: *h* letra, hitz elkarketa, *bait*- partikula...
- Deklinabidea, atzizkiak...
- Aditza: aspektua, erregimena, komuntadura, aditz trinkoak, aditz perifrastikoak...
- Sintaxia: erlatiboak, osagarriak (konpletiboak, zehar-galderak...), galdegaia...
- *Testuaren antolaketa* (koherentzia eta kohesioa)
 - Koherentzia:
 - Testua ongi egituratua, ideiak ordenatuak, esaldiaren barruko ordena...
 - Kohesioa:
 - Testu-antolatzaileak eta lokailuak, puntuazio-markak, anaforak...
- *Egokitasuna*
 - Erregistro egokia izatea: igorlea eta hartzailea kontuan hartzea, gaiak eskatzen duen tonua ematea.
 - Asmo ulergarria izatea: helburua, ideiak eta informazioa garbi egotea, xede komunikatiboa betetzea.
 - Fraseologia egokia.
- *Aberastasuna*
 - Sintaxiaren konplexutasuna
 - Lexikoaren aberastasuna
 - Bariazioa

Lau alderdi horietako edukia laburbildurik, honako kasu hauetan ez da azterketa gaudituko:

- Atal horietakoren batean behin eta berriz egiten bada huts.
- Sistematikoki ez bada ere, batean eta bestean egiten bada huts.
- Idazlanak (laburrak zein luzeak) ez badu nabarmenki eskatzen zaion adinako luzerarik.

C. Ahozko proba

Ahozko probak bi zati ditu eta jarraian egiten dira. Azterketariak hiruak egiten dute proba, salbuespenak salbuespen:

- Ahozko azalpena. Hiru azterketariak gai beraren inguruko testu bana izanik, irakurri eta laburtu beharko dute. Horretarako 20ren bat minutu izanen dute. Gero, 5 minutu inguruz arituko dira hizketan epaimahaiaren eta taldeko gainerako azterketarien aurrean.

- Eztabaida. Ahozko azalpenak bukatuak, hiru azterketariak elkarrekin arituko dira eztabaidan egokitu zaien gaiaren gainean, betiere alde aurretik ezer ere prestatu gabe. Horretarako, epaimahaiak egindako galderak hartuko dituzte oinarri azterketariak.

Bigarren zati hau gehienez 10 minutukoa izanen da.

Ahozko probaren bi zatiak batera balioetsiko dira. Kalifikazioak GAI edo EZ GAI izanen dira.

Ahozko azterketa berrikusiko da baldin eta EGA egiteko eskabidean azterketa grabatzeko eskatu bada. Berrikusi ahal izateko, hartarako ezarritako egunean eskatu behar da.

Ahozko proba zuzentzeko irizpideak

Honako hauek dira ahozkoan kontuan hartuko diren alderdiak:

- *Zuzentasuna*
 - Ergatiboa
 - Aditza: aspektua, erregimena, komunztadura
 - Perpaus osagarriak, zehar-galderak
 - Erlatibozkoak, perpaus osagarriak[-(e)na/(e)la]
 - Esaldiaren antolamendua, hitz ordena
 - Gehiegizko autozuzenketa
- *Jariotasuna*
 - Isiluneak
 - Moteltasuna (neurri batekoa)
- *Ahoskera - Intonazioa*
 - Txistukarien ebakera garbia: s/z, ts/tz, tx/tz...
- *Aberastasuna*
 - Hiztegi zabala
 - Bariazioa (sintaxian, kohesio baliabideetan...)
 - Esamolderik edo horrelakorik erabili duen
 - Makuluak ("gauza", "kontu" ...)
 - Erdarakadak
- *Mezua - Elkarreragina*
 - Erregistro egokia
 - Informazio garbia eta ongi antolatua
 - Solaskideari entzutea, eta baita erantzutea ere

Azterketariak honako alderdiok hartu beharko ditu kontuan, besteak beste:

- Gaia hizkera landuan, nahiko jasoan azaldu beharko du, eta ez lagunarteko-edo moldean.
- Ez da nahikoa etengabe solasean aritzea; gaiaren mamia azaldu behar da, eta ez inguru-minguru ibili. Zer esanik ez, aukeratutako gaiari atxiki beharra dago.
- Azalpenak, lehenik eta behin, zuzena beharko du izan, gramatikala; beraz, egitura ez-zuzenek edo traketsek puntuazioa jaitsiko dute. Era berean, ahoskera traketak edota ez-egokiak kontuan hartuko ditu epaimahaiak.

Epaimahaiak, bere aldetik, honako alderdi hauei erreparatuko die:

- Azterketariak normal eta naturaltasunez hitz egiten dakiela erakutsi beharko du; hots, ez duela etenik egiten esan behar duena nola esan pentsatzeko.
- Autozuzenketak onartuko ditu baldin eta noizbehinkakoak badira; ez, ordea, behin eta berriro egiten badira, informazio garbiaren kaltetan.
- Hitz egitean, abiadura minimo bat eskatuko da. Halere, zaila da jakitea moteltasun hori hiztunak noiz duen berezkoa eta noiz esan beharrekoa pentsatzen ari denekoa, azterketari batzuk abiadura berean mintzatuko baitira euskaraz eta gaztelaniaz.
- Azterketa balioesterakoan, goian esan bezala, honako puntu hauek hartuko dira kontuan: gaiari lotzea, zuzentasuna (ergatiboa, aditzaren aspektua eta komunztadura, erregimena, etab.), aberastasuna...

II AZTERKETAK

2003/1

2003/2

2004/1

2004/2

2003ko lehenengo deialdia

2003/1

**Atariko proba
Erantzunak
Proba idatzia**

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

ATARIKO PROBA

Ohar garrantzitsuak

- EZ JARRI IZENIK EDO SINADURARIK AZTERKETA ORRIETAN ETA ERANTZUN ORRIAN, plika sistema erabiliko baita.
- Arkatzez idatzi. Honela, okertzen bazara, erantzun okerra ezaba dezakezu.
- Azterketa osoko erantzunak **ERANTZUN ORRIAN** markatu behar dira. Orri-multzo hone-tako erantzunak ez dira kontuan hartuko.
- Entzunaren ulermena goizeko **11:00**etan eginen da.

<i>Proba</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Galdera kopurua</i>	<i>Gehienezko puntu kopurua</i>
Aukera anitzeko galderak	1-9	70	70
Entzunaren ulermena	10-11	10	15
Irakurriaren ulermena	12-16	10	15
Azterketa gainditzeko, gutxienez, 65 puntu atera behar dituzu.			

I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. ***Prest zaude? Berandu iritsiko gara tren geltokira. Zein da erantzun egokiena?***

- a) Memento bat, zapatak jarri eta listo.
- b) Segundo bat, zapatak ipini eta banoa.
- c) Itxaron pixka bat, zapatak paratu eta prest.
- d) Oraintxe bertan, zapatak jantzi eta prest.

2. ***Zorrak zor, lepoa lodi. Bestela esanda:***

- a) Zorrak kobratu ditu eta, jan eta edan, majo loditu da.
- b) Zor batzuk kobratu ditu, beste batzuk ez, baina ez da gaizki bizi.
- c) Zorrak kobratzetik ederki bizi da.
- d) Zorrak ordaintzen baino gehiago ongi bizitzen gastatzen du dirua.

3. ***Ondorengo esaldi hauetako bat bakarrik dago ongi.***

- a) Kafe bat hormarekin, mesedez.
- b) Zihur zaude ospitaletik atera dela?
- c) Horri hau nahikoa nazkante da, ezta?
- d) Arga hibaia Etxauri arantetik pasatzen da?

4. ***Bada gure herrian familia bat***

- a) Txiletik etorri dela.
- b) Txiletik etorri dena.
- c) etorri dela Txiletik.
- d) zeina Txiletik etorri da.

5. ***Gustura joango nintzateke, baina***

- a) ezin dut joan.
- b) ezin naiz joan.
- c) ezin naiz joaten ahal.
- d) ez dut joanik.

6. ***Erosi ondoren, dendan ahaztu zait ogia; banoa, beraz,***

- a) ogiaren bila.
- b) ogi bila.
- c) ogia bila.
- d) ogiren bila.

7. ***Pilota partidak, normalean, 22 izaten dira.***

- a) tantora
- b) tantuetara
- c) tantura
- d) tantoetara

8. Aukeratu erantzun zuzena.

- a) Une honetan ez dago hotzarik kalean.
- b) Zapatik ekarri duzu Italiatik?
- c) Hori baino gauzik ederrago ez duzu inon ikusiko.
- d) Ametsik egin duzu bart?

9. Zein etorri dira gure festara?

- a) herritatik
- b) herrietatik
- c) herritik
- d) herritikan

10. Zein hitz bikote EZ da egokia?

- a) Zeru izartua.
- b) Zuhaitz lerdena.
- c) Ur-negar burrunbatsua.
- d) Bide-zidor meharra.

11. Zaude ixilik, zorria baino naiz eta.

- a) txikiagoa
- b) pobreagoa
- c) langileagoa
- d) zikoitzagoa

12. A zer euri zaparrada! Bai, ari du.

- a) itsasoka
- b) dilubioan bezala
- c) pitxerkadaka
- d) gogotik

13. Bentako Joanes harrapatuta hil zen.

- a) trenagatik
- b) trenak
- c) trena
- d) trenaz

14. Lan hau egiteko, lau ordu atzo.

- a) behar izaten nituen
- b) beharko nuke
- c) behar izango nituen
- d) behar izan nituen

15. Aukeratu zuzena.

- a) Hitzaldira joatea behartu didate.
- b) Jatetxe honetan oso ongi ematen dute jaten.
- c) Ez du merezi liburu hori irakurtzeak.
- d) Aspaldian ez naiz bizikletan ibili eta ahaztu zait ibiltzea.

16. Nik, bereak eta bost

- a) ikusi izan banu esango nizkioke.
- b) ikusiko banu esango nizkioke.
- c) ikusi banu esango niokeen.
- d) ikusiko banu esango nizkion.

17. Berandu iritsi dira; istripu txiki bat izan dute,

- a) antz denez.
- b) badirudi.
- c) nonbait.
- d) eta.

18. Nafarroako ternera-ren kontsumoa bultzatu nahian, harategi askotan txartel hau agertzen da: *Hemen, Nafarroako*

- a) betizua.
- b) behorra.
- c) axuria.
- d) aratxea.

19. *Iaz senarra hil, aurten alabatxoa. Zer zorte txarra Elena*

- a) gizagaixoak!
- b) gizajoak!
- c) gajoak!
- d) gizajendeak!

20. *Zer ordutan ateratzen da Tafallarako autobusa?*

- a) Hiru t'erdietan.
- b) Hiruetan.
- c) Hiruretan.
- d) Hirutan.

21. *Gogotik egin beharko duzu lan;, ez duzu aurrera aterako familia.*

- a) horrenbestez
- b) bederen
- c) alta
- d) gainerakoan

22. **kontratua egin didate.**

- a) Behin-behineko
- b) Behin-betiko
- c) Behin behineko
- d) Behin-betirako

23. **Hemen gerran fusilatu zituzten herritarrak.**

- a) datzate
- b) dautzate
- c) dautza
- d) datzazkite

24. **Nola idazten da 327?**

- a) Hiru ehun ta hogeita zazpi.
- b) Hirurehun eta hogeita zazpi.
- c) Hiruehun eta hogeitazazpi.
- d) Hirurehun ta hogeita zazpi.

25. **Aukeratu esaldi zuzena.**

- a) Antoniorengana noa bizarra egitera.
- b) Patatazko tortilla jango nuke orain gustura.
- c) Eta honenbestez agurtzen naiz.
- d) Hartzen dugu kafetxo bat?

26. **Zu lasai igo, nik eutsiko**

- a) diot eskailerari.
- b) dut eskailera.
- c) natzaio eskailerari.
- d) zaitut eskaileran.

27. **Beheko esaldietatik zein dago GAIZKI?**

- a) Dirurik ezean, etxean geldituko naiz atera gabe.
- b) Zure etxera joatekotan, badakit zer afalduko dudan.
- c) Film hori ikusten baduzu, amesgaiztoak izanen dituzu.
- d) Nire herrira joanez gero, emazkiezu goraintziak nire lehengusuei.

28. **Esaldi hauetatik zein da egokia?**

- a) Euria mara-mara ari du.
- b) Dirua barra-barra xahutzen du horrek.
- c) Puri-purian dator autobusa.
- d) Burdina gorri-gorri dago.

29. Nola bertakoek mendi horri?

- a) deritzote
- b) irizten diete
- c) deitzen dute
- d) izendatzen diote

30. Erreparatu puntuazioari. Zein da zuzena?

- a) Aizu Mikel!, Ana ikusten baduzu, esaiozu bihar ez naizela etorriko.
- b) Aizu, Mikel! Ana ikusten baduzu, esaiozu bihar ez naizela etorriko.
- c) Aizu, Mikel! Ana ikusten baduzu esaiozu bihar ez naizela etorriko.
- d) Aizu Mikel!, Ana ikusten baduzu esaiozu bihar ez naizela etorriko.

31. Badakit Iruritakoa zarela, baina nik ez dut esan Iruritakoa

- a) zarela.
- b) zaren.
- c) zarenik.
- d) ote zarenik.

32. Ez zaitut egun osoan ikusi. Non ibili zara?

- a) Kaleetan barna ibili naiz.
- b) Kalearen zehar ibili naiz.
- c) Kalearen barrena ibili naiz.
- d) Kaletik egon naiz.

33. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Bittor erori egin da eta mina hartu du.
- b) Nire osabak Eroskin egiten du lana.
- c) Atzo hiltzen amona eta gaur emango diote lurra.
- d) Ur asko edan du haurrak eta pixa egin du ohean.

34. Beheko galderetatik zein iruditzen zaizu egokiena?

- a) Atrebentzia ez bada, zenbat urte dituzu?
- b) Ez bada gehiegi galdetzea, zenbat urte dituzu?
- c) Ez bada galdera txarra, zenbat urte dituzu?
- d) Barkatu gaizki esanak, baina zenbat urte dituzu?

35. Esaldiotan, zein dago ongi?

- a) Elkar joka ibili ziren.
- b) Elkar ondoan eseriko gara.
- c) Elkarrengana zuten konfiantza.
- d) Elkarri jo zuten.

- 36. Ederki ikusten zaitut, osasuntsu eta sendo. Zein da erantzun egokia?**
- Ez pentsa, ez nago sasoi betean.
 - Ez pentsa, txinparta baino erreago nago.
 - Prozesioa barrutik doa.
 - Ongi atzeman nauzu.
- 37. Besoak altxatu goiko apaleraino eta alkandora egin zait.**
- ebaki
 - tarratatu
 - txikitu
 - kraskatu
- 38. Horrelako abagunea izan eta ez aprobeztatzea! Bestela esanda:**
- Gaizki jo dizu soinua kukuak.
 - Ez da hori axuriaren ama.
 - Txoria eskura etorri eta utzi behar...
 - Habia egin deneko, txoria hil.
- 39. Norbaiti doluminak eman behar dizkiozu. Zer esango zenioke?**
- Atsekabeen, lagun.
 - Oren orok dute gizona kolpatzen, azkenak du hilobiratzen.
 - Hartuko ahal du Jainkoak bere ezker aldean.
 - Adeitasunez.
- 40. Garesko emakume bati entzuna: ¡Menuda galda nos va a caer hoy! Zer esan nahi zuen?**
- Ekaitza bortitza izango zela.
 - Ikaragarrizko izotza botako zuela.
 - Bero izugarria egingo zuela.
 - Berealdiko euri jasa botako zuela.
- 41. Hilak gaur 12 baditu, zer egun izango da etzidamu zortzi?**
- 18
 - 20
 - 22
 - 24
- 42. Esaldi batean EZ dago ortografia akatsik. Zeinetan?**
- Lehoiak hies egin zuen lehiotik.
 - Leohiak ihes egin zuen leihotik.
 - Lehoiak ihes egin zuen leihotik.
 - Lehoiak ihes egin zuen lehiotik.

43. **Parisen izan naiz asteburuan eta bat ekarri dizut.**
- a) oroigarri
 - b) oroitzapen
 - c) oroipen
 - d) oroimen
44. **Ahalegindu zara., ez duzu gauza handirik lortu.**
- a) Haatik
 - b) Orobat
 - c) Izan ere
 - d) Baino
45. **Zer dakizu Iñigoz? Ikusten duzu?**
- a) Bai, beste egunean ikusi nuen.
 - b) Bai, lehenengo egunean ikusi nuen.
 - c) Bai, aurreko egunean ikusi nuen.
 - d) Ez, ez dut inoiz ez ikusten.
46. **..... dagoen herrian bizi da Anttoni.**
- a) Mendiaz bestalde
 - b) Mendiko bestaldean
 - c) Mendiz bestalde
 - d) Mendiaz bestaldean
47. **Zein polita atera zaizun esmalte hori! Nola egin duzu?**
- a) Patxik esan didan legez.
 - b) Patxik esan moduz.
 - c) Patxik esandako bezala.
 - d) Patxik esandako arabera.
48. **Zein da zuzena?**
- a) Iruñea, 2.003ko Maiatzaren 7a
 - b) Iruñan, 2003ko maiatzaren 7a
 - c) Iruñean, 2003ko Maiatzaren 7a
 - d) Iruñea, 2003ko maiatzaren 7a
49. **Zeharo ezberdinak badira ere, irizpide bakarra dut gauza guztiak baloratzeko.**
Baliokidea:
- a) Ezberdinak badira ere, txapela batekin bi buru estaltzen ditut.
 - b) Burua betiko lepotik dut gauzak baloratzeko.
 - c) Balorazio ezberdinak? Ez dut egin nire burutik.
 - d) Buru bera dut gauza ezberdinak baloratzeko.

- 50. Eskutitz formal baten hasierako agurra:**
- a) Kaixo laguna:
 - b) Agur eta ez adio:
 - c) Zer moduz?
 - d) Agur t'erdi:
- 51. Aukeratu zuzena.**
- a) Atzo etorri ziren lagunak hautsi zuten koadroa.
 - b) Koadroa hautsi zutenak nire lagunak ziren.
 - c) Atzo etorri ziren koadroa hautsi zutenek.
 - d) Lagunek, zeinek koadroa hautsi baitzuten, atzo etorri ziren.
- 52. Ez nion inolako motiborik eman niri alukeria hori egiteko. Aukeratu baliokidea.**
- a) Nik ez nion bidea urratu niri alukeria hori egiteko.
 - b) Zer bide egin zuen niri alukeria hori egiteko?
 - c) Nik bide eman gabe alukeria ederra egin zidan.
 - d) Ez zuen alukeria bideetan sartu behar niri hori egiteko.
- 53. Ordenagailua hondatu zait eta ez dut**
- a) ezer egitekorik.
 - b) zer egitekorik.
 - c) ezer egiterik.
 - d) zer egiterik.
- 54. Barriola eta Olaizola,, pilotari bikainak dira.**
- a) biak ala biak
 - b) biak edo biak
 - c) biak zein biak
 - d) biak nahiz biak
- 55. 20 pastel zeuden eta nik 4 jan nituen. Beraz,**
- a) bosten jan nuen.
 - b) bostena jan nuen.
 - c) bostarena jan nuen.
 - d) bosterena jan nuen.
- 56. Begira zer poesia polita asmatu dudan: "Hegoak ebaki banizkio". Aukeratu erantzun egokia.**
- a) Balizko olak burdinik ez.
 - b) Hori eta atariko haizea!
 - c) Orhiko txoriak Orhi laket.
 - d) Irin hori ez da zure errotakoa.

57. Kontuz ibili, haserretu egingo

- a) bait naiz.
- b) bainaiz.
- c) baitnaiz.
- d) bai naiz.

58. Zer dakarzu poltsan?

- a) Bazkaria prestatzeko patata zaku bat.
- b) Bi tomate kilo eta hiru esne-kutxa.
- c) Lau kilo sagar eta hiru kilo laranja, zukua egiteko.
- d) Esnea litro pare bat eta bi botila ardo.

59. Ibaik eta Maiderrekin kontaktzen zizkioten istorioak.

- a) bata besteari
- b) batak zein besteak
- c) batak besteari
- d) batek besteari

60. Nik ez dut zuk kemenik.

- a) adina
- b) bestelako
- c) horrenbesteko
- d) dinako

61. Alfontso gizon patxadatsua da, benetan lasaia eta gibel handikoa. Beheko atsotitzetatik zein EZ dagokio Alfontsoaren deskripzioari?

- a) Bare ederrekoa haiz!
- b) Barrena kiskalia duk.
- c) Ez dituk birrikak toki txarrean!
- d) Ez zaik odola burura erraz igoko, ez!

62. Hainbeste azterketa egin ondoren, gaur ere urduri egon behar.

- a) Eutsi goiari!
- b) Bai marka dela!
- c) Hau da marka, hau!
- d) A zer abagunea!

63. Ez dudala 100 kiloko zaku hori bizkarrera jasotzen? Ez horixe,

- a) zure indarrak hondoratu dira.
- b) onenak emanak dituzu.
- c) ihartuta dituzu giharrak.
- d) ez duzu horretarako muskuilurik.

64. Aukeratu zuzena.

- a) Barkatu, gelditzen zaizkizu sagarrak?
- b) Barkatu, gelditzen zaizu sagarrarik?
- c) Barkatu, gelditzen zaizkizu sagarrik?
- d) Barkatu, gelditzen zaizu sagarrik?

65. Hurrengo bikoteetatik, zein bi hitz dira sinonimoak?

- a) Izu iseka
- b) Piztu argitu
- c) Garai altu
- d) Katilu lerde

66. Irakasleak aditz horren erabileraz

- a) ohartarazi gintuen.
- b) oharterazi gintuen.
- c) ohartu zigun.
- d) ohartarazi zigun.

67. Aia eta Eultz Gipuzkoan eta Nafarroan daude,

- a) hurren-hurren.
- b) hurrenkeran.
- c) hurrenetik hurrenera.
- d) hurrenez hurren.

68. Ni esaten ari idazlan hori ongi dagoela.

- a) naizu
- b) natzaizu
- c) zatzaizkit
- d) nakizu

69. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Bihar seietan egingo dugu bilera.
- b) Bihar seietan ospatuko dugu bilera.
- c) Bihar seietan burutuko dugu bilera.
- d) Bihar seietan egingo diogu bilerari.

70. Semeak aitari:

- a) Berorrek nahi baduzu, joango gara.
- b) Nahi baduk, joanen gaituk.
- c) Berorrek nahi badu, joan zaitez.
- d) Hala nahi baduzu, zoaz.

II. ENTZUNAREN ULERMENA

Entzungaia liburuari erantsirik datorren CDan dago eta haren transkripzioa liburuaren bukaerako eranskinean.

71. Arnasketa automatikoa da eta...

- a) ezin dugu nahita sakonago egin.
- b) ezin dugu inolaz ere eten.
- c) presio negatiboz egiten dugu.
- d) garbigailu baten modura funtzionatzen du.

72. Apnea...

- a) nahi gabeko arnasaren etena da.
- b) gauez gertatzen da.
- c) arnasaren etenaldia da.
- d) urpekariek izaten dute.

73. Gauean apnea duenak...

- a) zurrunga egiteari etengabe ekiten dio.
- b) ez du ezer ere antzematen lotan egoten delako.
- c) ez du atsedetik hartzen lo etena izaten duelako.
- d) medikuarenera joan behar izaten du andreak lagunduta.

74. Apnea sindromea duen orok...

- a) telebista ikustean, loak hartzen du.
- b) sofan eta egunez egin behar du lo.
- c) bizi kalitate txarra izaten du.
- d) istripuak izaten ditu loak hartuta.

75. Apneak eragindako oxigeno faltak ondorio latz hauexek ditu:

- a) Globulu gorrien kopuruak behera egiteko eta arritmiak izateko arriskua.
- b) Tentsio jaitsiera eta infartuak izateko arriskua.
- c) Bai arritmia eta infartuak izateko arriskua, bai globuluaren galera.
- d) Bihotzekoak jasateko arriskua eta tentsioaren igoera.

76. Bakarrik bizi direnak nola ohartzen dira apneaz?

- a) Lo arinagoa dutela ohartuta.
- b) Ez dira sekula ere ohartzen.
- c) Egunez duten nekearengatik eta logalearengatik.
- d) Tentsioa jaitsi dela ikusita.

77. Apnearen eragilea garuneko arazoa izan daiteke, baina...

- a) hori oso gutxitan gertatzen da.
- b) gehienetan arnasa hartzeari uztea da eragilea.
- c) zurrunga izaten da askotan eragilea.
- d) egunean pot eginda egotea da eragile nagusia.

78. Diagnostikoa egiteko, polixonografia erabiltzen da; hau da,...

- a) ospitalean loaren faseak zenbatzen dira.
- b) loa eta zurrunga nolakoak diren ikertzen da.
- c) arnasketaren gorabeherak pegatina bidez kontrolatzen dira.
- d) arnasaren etenak eta odolaren oxigenoa aztertzen dira.

79. Apnari aurrea hartzeko, hauxe gomendatzen da:

- a) Gehiegi ez afaltzea.
- b) Higienea bereziki zaintzea.
- c) Alkohola neurrian hartzea.
- d) Argaltzen saiatzea.

80. Esaldi hauetatik zeinek laburbiltzen du ongien entzündakoa?

- a) Apneak zarata eragiten du beti: zurrungaz ala zipper makinaz.
- b) Apnea gaixotasun larria izan daiteke, baina aurre egiten ahal zaio.
- c) Apnea oso gaixotasun arriskutsua bada ere, erraz senda daiteke.
- d) Apneak nekea eta logalea eragin ditzake.

III. IRAKURRIAREN ULERMENA (I) GALDERAK

81. Isidro Barberenak...

- a) aduana gurutzatu eta mugaz bertze aldeko industriari esker irabazi du ogia.
- b) nekazaritza izan du diru-iturri nagusia fabrikarik ez baitzen Zugarramurdin.
- c) dio ez dela nekazaritza bakarrik bizitzen ahal.
- d) arrunkeriatzat ditu gauekoen balentriak, ahozko literaturak ez bezala.

82. Lehen Mundu Gerra bukatu berri bizi izandako gertaera batean,...

- a) karabinerok inor ez ikusiagatik, zer edo zer aditu eta iratzarri egin omen ziren.
- b) Isidroren aitak erran zuen bera bertzeen gibeletik joanen zela, badaezpada ere.
- c) mendi gainean zegoela, mantan bildurik zeuden bi karabinerorekin suertatu zen Isidro.
- d) Isidroren aitak ez zuen kargaren bila itzultzerik izan; zerbait mugituz gero, karabinerok iratzartzeko arriskua baitzegoen.

83. Bergara bentan karga utzi eta gero,...

- a) guardia zibilek esku artean frogatzen argirik ez zutenez gero, joaten utzi zieten kontrabandistek.
- b) guardia zibilek kontrabandista guztiak otadi batean harrapatu eta haiek bi sarjentuaren aitzinera eramane zituzten.
- c) izerdiaren zapora mikatzagatik antzeman zuen sarjentuak zertan ibili ziren kontrabandistak.
- d) guardia zibilek makilakada latzak emanda bidali zituzten etxera Isidro eta bertze bi kontrabandistak.

84. Bigarren Mundu Gerraren inguruan, Isidrok gogoan du...

- a) nola etortzen ziren turista alemaniarrek bizikletaz mugaren bertze aldetik Zugarramurdira eta herriko ostatueta nola iragaten zuten eguna.
- b) soldaduen bota luze eta dotoreek liluratu egiten zutela umetan.
- c) bera mutil koskorra zelarik, Zugarramurdira etortzen ziren soldadu austriarrak 20 eta 30 urte bitartekoak izaten zirela.
- d) herrira etortzen ziren soldaduek herriko jendea izutu egiten zutela soinean eramane zituzten matxete eta pistolekin.

85. Gerra ondoren hasi zitaion laguntzen Isidro aitari.

- a) Kilometro anitz egin behar izaten zituen mendian barna: beti lau bidaiatik goiti alkohol eta ardo frantsesa batetik bertzero eramateko.
- b) Ez zegoen dirua irabazteko bertze modurik. Isidro zen zortzi anai-arrebetan zaharrena, gaur egun erdiak baizik bizi ez badira ere.
- c) Batik bat gaez ibili ohi baziren ere, zerua oskarbi zen egun batzuetan egun-argitan ere abiatzen ziren.
- d) Hogeita hamar pezeta inguru irabazten omen zituen bi kilometroko bidaia bakoitzean. Dirutza handia zen hori.

86. Mugaz bertze aldetik alde honetara ere ekartzen zituzten gauzak.

- a) *Lambretta* motorren piezak eta mandoak ez ezik, Baionatik ekarritako parpaila ere pasatu ohi zuten honat.
- b) Zugarramurditik Bilbora kamioitzar handietan ezkutaturik eramaten zen kobrea han berean erre zezaten.
- c) Kobre-hari gogorra bizkarrean bilduta aise ekartzen zuten zama izaten zen.
- d) Tamainarik handieneko paketea izaten zen maiz pisurik ttikienekoa. Hartu aitzin nekez jakin ahal izaten zen hori, ordea.

87. Arrunt erne ibili behar izaten zuten beti.

- a) Ohi baino handiagoak izaten ziren izua eta urdurasuna baldin eta karabineroek zer edo zer susmatzen bazuten.
- b) Guardia zibilek zein jendarmeez harrapatuz gero, paketea bizkarrera bota eta lehenbailehen eskapatzea zen kontua.
- c) Hala ere, karabinero gehienek ez ikusiarena egiten zuten oiloen eta bildotsen kontrabandoan.
- d) Karabineroen tiroak maiz aditu bazituen ere, guardia zibilek ez zuten sekula harrapatu Isidro.

88. Gauerdiko ezkilak.

- a) Nahiz eta gaez ibiltzen jarria egon, gau iluneko isiltasuna ez da Isidroren gogokoa.
- b) Animalien mugimendua antzematen hasi ondoko denbora-tartea iduritzen zaio Isidrori latzena gauetan.
- c) Gauekoendako hobeak dira abendu gauetako ilargi beteak maiatzekoak baino, ilunagoak izaten baitira.
- d) Ilargipean ibiliz gero, eguzkitan ibilita baino gehiago belzten omen da azala.

89. Zer da egia?

- a) Hogeitertetik goiti iragan da Isidrori emaztea eritasunak jota hil zitzaionetik.
- b) 60ko hamarkadatik aitzina kontrabandoa guttitu baitzen, Isidrok ez zuen hogeitertu pasatu gaueko lanean.
- c) Isidroren iduriko, hagitxarra da gizonezkoak alargun gelditzea. Bera oraindik jarri gabe dago egoera horretara.
- d) Elkar ezagutu ondoren, bi gazteek adin bertsua zutelarik denbora luzea pasatzen utzi gabe ezkondu ziren eta umeak izan zituzten.

90. Erretiroa.

- a) Badira bost urte Isidro Barberenak nekazalgora utzi zuela. Egun, kontrabandisten gainera gertaeren berri izatea eta kontatzea atsegin du.
- b) Europar Elkartearen sartu orduko, Isidrok laborari izateari utzi zion eta erretiroa hartu zuen.
- c) Nekazaritza gainera hasi zenean, Europar Elkartearen partaide egin gintuzten eta horregatik erabaki zuen Isidrok erretiroa hartzea.
- d) Nahiz eta erretiroa hartuta dagoen, egun oraindik ere alkoholaren kontrabandean aritzen da Isidro, gutti bada ere.

III. IRAKURRIAREN ULERMENA (II) TESTUA

GAUEKOOI ILARGIAK BELZTU EGITEN ZIGUN AZALA

Beñat Doxanbaratz. **Zabalik, 2002ko azaroaren 15a (moldatua)**

Isidro Barberena (Zugarramurdi, 1932) gaueko izandakoa dugu eta oso gustuko du gauekoen istorio eta pasarteak kontatzea. Supazter goxoaren inguruan eseri eta solasal-diari samurki heldu diogu.

Usantzaz, gauekoen balentriek oihartzun handiagoa izan dute ahozko literaturan idatzizkoan baino, eta ia beti heroiak balira bezala deskribatu izan dira gauekoak. Isidro Barberena, ostera, munduko ekintzarik arruntena balitz bezala mintzo da gaiaren inguruan. Laboraria izanik, Isidrok artoa, patata eta behientzako arbiak erein eta jorratzen zituen bere landan. *“Baina, jakina, laborantzatik bakarrik ez zara bizitzen ahal, Zugarramurdi ez baita fabrikarik. Hortaz, gure industria aduana bazterrean utzi eta muga mendiz iragatea izan da”* gehitu du, iluntasunean ikustera usatuak daudenen begirada urdina erakutsiz.

Segidan, Lehen Mundu Gerra amaitu berritan bere aitak bizi izandako pasarte bat kontatu digu: *“Gau ilun batean, ederki afaldutakoan, Frantziako muga alderat abiatu ziren gauekoak azukre kargak bizkarrean harturik. Aitak erran zuen, “badaezpada, ni banoa aitzinean”. Bidexkan goiti egin eta mendi gain-gainetik hurbil zegoela, zapla, bi karabinerorekin suertatu zen. Beharrik mantan biratuak ziren, lotan. Orduan, aitak bere azukre karga lurrean pausatu eta giblean heldu zirenak abisatzera joan zen. Karabineroak hurbil zirela erranik, lagunek bertze alde batetik jo zuten. Berak, ordea, bere kargaren bila itzuli behar zuen. Inguruan deusik mugituz gero, iratzarri eta akabo! Isilka-misilka, aitak erdietsi zuen bere karga berriz hartzea. Gibela eman orduko, ordea, zerbait entzun eta iratzarri egin omen ziren, nahiz eta inor ez ikusi. Berandu baino lehen, gauekoek mendi kaskoan zen Bergara bentan azukre karga guzia utzi zuten. Hala, lasaitu ederra harturik mendian beheiti heldu zirela, otadi batean barna sartu eta, bat-batean hiru guardia zibil atera eta bi kontrabandista atzeman zituzten. Sarjentuarengana eraman eta honek goitik beheiti begiratu, behatzak bien lepoaren kontra eraman zituen eta han arraskatu. Ondoren, ahora eraman eta dastatu egin zuen. Hasmentako izerdi gaziaren ondoan, zapore gozo-gozoa sumatu zuen. Bazekiten zertan ibili ziren, baina ezin deusik egin, ez baitzuten fitsik. Makilakada batzuk eman eta hala, hanka!”*

Naziak Zugarramurdin

Isidro aise oroitzen da Bigarren Mundu Gerran alemaniarrek Iparraldea inbaditu eta muga zaintzen izan zireneko garaiez.

“1940an sartu zirelarik, nik zortzi urte nituen. Alemaniarrak Frankorekin ongi konpontzean, egun-pasa bizikletan etortzen ziren Zugarramurdirat, turista gisa. Ostatueta sartu eta jan-edanean ematen zuten eguna, herrikoak franko poliki errespetatuz. Hori bai, aldean zeramatzaten pistola eta matxetea ez zituzten gainetik kenduko. Eta ez pentsa ho-

gei urte inguruko soldaduak zirenik, hogeita hamar urtetik goitikoak baizik, serioak eta gorrak. Gure herrira etortzen zirenak austriarrak omen ziren. Oroitzen naiz zein bota ederrak eramaten zituzten, belauetarainokoak eta beti garbi-garbiak, dirdiratsuak”.

Gerra ondoko penak eta miseriak tarteko, kontrabandoa gori-gorian zela, Isidro bere aita nekatuari laguntzen hasi zitzaion. *“Ez zen bertze manerarik sos batzuen irabazteko”.* Gainera, zortzi anai-arreben artean helduena da bera, *“nahiz eta orain lau baizik ez garen gelditzen”*, gaineratu du. Halaxe, kilometro puskak beti mendiz eginez, *“egunean lau bat bidaia egiten nituen frantsesendako 96 graduko alkohola eta arnoa eramanez, aizu! Eta 30 pezeta irabazi bi orenoko bidaia bakoitzean, hau da, 0,75 zentimo litroko. Eta dirutza ikaragarria zen hori”.* Garai hartan munta handikoak ziren joan-etorri haiek, Frantzia debekatua baitzen alkohola erabilia inork esentziak egitea. Debekuaz baliatuz, hamar lagun inguru aritzen ziren merkantzia bentetara eramaten, *“gauetz ia beti”.* Egun-argiz ere *“abiatzen ginen noiz edo noiz; hori bai, behe-lainoaren edo euri erauntsiaren babesean”.*

Garai hartan, 40ko hamarkadaren hondarrean alegia, makiak ere inoiz aurkitu zituen: *“Mendiko bordetan lo eginez ibilki, behin Zugarramurdi ingurura ailegatu ziren Francoren kontra etortzeko. Baina zer egingen zuten gaizo haiek goseak akitzen eta muniziorik gabe baldin baziren?”.*

Beste aldetik alde honetara

Ingeles Bidea erabiliz, Isidrok eta gaueko lagunek beste aldetik ere pasatzen zituzten gauzak, Baionatik ekarritako parpaila, kasu, Sarako Istilarte auzotik Zugarramurdira, 30 kiloko paketetan banaturik. *“Kobrezko haria ere ekartzen genuen, bizkarrean eramanda rolo handietan bilduta. Ibiltzeko hagitz txarra zen. Hura bai zela gogorra!”.* Esaterako, atera aitzin, Isidrok bere burua baskulan jarri eta 58 kilo zirela ikusirik, *“kobre paketea paratu eta hara non 61 kilo zirela nik eraman beharrekoak. Hara!”.*

Gero, kobrea behin Zugarramurdira ekarrita, Arraiozko kuadrilla batzuek Belateraino eramaten zuten karga. Eta han, hondo bikoitza zeukaten kamioietan sartu eta Bilbora garraiatzen zuten, funditzeko tokietara, alegia.

Beste aldi batez, *Lambretta* motor bat alde honetara ekarri zuten, *“Nola? Piezatan desmuntatua. Normandiako mandoak ere pasatu izan genituen, pentsa”.* Merkantzia bizkarreratzeko tenorean ez zen jakiten ahal zein zen paketerik erosoena eramateko, *“aunitzetan haundiena arinena izaten baitzen; edo bertze gisa, ttikiena pisuena. Hori duk, ba!”.*

Gauekoen jokamoldea bitxia izaten zen: *“Batto aitzinean joaten zen eta bertzeak bidadanaka hagitz gibeletik, hamar minutura edo”.* Beti tentuz ibili behar, *“eta guardia zibilek edo jendarmeez altoa eman ez gero, paketea bota eta eskapatzea zen kontua”.* Behin baino gehiagotan karabineroen tiro hotsak entzun bazituen ere, Isidrori ez zitzaion gertatu guardia zibilek atzematea. *“Hala ere, beti beldurrez eta zainak airean zenbiltzan, are gehiago karabineroek fitsik ez bazekiten. Orduan, kasu!”.*

Horren haritik, Isidrok garbi utzi nahi du karabinero gehienak erosiak zirela. *“Oiloen eta bildotsen truke ez ikusiarena egiten zuten. Bereziki, Sergio izeneko batekin oroitzen naiz. Hura hoberena zen paso egiten; jakina, baldin eta bildots bat ematen bagenion”.* Baina guardia zibilak ez ziren beti berak izaten: *“Batto berria agertzen zelarik, kasu eman behar zen”.*

Gauerdiko ezkilak

Kontu bitxi bat azaldu digu: *"Gauekooi ilargiak azala belztu egiten zigun"*. Gure harri-dura aurpegia ikusita, eta hobeki uler dezagun, gehiago zehaztu du: *"Ba bai, ilargia delarik, gaua kanpoan pasatzen baduzu, belztuko zara, eguzkitan izan bazina bezala"*.

"Eta ba al dakizue zein den gaurik argiena? Ba, ilargi beterik argienak abendukoak izaten dira" dio Isidrok. *"Baina hori ez da sobera ona gauekoentzat, urrunera ageri baita. Hoberena guretako aro garbia eta ilargirik gabea izatea da. Gaurik ilunena, berriz, maiatzekoa izaten da. Hara!"*.

Dena dela, eta gauarekin ohitua egon arren, Isidroren irudiko, gaua aski goibela da gizakiarentzat. *"Gaua izigarri serioa da, gero! Oren bata, bi orenak, hirurak, ezkilak ezin motelago doaz eta dena isil-isilik eta lo dago. Goizeko oren batetik bortzak arte arrunt txarra da. Gero, hortik aitzina hasiko dira ardiak eta bertze animaliak mugitzen, dinbili-danbala eta tira!"*.

Goiti-beheiti, 20 urte luze eman zituen gaueko lana egiten. Hala, 60ko hamarkadatik goiti gaueko lana urritzen joan zen eta mutilzahar geratzeko bidean zela, 39 urterekin, Isidrok Lesakako emakume bat ezagutu zuen, Antonia. *"Bera ere nire adin bertukoa zen"*. Luze jo gabe ezkondu ziren, nahiz eta gero seme-alabarik ukan ez. Dena amultsuki zihoan, harik eta Antonia gaixotu eta zendu zen arte, *"orain 21 urte dira alargun naizela"*. Horretaz mintzo, begitartea zimurtu egin zaio. *"Orain usatua naiz, baina arrunt txarra da gizonendako"*.

Duela bost urte hartu zuen erretiroa Isidrok. Bere aburuz, laborantza munduaren gainbehera eta hondamendia *"Europar Elkartean sartu gintuztelarik hasi zen"*. Orduan pentsatu zuen erretiroa hartzeko tenorea hurbil zela.

Gaur egun kontent bizi da, gehien maite duena egiten ahal baitu: *"Istorioak jakiten eta kontatzen segitzea"*. Gustagarri zaio kontalari izatea, gauekoen istorio eta pasadizoen kontaketa. Bere ustez, egun ere bada kontrabandoa: *"Badakizue, dendetan dagoen 96 graduko alkohol hori... ez da sobera legezkoa. Eta segur aski ez duzue aise antzemanen"*.

I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1.	d	16.	b	31.	a	46.	d	61.	b
2.	d	17.	c	32.	a	47.	a	62.	c
3.	a	18.	d	33.	d	48.	d	63.	b
4.	b	19.	c	34.	a	49.	d	64.	d
5.	b	20.	c	35.	a	50.	d	65.	c
6.	a	21.	d	36.	a	51.	b	66.	a
7.	a	22.	a	37.	b	52.	c	67.	d
8.	d	23.	c	38.	c	53.	c	68.	b
9.	a	24.	b	39.	a	54.	a	69.	a
10.	c	25.	a	40.	c	55.	b	70.	d
11.	b	26.	a	41.	c	56.	d		
12.	d	27.	b	42.	c	57.	b		
13.	b	28.	b	43.	a	58.	c		
14.	d	29.	a	44.	a	59.	c		
15.	b	30.	b	45.	c	60.	d		

II. ENTZUNAREN ULERMENA

71.	c	76.	c
72.	a	77.	a
73.	c	78.	d
74.	c	79.	d
75.	d	80.	b

III. IRAKURRIAREN ULERMENA

81.	c	86.	d
82.	a	87.	d
83.	a	88.	a
84.	b	89.	a
85.	b	90.	a

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

PROBA IDATZIA

Ohar garrantzitsuak

- Azterketa honek 10 orri ditu, 2 multzotan banaturik.
- Ez jarri izenik edo sinadurarik azterketa orrietan.
- Idazteko boligrafo beltza edo urdin iluna erabili.

<i>Proba idatzia</i>		<i>Puntu Kopurua</i>	
		<i>Gehienez</i>	<i>Gutxienez</i>
Idazlan laburra	100 hitz, gutxienez, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe. 2 GAI aukeran.	10	5
Idazlan luzea	300 hitz, gutxienez. 3 GAI aukeran.	30	15
Azterketa osoa gainditzeko, GUTXIENEZ, 22 puntu atera behar dira.			

IDAZLAN LABURRA

- * Proposatzen diren bi gaien artean **bat** aukeratu behar duzu.
- * Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 100** hitzekoa izanen da (15-20 lerro).
- * Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu "Gaia", "Egitekoa" eta, batez ere, "Nahitaez eman behar duzun informazioa" izeneko atalei. **Labur eta argi** adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe. Ez ahaztu atal honetan zuzentasun handia eskatuko zaizula.

1. idazlana

Gaia:

Larruzko berokien aurkako kanpaina abian jarri duzue.

Egitekoa:

Animaliak babesteko talde baten arduraduna zarenez gero, gutun bat idatzi behar diozu egunkari bateko zuzendariari.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

1. Kanpainaren protagonistak eta kolaboratzaileak nortzuk diren azaldu.
2. Kanpaina zertan den azaldu.



2. idazlana

Gaia:

Udaltzainek zure kaleko zirkulazioaz arduratu behar dute.



Egitekoa:

Udalari gutun bat igorri behar diozu zure kaleko zirkulazioa etetea eskatzeko.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

1. Zure kalean egingen duzuen festaren berri eman.
2. Zure eskaera kontuan hartzeko arrazoia(k).

IDAZLAN LUZEA

OHARRAK:

- * Proposatzen diren hiru gaien artean bat aukeratu behar duzu.
- * Idazlanak **300 hitz** eduki behar ditu, **gutxienez**.
- * Idazlana egiteko orri hauetako informazioa erabiltzea aukerakoa da. Beraz, ez zaude erabiltzera beharturik.
- * Proba honetan gaia garatzeko duzun gaitasuna erakutsi behar duzu.
- * Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.
- * Proba baloratzeko lau alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, testuaren antolaketa (koherentzia eta kohesioa), egokitasuna eta aberastasuna.

1. GAIA INMIGRAZIOA ETA ETXEBIZITA

Egunkari batzuetako iragarki eta titularrak:

Zenbait magrebtarrek euren autoetan
egiten dute lo
etxebizitzarik ez dutelako.



**Burlatan. 180 euro hilean.
Gela errentan eta sukaldea
erabiltzeko eskubidea.
Bikoterik eta atzerritarrik ez!**

Nafarroan etxebizitzaren prezioa,
gutxienez, bikoiztu egin da bost
urteotan.

Ondoko puntu hauetaz balia zaitetzke:

- ▶ Etxebizitza sozialik eza.
- ▶ Lanpostu ezegonkorrak.
- ▶ Prezio ordainezinak.
- ▶ Errentan hartzeko eskaintza urria.

2. GAIA

TOKITARA JOAN ETA BERTATIK BERTARA DUGUNA EZAGUTU EZ



Brasilgo oihanean, Acre izeneko eskualdean, orain arte ezagutzen ez zen tribu bat aurkitu dute Indiarren Fundazio Nazionaleko ikertzaileek.

Bidaia agentzia batzuk hasi dira Acrerako bidaiak prestatzen. Gaur egun, Ilargirako edo Marterako bidaiak agentzietan salgai.




Ondoko puntu hauetaz balia zaitetzke:

- ▶ Toki berriak ezagutzeko jakin-mina.
- ▶ Nahi gabe sortzen ahal ditugun kalteak: naturan, kultura ondarean, eguneroko bizi-moduan...

3. GAIA

KOMUNIKAZIO ERA BERRIAK



Hitzak osorik tekleatzea lan astuna denez gero, hizkera berezia ari da sortzen: laburdurak eta kode laburrak nagusi.



Harreman birtualek arintasuna eskatzen dutenez, gero eta gehiago zabaltzen ari da hizkera hau.

Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Gazteen artean, sakelako telefonoak gehiago erabiltzen dira mezuak bidaltzeko hitz egiteko baino.
- ▶ Mezuak idazteko erabiltzen den hizkuntza: hitz egiten den moduan idazten da.
- ▶ Idazkera horrek arazoak sortzen ahal ditu idazlan formalak egin behar direnean.

**2003ko
bigarren
deialdia**

2003/2

**Atariko proba
Erantzunak
Proba idatzia**

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

ATARIKO PROBA

Ohar garrantzitsuak

- EZ JARRI IZENIK EDO SINADURARIK AZTERKETA ORRIETAN ETA ERANTZUN ORRIAN, **plika** sistema erabiliko baita.
- **Arkatzez** idatzi. Honela, okertzen bazara, erantzun okerra ezaba dezakezu.
- Azterketa osoko erantzunak **ERANTZUN ORRIAN** markatu behar dira. Orri-multzo hone-tako erantzunak ez dira kontuan hartuko.
- Entzunaren ulermena goizeko **11:00**etan egingen da.

<i>Proba</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Galdera kopurua</i>	<i>Gehienezko puntu kopurua</i>
Aukera anitzeko galderak	1-9	70	70
Entzunaren ulermena	10-11	10	15
Irakurriaren ulermena	12-16	10	15
Azterketa gainditzeko, gutxienez, 65 puntu atera behar dituzu.			

I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. *Tabernara sartu, eta betiko zerbitzariari:*

- a) Atera zeniezadake garagardo bat?
- b) Aterako didazu garagardo bat?
- c) Eskertuko nizuke garagardo bat aterako bazenit?
- d) Atera iezadazu garagardo bat, arren.

2. **Zein da zuzena?**

- a) Ez dago munduan zure maila duela.
- b) Ez dago munduan zure maila duenik.
- c) Ez dago zure maila duen munduan.
- d) Ez dago zure maila duela munduan.

3. **Aukera batean EZ dago ortografia akatsik. Zeinetan?**

- a) Urtxintxa, bonbilla, hospitale, hosto.
- b) Serbitzu, hodei, esperientzia, istorio.
- c) Tortilla, engainatu, lehiaketa, ahari.
- d) Ahur, suspertu, itsaso, txanpu.

4. **Zeinek EZ du harridura adierazten?**

- a) Aho zabalka
- b) Aho bete hortz
- c) Zur eta lur
- d) Txundituta

5. ***Ez badidazu autorik bidaltzen, zure etxera.***

- a) ni ez naiz joaten ahal
- b) nik ezin dut joan
- c) ni ezin naiz joan ahal
- d) nik ezin izango dut joan

6. **Zein da zuzena euskara batuan?**

- a) Iruñetik Donostiarantz abiatu ziren.
- b) Iruñetik Donostiaruntz abiatu ziren.
- c) Iruñeatik Donostiarantz abiatu ziren.
- d) Iruñeatik Donostirantz abiatu ziren.

7. ***Izugarri gustatzen zaie***

- a) emakumetaz hitz egitea.
- b) emakumeetaz hitz egitea.
- c) emakumeez hitz egitea.
- d) emakumez hitz egitea.

8. Beheko esaldietatik zein dago GAIZKI?

- a) Istripu horren inguruan hitz egin zuten.
- b) Istripu horren gainean hitz egin zuten.
- c) Istripu horren buruan hitz egin zuten.
- d) Istripu horretaz hitz egin zuten.

9. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Egin duzunak ez du batere grazirik.
- b) Zein neskatili esan diozu polita dela?
- c) Txoriek habia egin dute baratzeko arbol batean.
- d) Burdinazko hesia jarri dugu etxe inguruan.

10. Ez duzue inoiz lortuko guk abilezia!

- a) adina
- b) adinako
- c) bezain
- d) beste

11. Ikasiko baduzu,

- a) amak zorionduko zaitu.
- b) amak zerbait oparituko lizuke.
- c) atsedena hartu beharko zenuke.
- d) gogor ekin beharko diozu.

12. Goikola III.a sasoian badago ere,

- a) ez du bere marka hautsiko.
- b) sabaia ukitu du honezkero.
- c) topera ailegatu da.
- d) ez du inongo errekorrik garaituko.

13. Zein da zuzena?

- a) Pareta pikatu behar da harria agerrarazteko.
- b) Pareta ziztatu behar da harria agerrarazteko.
- c) Pareta txikitu behar da harria agerrarazteko.
- d) Pareta xehatu behar da harria agerrarazteko.

14. Zein dago GAIZKI?

- a) Bihar etorriko balitzait, musu handia emanen nioke.
- b) Hori eginen bagenu, berehala ikasiko genuen.
- c) Joan bazina, autoan ekarriko zintuzketen.
- d) Emaztegaia bazenu, zer ez zenioke oparituko?

15. Ez dugu ezer erabaki. Beraz,

- a) bilera berria egin behar dugu.
- b) bilera berri bat egin behar dugu.
- c) beste bilera egin behar dugu.
- d) beste bilera bat egin behar dugu.

16. Bete Jainkoaren agindua!

- a) bezatela
- b) bitza
- c) bitezela
- d) bedi

17. Aukera ezazu esaldi zuzena.

- a) Telebistak esan du bihar bero asko egingo duela.
- b) Onddo horiek nigatik ekarriak dira.
- c) Goseak akabatzen nago.
- d) Zenbat kostatzen du auto horrek?

18. Hango anabasa!

- a) Tira, bihar eguraldi hobea egingo du.
- b) Bai, arrazoi duzu. Jende gutxi zegoen.
- c) Normala da, baserriak beti egon dira barreiaturik.
- d) Ea nork txukuntzen duen!

19. Ez haserretu,

- a) gaur etxean geldituko naizela.
- b) garaiz itzuliko naiz eta.
- c) afaltzera ez etortzekotan.
- d) bik ezik, denek egin dizutelako bihurrikeriaren bat.

20. Zein da zuzena?

- a) Aita 1970eko martxoaren 25an hil zen.
- b) Aita 1971ko martxoaren 31an hil zen.
- c) Aita 1971ko martxoaren 25ean hil zen.
- d) Aita 1970eko martxoak 31n hil zen.

21. Zu, nire aldean, azkarra zara. Hau da:

- a) Nire ondoan jartzen zarenean, azkarra zara.
- b) Azkarra zara, gauzak nire alde egiten dituzulako.
- c) Ni ez naiz zu bezain azkarra.
- d) Eseri nire ondoan. Azkarrago egingo dituzu gauzak.

22. Puntuazioari dagokionez, zein esaldi dago GAIZKI idatzita?

- a) Aizu, kaskagorri, zoaz hemendik!
- b) Eta honela esan zion: Ibil zaitetz kontuz horrekin.
- c) Denetarik erosi dut: patatak, laranjak, tomateak...
- d) Barañainen emakumezkoak 10.639 dira; gizonezkoak, berriz, 8.072.

23. Zein da esaldi zuzena?

- a) Lantokian erretzetik utzi zituzten.
- b) Lantokian erretzen utzi zioten.
- c) Lantokian erretzetik utzi zuten.
- d) Lantokian erretzea utzi zioten.

24. Zein zerrendatan ageri da ortografia akatsen bat?

- a) Saiheski, ihartu, ihardetsi, hutsal.
- b) Hordi, lehun, gehitu, hodei.
- c) Arnasa, burdina, makila, ergelkeria.
- d) Hein, hosto, koska, basahuntz.

25. Uste duzu auzokidearekin duzuen arazoa konponduko dela?

- a) Ez, ziur nago ez dagoela zer konpondurik.
- b) Nire ustez, ez dago egoera konpontzerik.
- c) Ez dakit konponduko denik.
- d) Ez dakit konponduko badenik.

26. Zuk ekarri ezean, gosaria Mirenek ekar

- a) diezaizuke.
- b) liezaizuke.
- c) ziezaizuken.
- d) lizuke.

27. Bazterrak nahastea gustatzen zaionez,

- a) hilerok aldatzen du etxea.
- b) etxeko bazter guztiak garbitzen ditu behin eta berriro.
- c) beti gaizki esaka aritzen da.
- d) urruneko zein hurbileko bazterretara joaten da.

28. Denak gustatu zitzaizkidan: zureak nireak.

- a) bai
- b) zein
- c) ala
- d) baita

29. Kontuz ibiliko naiz ezer txarrik

- a) gerta ez bekit.
- b) gerta ez zaidan.
- c) gerta ez zitzaidan.
- d) gerta ez dakidan.

30. Nola idazten da letraz 1844?

- a) Mila zortzihun eta berrogeita lau.
- b) Mila zortzirehun eta berrogeita lau.
- c) Mila eta zortzihun eta berrogeita lau.
- d) Mila zortzirehun eta berrogei eta lau.

31. Oso dotore etorri zen,

- a) ile tindatuarekin.
- b) ilea tindatuarekin.
- c) ile tindatuta.
- d) ilea tindatuta.

32. Aukeratu zuzena.

- a) Hiru etxetako txakurrak atera ditut paseatzera.
- b) Praktikoagoak dira lau atetako autoak bi atetakoak baino.
- c) Atzo zazpi kilometrotako ibilaldia egin nuen.
- d) Bi urtetako barnetegia egin dut Leitzan.

33. Pentsamolde zurruna du. Alegia:

- a) Oso pentsamendu arraroak ditu.
- b) Ez da batere malgua.
- c) Pentsamendu aurrerakoiak ditu.
- d) Oso ideia ilunak ditu.

34. Lantegi bateko zuzendariari gutuna idatzi behar diozu lanpostu bat eskatzeko. Eskutitza hasteko, zer jarriko zenioke?

- a) Zuzendari txit agurgarria:
- b) Zuzendari jaun / andre hori:
- c) Zuzendari andre txit gorena:
- d) Zuzendari jaun / andre prestu eta agurgarria:

35. Atzo zenbat *ligatu zenuen?*

- a) neskarekin
- b) neskekin
- c) mutikoekin
- d) mutikokin

36. **Etxea garbitzen ari nintzela,**
- telefonoz deitu zenidan.
 - ezin ninteke tabernara joan.
 - eskatzen zenidan dirua.
 - txirrina joko lukete.
37. **Ondorengo multzoetako hitz batek EZ du zerikusirik besteekin, esanahiari dagokionez.**
- Itsasadar, itsasbide, itsaskor, itsasargi.
 - Enbor, hosto, adaburu, hostotza.
 - Errekasto, lats, ur-laster, ibai.
 - Gogo, irrika, grina, desio.
38. **Esaldiaren ordenaren arabera, zein da zuzena?**
- Lanean agertu den gizona ez da lankidea.
 - Etxera gizona deitu duena nire aita da.
 - Hitzaldia udaberriari buruz berandu bukatu zen.
 - Gomendatu zidan irakasleak erosi nuen liburua.
39. **Azterketa gainditzea lortzen baduzu ere,**
- festa ederra egingo dugu.
 - erakutsi behar diguzu titulua.
 - ez zara gustura geldituko.
 - hurrengo azterketa ere gaindituko duzu.
40. **Ez dakizula paperezko txori hori egiten?**
- Probatu al duzu?
 - Frogatu al duzu?
 - Dastatu al duzu?
 - Froga egin duzu?
41. **Aberats, emankor, oparo edo,**
- asko.
 - naro.
 - franko.
 - uztaro.
42. **Bazterretxeko egunsentian ibili ziren diru eske.**
- seme alabak etxez etxe
 - seme-alabak etxez etxe
 - seme-alabak etxerik-etxe
 - seme alabak etxerik etxe

43. *Erdi Aroan, kultura kristaua eta musulmana uztartu ziren, hau da,*

- a) borrokan ibili ziren.
- b) aldentu ziren.
- c) nahasi ziren.
- d) elkarren kontra jarri ziren.

44. *Zein dago GAIZKI esanda?*

- a) Lepoa eginda nago.
- b) Lehengo lepotik dugu burua.
- c) Nire lepotik bizi nahi du.
- d) Lepoa egingo nuke!

45. *Behaztopa egin eta ezkerreko belaunean*

- a) min handia hartu du.
- b) min handia eman du.
- c) min asko hartu du.
- d) min asko egin du.

46. *Beheko esaldietatik zein dago ongi?*

- a) Lagunarentzako erosi dut opari hau.
- b) Dena da erraza zurentzat.
- c) Edozein gauza egingo lukete gurengatik.
- d) Gurasoengandik ikasi dute zintzo jokatzeko.

47. *Zein da zuzena?*

- a) Nahi zuen gonbidatu bere zorionera.
- b) Kontuz, erori egingo zarela!
- c) Gauzak ez zirela aldatuko esan zenidan.
- d) Ezagutzen dut mutil bat Alfontso deitzen dela.

48. *Noiz da afaria?*

- a) Martxoak 8an, gaueko 9:30etan.
- b) Martxoaren 4an, gaueko 9:30ean.
- c) Martxoaren 4ean, gaueko 9:00etan.
- d) Martxoak 8, gaueko 9:15etan.

49. *Lana bukatu zuenerako, goizeko zazpiak ziren. Hau da,*

- a) lana goizeko zazpitan bukatu behar zuen.
- b) lana bukatzen ari zenean, goizeko zazpiak ziren.
- c) lana ez zuen bukatu goizeko zazpiak arte.
- d) lana goizeko zazpiak baino lehen bukatu behar zuen.

50. ***Ez nion esan ziria sartu, baina egia da!***

- a) zidan
- b) nion
- c) nionik
- d) niola

51. ***Udako gau bero batean, esnea leihoan utzi eta*** Zein da egokia?

- a) ebaki egin zitzaidan
- b) lizundu egin zitzaidan
- c) mindu egin zitzaidan
- d) eten zitzaidan

52. ***Bazkarian,, joan ziren barrura baso batzuk.***

- a) zanga-zanga
- b) tarrat-tarrat
- c) zanpa-zanpa
- d) tapa-tapa

53. ***Ergela zara, gero!***

- a) Oraindik ez zara ergela.
- b) Ergela zara, benetan!
- c) Kontuz, etorkizunean ergela izango zara!
- d) Izatez ergela zara, baina baduzu konponbiderik.

54. ***Azkenik, umeak begiak bildu ditu. Beraz,***

- a) begiak ongi jarri ditu.
- b) zeharka begiratu du.
- c) lo gelditu da.
- d) ikusmena galdu du.

55. ***Puntuazioari dagokionez, zein da zuzena?***

- a) Azterketa erraza izan zen, beraz gehienok gainditu genuen.
- b) Zer moduz afaldu zenuten sagardotegian.
- c) Donostiako lagunek, atzo goizean gurasoen baserrian gosaldtu zuten.
- d) Ramon Lasarteri, gaztetako lagun minari, omenaldi ederra egin diote.

56. ***Zein da zuzena?***

- a) Zorionez, dator autobusa.
- b) Zorionez, datorrela autobusa.
- c) Zorionez, autobusa datorrela.
- d) Zorionez, badator autobusa.

57. Zein da zuzena?

- a) Teknologi berriak asko erabiltzen dira gaur egun.
- b) Makila batez joko zaitut.
- c) Katea batez lotu dugu txakurra.
- d) Hizkuntz ugari jakitea aberastasuna da.

58. Pirinio alde oso toki da.

- a) idorra
- b) ordokia
- c) malkartsua
- d) laua

59. Zein dago GAIZKI?

- a) Astelehena arte.
- b) Astelehenera arte.
- c) Astelehenerarte.
- d) Astelehen arte.

60. Zein da zuzena?

- a) Zer? Afaltzen dugu?
- b) Hori egingo dugunean, jakingo duzu zer den.
- c) Berrito jolastuko dugu?
- d) Zerbait erabakitzen dugunean deituko dizut.

61. Zein da zuzena?

- a) Zein azkarra egin duzun!
- b) Bai azkarra egin duzun!
- c) Zein azkar egin duzula!
- d) Bai azkar egin duzula!

62. Eskutitz formal bati bukaera emateko, aukeratu amaiera egokiena.

- a) Jainkoak gorde zaitzala luzaroan.
- b) Agur bero bat.
- c) Jaso ezazu nire agurrik adiskidekorrena.
- d) Begirunez, agur.

63. Atera txakurra kalera;, etxean egingo du kaka.

- a) ordea
- b) aitzitik
- c) bestela
- d) gainera

64. Kinielako saria banatu eta bakoitzari 1.000.000 bat egokitu zitzaigun, hots,

- a) milioi bana egokitu zitzaigun.
- b) milioina egokitu zitzaigun.
- c) milloi bana egokitu zitzaigun.
- d) bakoitzari milioi bana egokitu zitzaigun.

65. Jan aurretik, barraskiloei garbitu behar zaie.

- a) lika
- b) aparra
- c) bitsa
- d) lirdinga

66. Esne-mamitan bizi zara!

- a) Kalte egingo dizu hainbeste esne edateak.
- b) Ezin zara kexatu!
- c) Zahartzarora iritsi zara, baina haurra ematen duzu.
- d) Esnezale amorratua zara, gero!

67. Beti kexaka dabil. Alegia:

- a) Beti ari da hiletak jotzen.
- b) Beti mela-mela eginda egoten da.
- c) Beti tirriki-tarraka ibiltzen da.
- d) Beti negarrez egiten du.

68. Kalera joan behar dut eta, haurra?

- a) begiratzan didazu
- b) begiratuko diozu
- c) begiratuko duzu
- d) begiratuko ahal duzu

69. Gaur goizean erosketak egin ditut.

- a) dinbi-danba
- b) firin-faran
- c) zisti-zasta
- d) di-da

70. Zein da zuzena?

- a) Liburua atzo erosi nuen. Koaderno atzo ere erosi nuen.
- b) Liburua atzo erosi nuen. Koaderno atzo erosi nuen ere.
- c) Liburua atzo erosi nuen. Koaderno ere atzo erosi nuen.
- d) Liburua atzo erosi nuen. Koaderno atzo erosi ere egin nuen.

II. ENTZUNAREN ULERMENA

Entzungaia liburuari erantsirik datorren CDan dago eta haren transkripzioa liburuaren bukaerako eranskinean.

71. Patagonia lurralde...

- a) ezaguna, populazio gutxikoa eta natura aldetik aberatsa da.
- b) handia, ezaguna eta historia aldetik pobrea da.
- c) populazio handikoa, ezezaguna eta handia da.
- d) ezezaguna, populazio gutxikoa eta natura aldetik aberatsa da.

72. Hango bizi-baldintzak gogorrek direla eta,...

- a) hartara bakarrik indigenak egokitu dira.
- b) indigenek zailtasunak izan dituzte egokitzeko.
- c) dentsitate demografikoa behera joan da.
- d) europarrek Artikoa nahiago izan zuten.

73. Onak...

- a) *Suaren Lurraldea/Tierra del Fuego* izenekoan bizi ziren eta hilda aurkitutako baleak jaten zituzten.
- b) irla txikien iparraldean bizi ziren eta ez ziren teknika handiko arrantzaleak.
- c) itsaslabarretan bizi ziren eta haragia permafrost izeneko lurrean gordetzen zuten.
- d) inguru hartan ugari ziren baleak eta haiek harrapatzera joaten ziren.

74. Emakumeak ziren...

- a) etnia guztietan lan gehien egiten zutenak.
- b) misiolariak aginduta, jantzi behar izan zutenak.
- c) otarrainak prestatzen zituztenak.
- d) Yaganak etnien lan errazena egiten zutenak.

75. Bertako populazioa azkar desagertuz joan zen...

- a) misiolariak Europatik eramandako katarroak jota.
- b) misiolariak arropak eman eta asko lagundu zieten arren.
- c) uretatik atera eta haize hotzak ez zielako gorputza lehortzen uzten.
- d) jantzi beharreko arropak busti, ezin lehortu eta katarroak jota.

76. Konkistatzaileak harritu ziren teuelcheak ikustean,...

- a) europarrak baino askoz ahulagoak zirelako.
- b) metro eta laurogeiko gizakiak zirelako.
- c) onak eta teuelcheak gizaki beldurgarriak zirelako.
- d) ez zutelako sinesten Pigazettaren kronikak zioena.

77. Patagonia hitzaren jatorriari buruz hauxe esan behar da:

- a) Teuelche baten oinetakoak ikusita, konkistatzaileek "O, patagon!" adierazi zuten.
- b) Izenaren inguruko guztiak hipotesi hutsak dira.
- c) *Amadis de Gaula* obrako Patagon izeneko munstroarekin identifikatu zituzten teuelcheak.
- d) Patagoiak ziren hango etnia guztien aitzindariak.

78. Argentinako iraultza industrialia zela eta,...

- a) populazioa jaitsi egin zen.
- b) indioek ezin izan zuten industriaren lehia garaitu.
- c) haragiaren kontsumoa biderkatu behar izan zuten.
- d) indigenen lurrak behar zituzten.

79. Julio Argentino Roca jeneralak...

- a) argentinarren destaina jaso zuen egindako sarraskiengatik.
- b) indigenen kontrako gerra zuzendu zuen.
- c) Zerri Gorria ezizeneko eskoziarra heroi nazional izendatu zuen.
- d) dolar bat ordaintzen zuen indio belarriko.

80. Esaldi hauetako zein da entzungaia ongien laburbiltzen duena?

- a) Patagonia, indigenei lapurtutako lurralde zabala.
- b) Patagonia, inperialismoak suntsitutako zibilizazio baten eszenatokia.
- c) Patagonia, geografia distiratsua eta historiaren orrialde iluna.
- d) Patagonia, bizi-baldintza jasangaitzak eskaintzen dituen lurraldea.

III. IRAKURRIAREN ULERMENA (I) GALDERAK

81. Gerhard Bähr.

- a) Legazpin munduratu eta euskara ikertzen jardun zen euskalari honek berrogeita bost urte ere ez zuen hil zenean.
- b) Alemanian sortua izanagatik, Legazpin hazi eta hezi zen euskararen geroak biziki kezkatzen zuen alemaniar hau.
- c) Euskaltzalea ere bazenez gero, arras samindu zen Espainiako gerra ondoko giroak euskal hizkuntza desagerrarazi zuelako.
- d) Espainiako gerraostean beste zientzialari germaniar batzuekin batera ekin zien euskara ikasteari eta aztertzeari.

82. Udana gaineko etxea.

- a) Alemanen Etxeak, inguruko gainerako etxeek ez bezala, kanpoko itxuran ez du berezitasun nabarmenik.
- b) Legazpitik abiatu eta Oñatira goazela, europar estiloko etxerik onenarekin egingo dugu topo bidearen eskuinetara.
- c) Leihoak, terrazako toldoa eta lorategiko landareak dira, besteak beste, Alemanen Etxearen dotoreziari eta berezitasunari oraindik ere eusten dietenak.
- d) Egun egoera onean ez dagoen arren, hurbileko etxeekin alderatuz gero, Bähr-tarrenari berezitasunak sumatzen zaizkio.

83. Gerhard-en gurasoak eta anai-arrebak.

- a) Hamar urteko tartean jaio ziren Friedrich Bähr-en eta Johanna Von Daacke-ren seme-alaba guztiak.
- b) Gerhard-en aita, meategi batzuetako zuzendaria izan zena, hamar bat urte zituela etorri zen Euskal Herrira.
- c) Gerhard-en aita-amek Euskal Herrira etorri aitzin izan zuten ume bat. Beste hirurak Legazpin jaio ziren.
- d) Gerhard-en anai-arrebak, zaharrena izan ezik, Legazpin jaio ziren 1898 eta 1908 bitartean.

84. Bizimodu alemaniarra Euskal Herrian.

- a) Bähr-Von Daacketarren semeek Legazpiko eskolan egin zituzten hasierako ikasketak, eta batxilerra, berriz, Alemanian.
- b) Gurasoek ez ezik, seme-alabek ere hizkuntza muga handiak izan zituztenez gero, gaztelaniarik ere ez zuten ikasi.
- c) Bähr-tarren alabak umetan euskaraz egiten zuen eta, anaia Gerhard-ekin batera, bera izan zen euskal giroa ezagutu zuena.
- d) Alaba Mercedes, bere anaiak ez bezala, ez zen Legazpiko eskolara joan lehen ikasketak egitera.

85. Zein da egia?

- a) Baratzean aritzea, marmeladak egitea zein erlategia izatea nekez batera zitezkeen etxeko hornidura urriarekin: zaldiak, bizikleta...
- b) Bähr-tarren usadio protestanteak herriko katolikoentzat zenbaitetan ulergaitzak baziren ere, etxeko eguneroko bizimoduan antzera jokatu ohi zuten guztiek.
- c) Nahiz eta katolizismoak besterik agindu, Gerhard-en amak puntuzko arropak oparitzen zizkien txiroei, erlijio protestantearen sineskizunei jarraitu nahirik.
- d) Gerhard-en aitak, antza, bazuen ortuan fruta arbolekin lan egiteko trebezia eta horren lekuko da, besteak beste, noizbait jaso zuen saria.

86. Lehen Mundu Gerraren eraginak.

- a) Lehen Mundu Gerran Udana gaineko aterpetxean eman zitzaizen babesak Alemaniako kontsularen lagun minei.
- b) Gerratearen hastapenetan, meategietako zuzendari kargua utzi orduko, Udanatik Olaberriko auzora alde egin behar izan zuten Bähr-tarrek.
- c) Friedrich Bähr-en sorterriko gertakizunen ondorioz, Alemaniako kontsularekin adiskidetu zen eta kontsulak zenbait legazpiar haren etxera bidali zituen babes bila.
- d) Gerraostean, Udanako etxetik alde egin eta gutxienez beste bi tokitan bizi izan ziren Bähr-tarrak, harik eta aitari gaixotasunaren berri eman zioten arte.

87. Friedrich-en eritasun larria.

- a) Egia gordinaren berri izateak Friedrich-engan izan zuen eragina hasieran uste bezain lazgarria izan zen.
- b) Friedrich zendu zenerako, bere seme-alaba guztiak Alemanian ikasten ari ziren; orduan, emazteak hara jo zuen.
- c) Ormaiztegin bizi zirenean, Friedrich-i hesteetako minbiziak jota zegoela jakinarazi ziona Donostiatik etorritako mediku bat izan zen.
- d) Friedrich-ek Donostiako sendagileari egia osoa esateko eskatuagatik, ez zuen horretarako behar adinako adorerik izan.

88. Euskalgintzan.

- a) Udana gainean bizi zenez gero, besteak beste, bi euskalki aztertzeke edota erkatzeke abagunea ere izan zuen Gerhard-ek.
- b) Legazpiko aditzaren inguruan egindako lanari esker Erraimun Olabidek euskaltzain urgazle izendatu zuen Gerhard Bähr.
- c) Gerhard-ek arrebari irakatsi zizkion euskarazko estreinako berba eta esapideak. Horretaz gain, auzokideak izaten zituen mintzagai.
- d) Autoz, trenez eta autobusez ez eze, bizikletaz ere joan-etorri anitz egin zuen Gerhard-ek Euskal Herrian barna Euskaltzaindiaren mandatuz.

89. Euskaltzaindiarekiko harremanak.

- a) Azkueren eta Bähr-en arteko lankidegoa, batzuetan zail samarra izanagatik, opa-roa izan zen eta denbora luzean iraun zuen.
- b) Berehala hartu zuen begitan Azkuek Gerhard Bähr eta horregatik haien arteko harremana arazo iturri izan zen, luzaroan iraun ez bazuen ere.
- c) Euskaltzain urgazle gazteena izateaz gainera, Arana Martijarekin batera aurreneko bekaduna ere izan zen Gerhard Bähr.
- d) Euskaltzain urgazle izendatu ondotik hasi zen Gerhard Bähr-en eta R.M. Azkueren artean gutunen bidezko harremana.

90. Bähr-ek egindako lana.

- a) Begi-bistakoa da jakin-min zientifikoa eguneroko euskararen bidez sorturiko artikuluekin ase zuela.
- b) Idatzi zituen artikulua kontuan hartuz gero, argi dago ezagupen zientifikoak eta hizkuntzazkoak uztartu nahi izan zituela.
- c) Gipuzkoako hogeita hemezortzi herritan eta Nafarroako bitan ibili zen bere lana egiten. Bizkai aldea, ordea, alde batera utzi zuen.
- d) Aditzarena izan ezik, euskal hizkuntzaren beste alor guztiak landu zituen: landare, erle, tximeleta, eta abarren izenak, besteak beste.

III. IRAKURRIAREN ULERMENA (II) TESTUA

GERHARD BÄHR, EUSKAL ALEMANIARRA

Gerhard Bähr, 1900-1945. Elixabete Garmendia. Eusko Jaurlaritza (moldatua)

Gerhard Bähr alemaniarra zen jatorriz, familiaz eta heziketaz. Gipuzkoan, Legazpiko Udana auzoan, jaio eta bertakotutako alemaniarra genuen. Aizkorri aspiko euskararen doinuak txikitan kulunkatua, gaztaroan azkar hizkuntza honen jabe egin eta zientifikotasun germaniarrez bere misterioetako batzuk arakatu eta aztertzeari eskaini zizkion urterik hoberenak. Bizitza laburregia gertatu zitzaion, ordea, patuak Bigarren Mundu Gerra amaitu bezperan lapurtu baitzion bizia, artean 45 urte bete gabe. Gerrateak ostu zituen, halaber, bere azken lanak, etxeko liburutegia bonbapean kiskalita. Hala ere, bere garaian euskalgintzan izandako eraginak eta, bereziki, hizkuntzalaritzan utzitako ondareak euskalarien galeriako figura garrantzitsu bihurtu dute Gerhard Bähr.

1941 inguruan beldur zen Espainiako gerraosteko giroak ez ote zuen mendeetako hizkuntza zaharra itoko, eta hori gertatuz gero, "min hartuko nuke" zioen. Izan ere, euskalaria bakarrik ez, euskaltzalea ere bazen.

Alemaniarrek Udanan

Udana gainean, Legazpitik Oñatirako bidean eskuinetara, bada etxe bat ingurukoak ez bezalakoa. Estiloz Ipar Europako airea nabari, gaur egun onenak emanda baldin bada go ere, antzematen zaio gustuz altxatutako eraikina dela: leiho handiak, udan toldoz estaltzen zen terraza, landare bitxiz hornitutako lorategia... 1891-92an egina da eta hortxe daude Bähr-tarren aztarnak, bertakoek *Alemanen Etxea* esaten dioten horretan, alegia.

Gerhard jaio zenerako –1900eko maiatzaren 6an– bere aita Friedrich Bähr-ek hamar bat urte bazeramatzen Euskal Herrian Kataberako meategietako zuzendaria baitzen. Saxonia Beheretik zetorren, Alemaniako ipar-mendebaldetik, alegia. Jaiotzaz Osterodekoa, emazte herrikidea hartu zuen, Johanna Von Daacke, eta berarekin familia osatu. Gerhard-en aurretik seme bat izan zuten, Friedrich, eta ondoren beste hiru seme-alaba: Joachim, Mercedes eta Hans. Guztiak Legazpin jaio ziren, 1898 eta 1908 bitartean.

Udanako etxeak adierazten duen bezala, Bähr-Von Daacketarrek, inguruari muzin egin gabe, izaera eta bizi-maila alemaniarri eusten zioten egunerokoan. Pare bat nekame eta morroi zituztela beren zerbitzura, umeak zaintzeko *Fraülein* edo institutrizen bat izan ohi zuten etxean. Alaba Mercedes baino ez zuten bidali Legazpiko eskolara. Mutilek irakasle alemaniarrekin etxean bertan egin zituzten lehen ikasketak harik eta batxilerra egitera Alemaniara joan ziren arte.

Nolanahi ere, eta hizkuntza muga izan arren –gurasoak ez omen ziren iritsi sekula gaztelania bera ere txukun egitera–, bertako adiskide anitz egin zuten Bähr-tarrek, batez ere seme-alabek. Horien artean euskal giroa gehienbat bizi izan zutenak, Mercedes txikitik –euskaraz mintzatzen zen– eta Gerhard izan ziren.

Erljioz protestanteak izanik, beraien ohiturek eskandalutik hurbil zegoen harridura ere sortzen zuten zenbaitetan. Adibidez, ama, Johanna, lasai aritzen omen zen puntua

egiten igandeetan ere, erlijio katolikoak batere lanik ez egitea agintzen zuenean, hain zuzen. Ordainetan, dena den, berak trikotaturiko jantziak behartsuen artean banatzen omen zituen. Etxeko burubideetan hemengoa ez bezalako kultura zuten. Aita, Friedrich, baratzezalea ere bazen eta fruta arbola ederrak lantzen zituen; baita sariren bat irabazi ere bere sagarrekin Euskal Jai batzuetako lehiaketan. Senarraren abildadeari jarraituta, Johannak egindako marmeladak estimu handitan edukitzen bide zituzten inguruko lagunek. Horretaz gain, erlategi bikaina ere bazuten, itxuraz. Hori guztia erosotasunez eta aurrerapenez hornituriko etxean: zaldi bikainek tiratutako kotxeak, Legazpiko aurreneko bizikleta...

Ongizate-maila hori, ordea, jaioterriko gorabeheren baitan zegoen neurri handian. Lehen Mundu Gerrak (1914-1918) izan zuen eraginik *Alemanen Etxean*. Alemaniako kontsularen adiskide izanik, hark bidalitako herritarrak izan zituzten aterpetuta Udana gainean. Eta gerra horren ondoren galdu zuen Friedrich-ek bere lanbidea. Udanako etxea utzi eta Legazpiko Olaberri auzora aldatu behar izan zuen Bähr familiak. Handik, berriz, Ormaiztegiara jo zuten 1922 aldera. Han zeudela, Friedrich-ek, ondoezik, Donostiara sendagilearengana joan eta diagnostiko lazgarriaren berri jaso zuen: hesteetako minbizia zeukan. Egia osoa jakin nahi zuela esana zion medikuari, baina gizon puska haren keme-nak behea jo zuen egia gordinaren aitzinean. Handik gutxira hil zen, 62 urterekin. Johannak, ordurako seme-alaba guztiak Alemanian ikasketak egiten zeuzkala, harako bidea hartu zuen laster, 1926an. Hor bukatu zen, beraz, Bähr-tarren bizialdia Euskal Herrian. Ez, ordea, zorionez, lotura guztiak. Gerhard-ek, distantzia gorabehera, euskalgintzari uztartuta segitu zuen, tarteka hona etorritz. Artean emateke zeuzkan bere lanik oparoenak.

Euskalgintzan

Bähr-ek euskalgintzari heldu zion lehen urteetan ezusteko tresna bat, garaian modernoa, izan zuen lagun: bizikleta. Autorik apenas, tren eta autobusak eskas, Gipuzkoan zehar, herriz herri, Euskaltzaindiaren enkarguz *Erizkizundi Irukoitza* osatzeko, eta bidena-bar aditz jokoak jasotzeko egin zituen ibilietan, ezinbesteko lagun izan zuen bizikleta.

Gerhard-ek marka guztiak hautsi zituen euskara ikasi eta euskalgintzan bete-betean sartzeari dagokionez. 1919-1921 bitartean egin zuen hori guztia. Lehen Mundu Gerra osteko Alemanian giroa baretu bitartean, etxekoek senide gazteagoen ikasketen ardua ezarri zioten Legazpin. Horrekin nahikoa ez, nonbait, eta euskaran jarri zituen begiak. Arreba Mercedesen laguntza izan zuen lehen hitz eta esapideak ikasteko. Hortik aurrera auzoan bilatzen zituen mintzaideak. Udanako gainak, Legazpi eta Oñatiren artean, bi euskalkiren arteko alderaketak egiteko parada eskaini zion, gainera. Izan ere, ordurako hizkuntzalaritzan interesatuta zegoen, eta berehala osatu zuen arlo honetako lehenbiziko lana: "Legazpiko aditzaz", hain zuzen ere, Erraimun Olabidek 1921eko otsailaren 24an, Euskaltzaindiaren osoko bilkuran irakurri zuena. Lan hori ezagutzearekin batera, Bähr euskaltzain urgazle izendatzea erabaki zuten. Hogeita bat urte bete gabe artean, Euskararen Akademiak inoiz izan duen euskaltzain urgazle gazteena bihurtu zen.

Ordurako Bähr, aurreko urtetik hasita, harremanetan zen Euskaltzaindia sortu berriarekin, Resurrección M. Azkue euskaltzainburuari euskaraz igortzen zizkion gutunen bidez. Azkuek laster jo zuen begiz gaztea eta, horrenbestez, berehala ekin zioten urteetan luzatu zen lankidetzara aberats eta zenbaitetan arazotsu samarrari. Bähr-ek zuen estima-

zioaren lekuko, hauxe: Euskaltzaindiak enkarguz eskatzen zizkiola lanak eta ordaindu. Jose Antonio Arana Martijak dioenez, Bähr izan zen Euskaltzaindiaren lehen bekaduna. Laster, eta artean hogeita sei urte bete gabe, Azkuek euskaltzain osorako aurkeztu gura izan zuen alemaniarra. Gerhard-ek, ordea, uko egin zion proposamen horri, bera baino aurreragokoak bazeudela iritzita. Azkenean, Bonifazio Etxegarai izendatu zuten.

Hogeita hemezortzi herritan ibili zen Bähr, Gipuzkoan alderik alde, Irundik Zegamara eta Berastegitik Zumaiara. Euskalkiz bizkaierakoak direnak bakarrik utzi zituen alde batera, ez ordea, nafarrerakoak, hala nola Oiartzun eta Hondarribia. Lan eskerga egin zuen. Forman erabat lan teknikoa da. Euskarazko aditzaren aberastasunak harrapatutako hizkuntzalaria izan zen, ez bairik gabe. Halaxe aitortu zuen 1941ean, Alemaniako aldizkari espezializatu batean argitaratutako *Das Baskische* izeneko euskarari buruzko txostenean.

Nolanahi ere, aditzaz gain, Bähr-ek euskararen beste arlo batzuk ere landu zituen. Eta horietan bere izaera eta zaletasunen isla aurki daiteke. Nabarmena da artikulu zenbaitetan nola lotu zituen bere jakintza zientifikoa eta hizkuntzari dagokiona, euskara ezohiko gaietara egokitu nahian. Besteak beste, eta betiere herriz herri bildutako altxorrari tiraka, landare izenei buruzko artikulua; erle, tximeleta eta abarren izenei buruzkoa; berunaren izenaren gainekoak; ostadarraren izenaren ingurukoak, eta abar, eta abar.

Bähr-tarren Euskal Herriko abentura aspaldi amaitu zen, 1926an. Gerhard 1930ean izan zen azken aldiz Euskal Herrian, baina heriotzak bakarrik bereizi zuen lurralde hone-tatik. Bere herentzia, oso-osorik ez badago ere, euskalgintzaren ondare garrantzitsua da. Urteetan ahaztu samar egon ondoren, legazpiarrek plazaratu dute altxor hori, herrikide izan zutena ezagutarazi eta aintzat hartua izan dadin.

I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1.	b	16.	d	31.	d	46.	d	61.	d
2.	b	17.	c	32.	a	47.	c	62.	d
3.	c	18.	d	33.	b	48.	b	63.	c
4.	a	19.	b	34.	b	49.	c	64.	a
5.	a	20.	c	35.	a	50.	d	65.	d
6.	a	21.	c	36.	a	51.	c	66.	b
7.	c	22.	b	37.	a	52.	a	67.	a
8.	c	23.	b	38.	a	53.	b	68.	c
9.	d	24.	b	39.	c	54.	c	69.	d
10.	b	25.	b	40.	a	55.	d	70.	c
11.	d	26.	b	41.	b	56.	d		
12.	a	27.	c	42.	b	57.	b		
13.	a	28.	b	43.	c	58.	c		
14.	b	29.	d	44.	a	59.	c		
15.	d	30.	a	45.	a	60.	d		

II. ENTZUNAREN ULERMENA

71.	d	76.	b
72.	a	77.	b
73.	c	78.	d
74.	a	79.	b
75.	d	80.	a

III. IRAKURRIAREN ULERMENA

81.	a	86.	d
82.	d	87.	b
83.	a	88.	a
84.	c	89.	a
85.	d	90.	b

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

PROBA IDATZIA

Ohar garrantzitsuak

- Azterketa honek 10 orri ditu, 2 multzotan banaturik.
- Ez jarri izenik edo sinadurarik azterketa orrietan.
- Idazteko boligrafo beltza edo urdin iluna erabili.

<i>Proba idatzia</i>		<i>Puntu Kopurua</i>	
		<i>Gehienez</i>	<i>Gutxienez</i>
Idazlan laburra	100 hitz, gutxienez, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe. 2 GAI aukeran.	10	5
Idazlan luzea	300 hitz, gutxienez. 3 GAI aukeran.	30	15
Azterketa osoa gainditzeko, GUTXIENEZ, 22 puntu atera behar dira.			

IDAZLAN LABURRA

- * Proposatzen diren bi gaien artean **bat** aukeratu behar duzu.
- * Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 100** hitzekoa izanen da (15-20 lerro).
- * Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu "Gaia", "Egitekoa" eta, batez ere, "Nahitaez eman behar duzun informazioa" izeneko atalei. **Labur eta argi** adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe.
Ez ahaztu atal honetan zuzentasun handia eskatuko zaizula.

1. idazlana

Gaia:

Galipota

Egitekoa:

Zure herriko gazte talde baten ordezkaria zara. Zarauzko alkatari gutuna idatzi behar diozu, zeuen burua eskaini eta garbiketa lanak egiteko.



Nahitaez eman behar duzun informazioa:

1. Zuen taldearen berri eman.
2. Noiz joan zaitezketen azaldu.
3. Hara joatekotan, alde zuzenetik gutxienezko zenbait baldintza ziurtatzea nahi duzue (zehaztu baldintza horiek).

2. idazlana



Gaia:

Krokodiloak agertu omen dira kanpinaren ondoko urtegian.

Egitekoa:

Kanpinaren arduraduna zarenez gero, informazio iragarkia jarri behar duzu kanpineko atean.



Nahitaez eman behar duzun informazioa:

1. Orain arte jasotako informazioaren berri eman.
2. Kanpinak hartu dituen segurtasun-neurriak jakinarazi.
3. Kanpinaren erabiltzaileek hartu behar dituzten neurriak adierazi.

IDAZLAN LUZEA

OHARRAK:

- * Proposatzen diren hiru gaien artean bat aukeratu behar duzu.
- * Idazlanak **300 hitz** eduki behar ditu, **gutxienez**.
- * Idazlana egiteko orri hauetako informazioa erabiltzea aukerakoa da. Beraz, ez zaude erabiltzera beharturik.
- * Proba honetan gaia garatzeko duzun gaitasuna erakutsi behar duzu.
- * Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.
- * Proba baloratzeko lau alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, testuaren antolaketa (koherentzia eta kohesioa), egokitasuna eta aberastasuna.

1. GAIA

TELELANA HAZTEN ARI DA URTETIK URTERA

Lan egiteko modu tradizionalak aldatzen ari dira, urteak joan urteak etorri.

Lan batzuk ordenagailuz etxetik beretik egin daitezke. Esate baterako: diseinu grafikoa, kontabilitatea, itzulpengintza...

Iker, 25 urte: "Telelanari esker, ikasketak eta lana batera egin ditzaket."



Maite, 45 urte: "Enpresako bulegoan ari nintzenean baino lan gehiago egin behar dut orain etxean. Ez dut garbi telelanak onurarik ekarri didan."

Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Zer da telelana?
- ▶ Telelanaren alde onak eta txarrak.


2. GAIA URAREN KRISIA



Nazio Batuen arabera,
pertsonako ur-kopurua
heren bat murriztuko da
datozen hogeitun urteetan.

Haxe da plangintza
Hidrologiko Nazionalaren
helburuetako bat : ura
dagoen tokitik ez
dagoenera eramatea.
Ados?

Golf zelaiak...



Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Ura nola erabili eta kudeatu da arazoa, ez ur-eskasia.
- ▶ Hurrengo urteetan populazioa eta kutsadura handitu egingo dira.
- ▶ Zer egin dezakegu egunerokoa?

3. GAIA

MUNDUKO ASMAKARIRIK ONENAK

Estatu Batuetan hauek dira asmakaririk estimatuenak: autoa, mikrouhinen labea, ordenagailua, sakelako telefonoa eta hortzetako eskuila.



Gure artean ezinbestekoa da zoru-garbigailua ("fregona"), baina Frantzian ez omen da erabiltzen.



Asier, 18 urte: "Niretzat asmakaririk onena ordenagailua izan da."



Mertxe, 50 urte:
"Garbigailurik gabe ez dakit nola moldatuko nintzatekeen!"



Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Zein da inoiz asmatu den tresnarik erabilgarriena?
- ▶ Zenbat buru, hainbat aburu.

**2004ko
lehenengo
deialdia**

**Atariko proba
Erantzunak
Proba idatzia**

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

ATARIKO PROBA

Ohar garrantzitsuak

- EZ JARRI IZENIK EDO SINADURARIK AZTERKETA ORRIETAN ETA ERANTZUN ORRIAN, plika sistema erabiliko baita.
- Arkatzez idatzi. Honela, okertzen bazara, erantzun okerra ezaba dezakezu.
- Azterketa osoko erantzunak **ERANTZUN ORRIAN** markatu behar dira. Orri-multzo hone-tako erantzunak ez dira kontuan hartuko.
- Entzunaren ulermena goizeko **11:00**etan eginen da.

<i>Proba</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Galdera kopurua</i>	<i>Gehienezko puntu kopurua</i>
Aukera anitzeko galderak	1-9	70	70
Entzunaren ulermena	10-11	10	15
Irakurriaren ulermena	12-16	10	15
Azterketa gainditzeko, gutxienez, 65 puntu atera behar dituzu.			

I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. *Badakit asteburuan Donostian izan zinela. Eta Josu?*

- a) Josu ere etorri zen.
- b) Josu ere bai etorri zen.
- c) Josu etorri zen ere.
- d) Baita Josu etorri zen ere.

2. *Lagun bati gutun bat idatzi diozu. Aukeratu agurrik egokiena.*

- a) Adeitasunez, agurtzen zaitut.
- b) Agur, tio!
- c) Hurrena arte eta ongi izan.
- d) Agur eta erdi!

3. *Filmak hasi behar zuen mementoan konturatu nintzen ez nituela betaurrekoak.*

- a) Filma hasi bezain fite konturatu nintzen.
- b) Filma hasitakoan konturatu nintzen.
- c) Filma hasterakoan konturatu nintzen.
- d) Filma hasi ahala konturatu nintzen.

4. *Ez zait batere gustatzen larunbatetan lan egitea. Eta zuri?*

- a) Niri ere, zuri antzera, ez zait gustatzen larunbatetan lan egitea.
- b) Niri gustatzen zait, larunbatetan lan egitea bezala ez dago.
- c) Niri, zuri ez bezala, gustatzen zait lan egitea larunbatetan.
- d) Ni zu bezala, ez zait batere gustatzen.

5. *Aukeratu esaldi zuzena*

- a) Zinemara joatea pena merezi du.
- b) Zinemara joateak merezi du.
- c) Zinemara joateak merezi du. Bai, noski!
- d) Zinemara joatea merezi du. Bai, alafede!

6. *Nola deitzen zaio irakaslana ikuskatzen duenari?*

- a) Ikuskegilea.
- b) Ikuskaria.
- c) Ikusikatzailea.
- d) Ikuskalaria.

7. *Nola idazten da 46.836?*

- a) Berrogei eta sei mila zortziehun eta hogeita hamasei.
- b) Berrogei eta sei mila zortzirehun eta hogeita hamasei.
- c) Berrogeita sei mila zortziehun eta hogeita hamasei.
- d) Berrogeita sei mila zortzieun eta hogeita hamasei.

8 Lanbide hauetako zeinek EZ du zerikusirik etxegintzarekin?

- a) Zurgin
- b) Itzain
- c) Iturgin
- d) Hargin

9 . Zein da data zuzena?

- a) Iruña, 2000eko urtarrilaren 2an
- b) Atarrabian, 2004ko azaroaren 5ean
- c) Uharte, 2004.eko urriak 1ean
- d) Lesakan, 2001eko abuzturen 11n

10. *Esango dizut zer egin, deus txarrik*

- a) gerta ez dakizun.
- b) gerta ez zaizun.
- c) gertatu ez zaizun.
- d) gerta ez zakizkizun.

11. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Bizi naizen laguna Durangokoa da.
- b) Mirentxuren ahizpak, medikua bera, operatu behar nau.
- c) Esaera hau sinatzen dudan nik eskerrak ematen dizkizut aldez aurretik.
- d) Topo egin dudan lagunari eman dizkiot eskumuinak zuretzat.

12. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Ezin dut etxera eraman, zeren eta oso hondatua dago.
- b) Gazteegia zela eta, ez zioten diskotekan sartzen utzi.
- c) Badakizu zergatik ez nintzen joan? –Maiterekin ez egonagatik.
- d) Dagoen kutsadura medio, ezin da ia ezer jan gustura.

13. *Besteren jakiteko bizi dira batzuk.*

- a) gauzetaz irrikitaz.
- b) gauzetaz irrikitan.
- c) gauzek irrikan.
- d) gauzez irrikaz.

14. *Gure Joxepa sasoiko emakumea da. Beste modu batez esanda:*

- a) Joxepa gaztea da oraino.
- b) Joxepa emakume edadetua zen oraindik.
- c) Sasoia sasoi, gure Joxepa beti bezalatsu zegoen.
- d) Joxepa bere sasoiko emakumea zen.

15. Unai sutan dago bere anaia gaztearekin eta hau bota dio. Aukeratu esaldi egokia.

- a) Ni ere, zure adinarekin, horrela portatzen nintzen.
- b) Ez da ezer pasatzen, badaude zu baino okerragoak direnak.
- c) Ez du merezi haserretzea, finean ume koskor bat baino ez zara.
- d) Hago geldi, bestela bertan akabatuko haut!

16. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Argazki hauek Hiru Erregeen Mahaira joan ginelakoak dira.
- b) Ederregia izanagatik, arrakasta itzela du Arkaitzek neskekin.
- c) Realak gola sartzen zuen bitartean, Athleticek bi hartzen zituen.
- d) Jakitera, ez nintzateke zinemara joanena, ederki aspertu naiz eta.

17. Askotan joaten zara Baionako lagunak bisitatzera? –Bai, jakina,

- a) noiz edo behin joaten naiz.
- b) tarteka-marteka joaten naiz.
- c) maiz joaten naiz.
- d) bakanka joaten naiz.

18. Haserre etorri da gaur Aitziber. Hau da:

- a) Kopetilun etorri da.
- b) Artega etorri da.
- c) Adoretzu etorri da.
- d) Txolin etorri da.

19. Erreparatu puntuazioari eta aukeratu esaldi zuzena.

- a) Nire auzoko lagunek, ez dakite askotan nora joan asteburuetan.
- b) Aizu Kepa, etorriko zara jolastera gurekin, etxean uzten badizute?
- c) Badakizu nor den hori?. Bai ba; hori nire lehengusua da.
- d) Umeak, beraz, ausartak badira ere, ezin dira joan eskolara bakarrik.

20. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Zara Edurneren anaia? Esan jartzeko, bai?
- b) Dago Jokin? Gauza bat esan nahi diot.
- c) Jolastuko gara Itziarrekin eta?
- d) Goaz hemendik! Aspertuta nago.

21. Negu aldean gaitzak egin ohi ditu toki ospeletan.

- a) hozkirri.
- b) egutera.
- c) laiotz.
- d) horma.

22. Erreparatu puntuazioari eta aukeratu esaldi zuzena.

- a) Sabino Mendiluzek, Kaxarna elkarteko presidenteak kargua utzi du.
- b) Kaxarna elkarteko presidente, Sabino Mendiluzek kargua utzi du.
- c) Kaxarna elkarteko presidente Sabino Mendiluzek, kargua utzi du.
- d) Sabino Mendiluzek, Kaxarna elkarteko presidenteak, kargua utzi du.

23. Horrek euliaren keinua nahikoa du haserretzeko. Bestela esanda:

- a) Euli bat ikusi orduko irainka hasten da, gordin.
- b) Euliek nazka ematen diotenez gero, ez du bakerik haiek harrapatu arte.
- c) Eulizalea izanik, sufritzen du inork euliak akabatzen dituenean.
- d) Ezin zaio deus ere esan, sentibera baita oso.

24. Edozein aldizkari heriotzaren bat gertatzen dela

- a) hartuko bagenu ikusiko genuke.
- b) hartu bagenu ikusi genukeen.
- c) hartu bagenu ikusi genuke.
- d) hartuko bagenuke ikusiko genuen.

25. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Sei bana mila euro eman zioten bakoitzari.
- b) Seme hori asko iruditzen zaio aitari.
- c) Horrek jateko baizik ez du balio: jan-txakurra da.
- d) Juantxok erosi duen auto berriak 20.000 euro kostatzen du.

26. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Non bizi zara? —Ni bizi naiz Gorriti kalean.
- b) Badakizu nor etorri zen atzo Paristik? —Mertxe Paristik etorri zen atzo.
- c) Zergatik nire diruak ez du balio?
- d) Zergatik ez didazu kontaktzen Eiderrek esan dizuna?

27. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Zu ez natzaizu batere atsegin niri.
- b) Esaten ari zatzaizkidate zuei hori ez dela horrela.
- c) Kontzertu hau Baluartetik ari gatzaizkizue eskaintzen.
- d) Gustatzen zaizkit beldurrezko filmak ikustea.

28. Hiru euroren goxokiak erosi ditut. Hau da:

- a) Hiru euroren truke eros daitezkeen goxokiak erosi ditut.
- b) Goxokiak goxoki, hiru erosi ditut.
- c) Hiru euroko goxokiak soilik erosi ditut.
- d) Goxoki bakoitzak hiru euro balio zuen.

29. *Disko berri horiek ekarri ditu.*

- a) niretzako.
- b) gutako.
- c) zuretako.
- d) zurentzat.

30. *Aukeratu esaldi zuzena.*

- a) Ura irakiten denean bota behar dizkiozu makarroiak.
- b) Buruari eragin zion ezetz esanez.
- c) Etxez aldatu dugu.
- d) Besotik heldu dut eta etxera eraman dut.

31. *Aukeratu esaldi zuzena euskara batuan.*

- a) Martxoaren hogeian itzuliko dira Piriniotatik mendizaleak.
- b) Urriaren hogeita hamaiketik hasita egunero egingen dut kirola.
- c) Uztailaren hamaikatik abuztuaren lehenera arte hartuko ditut oporrak.
- d) Abuztuaren lehengo egunetik hasita ez naute ikusiko herrian.

32. *Beste aitzakia batzuk eman beharko guk haiek sinestea nahi*

- a) dizkiguzu baduzu.
- b) gaituzu badizugu.
- c) zenizkigukezu badiguzu.
- d) dizkiguzu bazenuen.

33. *Zure herriko udalera idatzi duzu obra baimena eskatzeko. Aukeratu bukaera egokia.*

- a) Eskatutakoa onartuko duzulakoan, izan ongi.
- b) Badakit eskatutakoa onartuko duzuelako. Beraz, eskerrik asko.
- c) Besterik gabe eta adeitasunez, agurtzen naiz.
- d) Dagozkion ondorioak izateko idatzi dut eskaera hau.

34. *Ondoko hitz pareetan, zein EZ dira sinonimo?*

- a) Begiratu so egin.
- b) Ler pinu.
- c) Behiala behinola.
- d) Aurki ifrentzu.

35. *gau izartsu batean Miren eta biok elkarrekin abiatu ginen*

- a) Uztaileko etxerantz.
- b) Uztailaren etxerantz.
- c) Uztailaren etxerutz.
- d) Uztaileko etxerantza.

36. Zein dago GAIZKI?

- a) Bazeneki nor etorri zen atzo...!
- b) Ez gara egunero etortzen ahal.
- c) Horrela biziko bagina beti, ondo ginateke, Kattalin.
- d) Zure hanka-sartzeak denok jasatzen ditugu.

37. Aukera esaldi zuzena.

- a) Horma oker dagoen susmoa dut.
- b) Ikastetxean badago irakasle zahar bat musika dakienik.
- c) Noski marka hautsiko dudala!
- d) Ez dirudi bidean izotza dagoela.

38. Nola gustatzen zaizu kafesnea?

- a) Nahiago izaten dut kafe beltza hartu.
- b) Ez zait kafesnea gustatzen; kafe bakarra hartzen dut nik.
- c) Esne xorta hotzez hautsia.
- d) Niri kafea kafe-kafe gustatzen zait.

39. Hamalau ofizio, hamabost miseria. Bestela esanda:

- a) Ofizio guztiak beretako nahi dituela eta horrek ez diola zoriontasunik ematen.
- b) Mokofina dela lanean eta, horren ondorioz, miseria gorrian bizi dela.
- c) Makina bat lan mota egiten badu ere, ez duela bakar batean ere atarramendu onik ateratzen.
- d) Ofizio bat baino gehiago badu ere, ez dela bakar batean ere laketzen.

40. Zein dago GAIZKI?

- a) Aitzaki ederra jarri didazu ez etortzeko!
- b) Polita da erosi duzun atorra beltz hori.
- c) Burdinazko hesia jarri du etxe inguruan.
- d) Arbola baten azpian gelditu zen lotan.

41. grebak merkatua esnekirik gabe utzi du.

- a) Esne-ekoizleen
- b) Esnekarien
- c) Esnelarien
- d) Esne-egileen

42. Martinek bere lagun bat aurkeztu dizu: *Hau Xabi duzu, nire laguna.* Eta zuk:

- a) Banengoen, ba, ni...!
- b) Poztu egiten naiz.
- c) Bejondeizula!
- d) Urte askotarako!

43. Aukeratu esaldi egokiena.

- a) Oso bero handia egiten du eskuarki Andaluzian.
- b) Hotz txikia egiten du bulegoaren barnean.
- c) Baloi asko izaten du jokalaria, baina ez du golik sartzen.
- d) Bero asko egiten du udan eta egun askotan, gainera.

44. Hurrengo hitz multzoetako batean hitz bat lekuz kanpo dago. Zein?

- a) Harrokeria, hantura, oilarkeria, laineza
- b) Sala, ateburu, mandio, korta
- c) Ohartarazi, abisatu, gaztigatu, higuindu
- d) Uharte, olatu, apar, labar

45. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Tontoa dirudizu.
- b) Iruditzen zitzaidan niri!
- c) Zu ergela zarela dirudi.
- d) Zozoa zarela ematen dit.

46. Zein esaldi EZ da zuzena?

- a) Goizeko zortziak laurden gutxiagotatik hirurak arte egiten dut lan.
- b) Hiruretan eta zazpitan izango dituzu Donostiara joateko autobusak.
Zuk aukeratu.
- c) Ehunetarik bostek egiten du lo behar bezala. Ez gutxiagok, ez gehiagok!
- d) Hamabostetan behin joaten gara igerilekura.

47. Mikel nola Loreak hainbeste maite diote elkarri. Esan era zuzenean.

- a) Mikelek eta Loreak elkar maite dute.
- b) Mikelek eta Loreak asko elkar maite dute.
- c) Mikelek ez dio Loreari hainbeste maite, Loreak Mikeli baino.
- d) Mikelek nola Loreak elkarri adina maite diote.

48. Mendiko zaindaria atzetik zuenez, ehiztaria abiatu zen.

- a) basoz barrena.
- b) basoaren zehar.
- c) basoaren barrena.
- d) basoan zehar.

49. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Heldu den urtean salneurriak murriz litezkeela esan du gobernuak.
- b) Gogoan beharko da gero halako eztabaidatan sartzeko.
- c) Atzo arratsalde apalean zinemara joan nahi izan genuen, baina ez ginen joan.
- d) Bihar etortzen da Zaragoza futbol taldea Sadar futbol zelaira.

50. Harritzeko moduko gauza asko gertatzen dira Iruñean sanferminetan. Zein dago GAIZKI?

- a) Gauza asko eta harritzekoak gertatzen dira Iruñean sanferminetan.
- b) Gauza bakoitza gertatzen da Iruñean sanferminetan!
- c) Bakarrak dira Iruñean, sanferminetan, gertatzen diren gauzak.
- d) Makina bat gauza harrigarri gertatzen da Iruñean sanferminetan.

51. Hurrengo hitz multzoetako batean hitz bat lekuz kanpo dago. Zein?

- a) Galtzada, bidezidor, xenda.
- b) Jasan, pairatu, ihardetsi.
- c) Ilunabar, goizalde, egunsenti.
- d) Orein, azkonar, azeri.

52. Etxe horretan sar ahala diru xahutzen da ergelkerietan. Alegia:

- a) Etxe horretan sartzen den diru guztia gastatzen da.
- b) Etxe horretakoak aberatsak direnez gero, ez dute arazorik dirua nonahi gastatzeko.
- c) Etxe horretan diruz gainezka daudenez gero, ez dute bizitzeko arazorik.
- d) Etxe horretan dirua ate batetik sartu eta beste batetik ateratzen da, halabeharrez.

53. Noiz dira Arbizuko festak?

- a) Ekainaren 24an.
- b) Ekainak 24ean.
- c) Ekainaren 24ean.
- d) Ekaineko 24an.

54. Hiriaren erdira iritsi ziren txirrindulariak tropelean. Esan era egokienean.

- a) Hiriko erdira iritsi ziren txirrindulariak tropelean.
- b) Hiriaren erdialdera iritsi ziren txirrindulariak tropelean.
- c) Erdi-hirira iritsi ziren txirrindulariak tropelean.
- d) Erdiko hirira iritsi ziren txirrindulariak tropelean.

55. Oraindik orain argitaratu den liburu batean esaten da gurasoek ez dietela umeei errietarik egiten. Bestela esanda:

- a) Ez aspaldi argitaratu den liburu batean honako hau adierazten da: gurasoek ez diete umeei errietarik egiten.
- b) Aurki argitaratuko den liburu batean esaten da gurasoek ez dietela umeei errietarik egiten.
- c) Oraindik ere gurasoek umeei errieta egiten diete.
- d) Berriki argia ikusi duen liburu batean aditzera ematen da gurasoek umeei errieta egiten dietela, maiz ez bada ere.

56. Zein dago GAIZKI?

- a) Hori gezurra da, askok egia dela uste dute baina.
- b) Ez dut erosten nahi ez dudalako, dirurik ez dudalako baizik.
- c) Hori gezurra da, baina askok egia dela uste dute.
- d) Ez dut horrelakorik jaten, etxean ezpada.

57. Noiz ateratzen da Bartzelonarako tren?

- a) 08:30ean.
- b) 23:20tan.
- c) 08:30etan.
- d) 14:02tan.

58. Zer eguraldi goxoa! Haizea dabil gaur goizean.

- a) mara-mara.
- b) Kiski-kaska.
- c) fir-fir.
- d) ziri-ziri.

59. Zein dago GAIZKI?

- a) Bai ongi bizi direla ugazabak!
- b) Zein polita da itsasoa haserre ikustea!
- c) Aitari erantzutea ere, lotsagabea halakoa!
- d) Nori eta niri esan behar!

60. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Txikitan herrian bizi nintzen.
- b) Arazo hura sortu zenean, aurre egin behar nion.
- c) Etorriko zarenean, emango dizut oparia.
- d) Hurrengoan lortuko dut, bestela amore emango behar dut.

61. Etorkin familia hori pobre baino pobreagoa da. Hau da:

- a) Ilargia labean daukate.
- b) Ur gaineko bitsetan bizi dira.
- c) Esne mamitan bizi dira.
- d) Zorriak hazten bizi dira.

62. Trafikoa gorabehera, garaiz iritsi gara. Bestela esanda:

- a) Trafikoa batzuetan handia, besteetan eskasa zen, eta ongi iritsi gara.
- b) Bazen trafikoa, baina, hala ere, garaiz iritsi gara.
- c) Ez zegoen trafiko handirik eta garaiz iritsi gara.
- d) Autoak gora eta behera zebiltzan erretentziorik gabe eta garaiz iritsi gara.

63. Pasatuko zenuke bakar-bakarrik gau bat hilerrian? Ez izan dudarik, baina

- a) orpoz ipurdi egongo nintzateke.
- b) bizian eta hilean.
- c) odol bizian gau osoan.
- d) beldurrak airean egongo nintzateke.

64. Agurtzanek eta Liernik, aspaldiko partez, ikusi atzo zineman.

- a) elkar zuten.
- b) elkarri zioten.
- c) elkarri zuten.
- d) elkar ziren.

65. 3/8 niretzat; gainerakoa, zuentzat. Hau da:

- a) Hiru zortziren niretzat; gainerakoa, zuentzat.
- b) Hiru zortziko niretzat; gainerakoa, zuentzat.
- c) Zortziaren herena niretzat; gainerakoa, zuentzat.
- d) Zortziren hiru niretzat; gainerakoa, zuentzat.

66. Aukeratu hitz sorta zuzena.

- a) Bide-hotela, etxe-orratza, aterpetxea, erretena.
- b) Hirugiharra, birika, txingarra, urdaia.
- c) Orlegia, urrina, horia, gorria.
- d) Handia, gaitza, artega, erraldoia.

67., ikasiena behinik behin bada. Bai alafede!

- a) Gelako mutikorik indartsuen ez bada ere.
- b) Gelako mutikorik indartsuena izan ezean.
- c) Gelako mutikorik indartsuena ez bada.
- d) Gelako mutikorik indartsuena ez bada ere.

68. Nola deitzen zaio, beste modu batean, mendi txiki bati?

- a) Opil.
- b) Muino.
- c) Aldats.
- d) Sastraka.

69. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Zu ezik, gainerako adiskide guztiak herri-bazkarian zeuden.
- b) Bihar mendira joatekotan, gaur goiz oheratu beharko dugu.
- c) Inori eman ez gero, zuri emanen nizuke. Zalantzarik ez dut.
- d) Mendira joanez gero, prestatu bezperatik ogitartekoak.

70. Karmen joan da Zugarramurdira.

- a) irakasletzat.
- b) irakaslea.
- c) irakasle bezala.
- d) irakasle.

II. ENTZUNAREN ULERMENA

Entzungaiak liburuari erantsirik datozen CDan daude eta haien transkripzioak liburuaren bukaerako eranskinean.

71. Eugin orain borda gutxiago dago...

- a) hango jendeak Urepel aldera joateko joera izan duelako.
- b) Urbano Egozkue jaio zenean baino.
- c) jendea herri ondoko etxe berrietan bizitzera joan zelako.
- d) lehengo bordei baserri deitzen zaielako.

72. Urbano Egozkue bertsolari egin zen...

- a) eta Gipuzkoan, Goizuetan eta Baztanen bertsotan aritu zen.
- b) Txirritari bertso paperak erosita.
- c) eta tabernako giroan bertsotan aritzen zen.
- d) nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan ibili ondoren.

73. 1960ko txapelketa...

- a) hari esker euskara pixka bat suspertu zen.
- b) hartan Joxe Anjel Linzoin eta Frantzisko Mari aritu ziren.
- c) hartara bi bertsolari aurkeztu ziren, biak eugiarrak.
- d) egiteko ekimena Diputazioan sortu zen.

74. Parrandazalea ere bazen; izan ere,...

- a) ordu txikietan joaten zen etxera.
- b) feria guztietara joaten zen.
- c) Iruñeko ferietara maiz joaten zen.
- d) etxera joaten azkena izaten zen.

75. Behin Iruñeko sanferminetan...

- a) Eugitik Iruñera itzuliko zen taxia prezio berean izan balitz.
- b) Eugira egun batzuk geroago itzuli zen bere kuadrilla baino.
- c) autobusez herrira itzuli eta taxi bat hartu zuen Iruñera itzultzeko.
- d) Eugira itzuli eta taxi berean sanferminetara bueltatzeko prest zen.

76. Atapuercakoa gizakia zen...

- a) adimen sinbolikoa zuela frogatu da eta.
- b) New Yorkeko erakusketaren izenburuaren kontrara.
- c) uste zen bezala, tximino itxura betea zuen arren.
- d) heriotzaren kontzientzia falta zuen arren.

77. Zer dio zientziari buruz?

- a) Zientziak ere baditu bere dogmak.
- b) Zientzia ez da erlijioa baino fidagarriagoa.
- c) Zerbaiten alde egiteko, zientziaren autoritatea bilatzen da.
- d) Zientziak ez du erlijioaren funtzioa betetzen.

78. Hizlariaren hitzetan, fede itsua diogu zientziari, baina...

- a) zientzia mitoari eta erlijioari begira dago.
- b) gizakiaren klonazioak Atapuercara bueltatzen gaitu.
- c) klonazioak ez du oraindik hilezkortasuna lortu.
- d) oraindik ez da sendabiderik aurkitu hainbat gaixotasunetarako.

79. Zientzien zehaztasunari eta fidagarritasunari buruz zera dio:

- a) Matematika da zientzia zehatz eta hutsezin bakarra.
- b) Zientzia politikoak eta ekonomikoak ez dira benetako zientziak.
- c) Politikariak eta ekonomistak zientziaren autoritateaz baliatzen dira jendeari iruzur egiteko.
- d) Politikariek eta ekonomistek beren kalkuluak erratu ezinak direla sinetsarazi nahi digute.

80. Hizlariak meteorologoak maiteago ditu politikariak eta ekonomistak baino.

Zergatik?

- a) Meteorologoak direlako Atapuercatik hona aurrerapen izugarria egin duten baka-rrak.
- b) Meteorologoek, oro har, beren burua jatortzat eta zentzuduntzat izaten dutelako.
- c) Eguraldi onaren meritua sekula ez dutelako beren buruarentzat aldarrikatzen.
- d) Egiten dituzten iragarpenak argiak eta maila apalekoak direlako.

III. IRAKURRIAREN ULERMENA (I) GALDERAK

81. Idazketaren hedapena.

- a) Ziria sartzeko edota gezurrak esateko ere baliatu eta hedatu du idazketa jende ezjakinak.
- b) Onuragarria izan da idazketaren hedapena, pozik bizitzeko aukera ezin hobea eskaini baitio gizaki orori.
- c) Iluna izan da idazketaren hedapena eta gaur egun, gainera, inoiz baino susmo txar gehiago ari da sortzen.
- d) Idazketaren hedapena dela-eta, bada susmo txarrik ere, argi baitago idazketa ez dela beti asmo onez baliatu.

82. Sokratesen istorioa.

- a) Thoth jainkoak ongi aski azaldu zuen idazketarekin dugun jarrera bikoitza.
- b) Thoth jainkoak oroimenerako asmatu zuen edabearen osagaiak gogoratzeko, idatziz jarri behar ziren.
- c) Erregearen irudiko, idazketaren bidez ez zen egiazko jakinduriarik eskaintzen ahal.
- d) Egiptoko erregeak Thoth jainkoarengana jo zuen ikasleei idazketa irakatsi zezaien eskatzeko.

83. Babilonian basaltz eginiko kodeak eta 1990ean Iraken aurkako gerran erabilitako lelo eta iragarkiak.

- a) Legea betetzen bazen, gizaldi haietako jende guztiaren onurarako izango zela zioten 4000. urteko mezuek.
- b) Denboran milaka urteko aldea egonagatik, bai batean eta bai bestean emandako mezuak berdintsuak dira.
- c) Lege eta iragarki hauek guztiak mundu osoko errege ahaltsu izendatzen dute Hamurabi.
- d) Buruzagien propaganda idazkera-sistema batean baino gehiagotan egin bazen ere, legea betetzen zuen jendearen onerako izan zen.

84. Hainbat idazkeraren helburuak.

- a) Karnaken eta Bogazkoyen itun beraren berri ematen den arren, bi mezuak ez datoz bat.
- b) Hiru idazkera mota –idazkera kuneiformea, hieroglifoak eta glifoak– erabili ziren hiru helburutarako.
- c) Ramses II.ak hititen aurka egindako guduan hititek irabazi zuten, Bogazkoyen besterik azaltzen bada ere.
- d) Tamalez Kadeshko guduren gaineko informazioa tenplu baten horma batean baizik ez zen irudikatu.

85. Etruskoak eta hizkuntza.

- a) Etruskoek, milaka pasarteren bidez, Europa osoan hedatu zuten alfabeto grekoa.
- b) Etruskoen hileta-inkripzio gehienak alfabeto grekoan idatzi ziren.
- c) Ezer gutxi dakigu etruskoen hizkuntzaren inguruan.
- d) Etruskoek baino lehenago, erromatarrek jaso zuten alfabetoa greziarrendandik.

86. Geroa aurrez ikustea.

- a) Txinako Shang dinastiakoek dortoka-maskorretan eta idi-hezurretan idazten zituzten iragarkiak.
- b) Maiek asmatutako egutegi sistema sofistikatu ia-ia lurra bera bezain zaharra zela ikusi da.
- c) Etorkizunaren nondik norakoek ardura bizia sortu izan dute antzinako gizarte orotan.
- d) Iragarpenak jasotzeko, maiek sortu zituzten liburuek egurrezko azala eta jaguar-laruzko orriak zituzten.

87. Europako eta Amerikako alfabetatu arruntek...

- a) Hitz osoak ematen dituzte aditzera berrogeita hamabi logograma erabiliz.
- b) Berrogeita hamabi soinu ez ezik, bestelako marka batzuk ere bereizten eta izkiriartzen dituzte.
- c) Berrogeita hamabi sinbolorekin nahikoa dute behar bezala idazteko.
- d) Idazteko erabiltzen dituzten berrogeita hamabi karaktereei logograma izena ematen diete.

88. Japonian.

- a) 50eko hamarkadaren erdialdean, gaztetxoek suizidio kopuruak gora egin zuen eta, itxuraz, hezkuntza hedatzearekin izan zuen zerikusia.
- b) 50eko hamarkadako gerran heriotza ugari gertatu izanak inoiz baino argiago utzi zuen gaztetxoak hezi beharra.
- c) 50eko hamarkadan gaztetxoek artean sekula baino eraiketa gehiago gertatu zirenez, heziketa ahalik eta gehien hedatu beharra ikusi zen.
- d) 50eko hamarkadaren hastapenetan, hezkuntza gazte guztiengana zabaldu nahi zela-eta, ume japoniarrek mila karaktere ikasi behar izan zituzten japonieraz idazteko.

89. Alfabetatze maila.

- a) Mendebaldean dagoen alfabetatze maila Japoniakoa baino handiagoa da, uste bezain handia izan ez arren.
- b) Esaten duten adinakoa ez bada ere, handia da alfabetatze maila Japonian.
- c) Besterik esan izan bada ere, Japoniako alfabetatze maila ez da Mendebaldekoa bezainbestekoa.
- d) Mendebaldean milioika lagunek ez dute ikasi ez irakurtzen, ez idazten. Japonian are handiagoa da alfabetatugabeen kopurua.

90. 60ko hamarkadaren erdialdean, Txinan.

- a) Kultura Iraultzaren bultzatzaileak milioika herritar idazkera erromatarraren bitartez alfabetatzearen aurka azaldu ziren.
- b) Mao Zedong ez ezik, kontserbadoreak ere Kultura Iraultza egitearen aldekoak izan arren, Zaindari Gorriek erromatar idazkerako ereduak desagerrarazi egin zituzten.
- c) Kultura Iraultzaren gidari Mao Zedong prest zegoen karaktere txinatar oro ezabatu eta herritarrak erromatar idazkeran alfabetarazteko.
- d) Kontserbadoreen oposizioa handia izan ez bazen ere, Zaindari Gorrien jokabideak ezinezko egin zuen Kultura Iraultza.

III. IRAKURRIAREN ULERMENA (II) TESTUA

IDAZKERA ZENBAIT ZIBILIZAZIOTAN

Gaiak Argitaldaria. 2000. Gaiak bilduma. 46. zenbakia (moldataua)

Gaur egun uste da idazketa eta alfabetatzea baliabide onuragarriak direla, oro har. Ziur aski, irakurtzen eta idazten dakienak alfabetatugabeak baino aukera handiagoak izango ditu pozik bizitzeko. Alabaina, onartu beharra dago idazketaren hedapenaren inguruan alderdi ilunak ere izan direla. Eta susmo txar horiek, gainera, gaur egunera arte iritsi zaizkigu, garai batean bezain nabarmen ez bada ere. Besteak beste, idazketa erabili izan da gezurrak nahiz egiak esateko, jendea engainatu eta zapaltzeko, edo jendea hezteko edo ezjakinago egiteko.

Sokratesek ederki aski azaldu zuen Egiptoko Thoth jainkoari buruzko istorioan idazketarekin dugun joera bitarikoa. Jainko hark asmatu omen zuen idazketa. Behin batean erregearengana jo omen zuen bere asmaketa irakasgarri hura bedeinka zezan. Erregeak zera esan bide zion Thothi: *“Zuk, letren aita zaren horrek, zure zaletasun horren eraginez, berez duten botereaz bestelakoa eman diezu letrei... Asmatu duzun edabe hori ez da oroi-menaren edabea, gogoratzearena baizik. Zure ikasleei jakituriaren itxura eskaintzen diezu; ez, ordea, benetako jakituria, gauza asko heziketarik gabe irakurriko baitituzte. Eta, hala, gauza asko dakitela irudituko zaie, gauza gehienei buruz ezjakin hutsak izan arren”.*

Buruzagi politikoez propagandarako erabili izan dute idazkera beti. Babiloniako Hamurabiren basaltoz egindako legearen kodeen eta Iraken aurkako gerran 1990ean erabilitako leloen eta iragarkien artean ia 4.000 urteko aldea dago. Horrek eta idazkera-sistema guztiz desberdinek bereizten dituzte, nahiz eta bietan erabilitako mezua antzekoa izan. Hamurabik bere buruari “errege ahaltsu zeritzon, Babiloniako, Sumeriako eta Akadiako errege, Amurruren herri osoaren errege, eta Sumeriako eta Akadiako errege, hots, munduaren lau laurdenen errege”. Horretaz gainera, adierazi zuen bere legeetan agindutakoa betez gero, bere mendeko jende guztiaren onerako izango zela.

Zoritzarrez, beste idazkera batzuk ere –Babiloniako eta Asiriako jauregi eta tenpluetako hormetan landutako idazkera kuneiformea, Egiptoko hieroglifoak, Erdialdeko Amerikako maien glifoak– antzeko helburuetarako baliatu ziren: jende xumeari agintzen zuena nor zen oroitarazteko, buruzagi haien garaipenen handitasuna nabarmentzeko, eta agintari haien aginpidea zeru-goietan zein sendo oinarrituta zegoen erakusteko... Karnakeko (Egipto) tenplu baten kanpoaldeko horma batean Kadeshko guduaren irudiak ikusten dira. Gudu hura Ramses II.ak egin zuen hititen aurka K.a. 1285. urtearen inguruan. Hieroglifo horietan faraoiaren eta hititen erregearen arteko itun baten berri ematen da eta egiptoarren garaipen handia ospatzen. Baina hititen hiriburuan, Bogazkoyen, itun horren beraren beste bertsio bat aurkitu zen; eta bertan hititak agertzen dira garaille!

Hilezkor izan nahiak berebiziko garrantzia izan du beti idazleentzat. Etruskoek mila-pasarte idatzi zituzten, hileta-inskripzioak gehienak ere. Inskripzio horietan hildakoaren izena, heriotzaren data eta lekua irakur ditzakegu, alfabeto grekoaren egokitzapen batean idatzita baitaude. Baina, horixe da herri garrantzitsu haren hizkuntza misterio-tsuari buruz dakigun ia gauza bakarra. Etruskoek Greziatik hartu zuten alfabetoa eta

erromatarren esku utzi zuten ondoren. Horiek, azkenik, Europa osoan barrena zabaldu zuten. Hala ere, esan beharra dago hilarriak soilik irakurriz euskara ikasten saiatzea bezain zaila dela hizkuntza etruskoa deszifratzen ahalegintzea.

Geroa aurrez ikustea zen idazketaren beste helburuetako bat. Antzinako gizarte guztietan kezka handia zuten geroak ekarriko zienaren inguruan. Eta kezka horiek kodetzeko aukera bikaina eman zien idazketak. Iragarpenak jasotzeko, kolorez margotu eta jaguarren larrutan bildutako enbor-azalez egindako liburuak sortu zituzten maiek. Iragarpen haietarako, idatzizko egutegi sistema izugarri sofistikatua erabiltzen zuten, denboran bost mila milioi urte atzera iristen zena; gaur egungo kalkuluen arabera, lurrak berak duen adina baino atzerago ere bai, beraz. Txinan, bestalde, Brontze Aroko Shang dinastiaren garaian, etorkizunari buruzko galderak dortoken maskorretan eta idien hezurretan idazten ziren, "orakulu-hezur" direlakoetan, hain zuzen ere. Burdina gori batez berotzen zituzten hezurak, pitzatu arte. Ondoren, pitzaduraren formaren esanahia asmatu eta galderari zegokion erantzuna inskribatzen zen bertan. Gerora, benetan gertaturikoa ere inskribatzen zuten zenbaitetan.

Ekialdea eta mendebaldea

Europako eta Amerikako herritar alfabetatu arruntek badakite bereizten eta idazten alfabetoko 52 soinu, beste zenbait sinbolo (zenbakiak, puntuazio-markak, etab.) eta "hitz osoak" adierazten dituzten sinbolo semantikoak (+, &...). Aipaturiko sinbolo semantiko horiei *logograma* izena ematen zaie batzuetan.

Japoniarrek, berriz, 2.000 sinbolo bereizteko eta idazteko gai izan behar dute. Oso ikasiak direnek, ordea, 5.000 sinbolo edo gehiago bereizi behar dituzte. Europako eta Amerikako egoerak, batetik, eta Japoniakoak, bestetik, guztiz desberdinak diruditen arren, uste baino parekotasun handiagoa dago bien artean.

Oso zaila da idazkera txinatarra eta japoniarra ikastea. Japonian, 50eko hamarkadaren erdialdean, inoiz baino gaztetxo gehiagok egin zuten beren buruaz beste, eta buruhilketen gorakada honek lotura izan omen zuen gerra ondoko hezkuntza masiboaren hedapenarekin, haurrek zuzen eta artez ikasi behar izan baitzituzten japoniera idazteko erabiltzen diren milaka karaktereak. Esaten da txinatarrek eta japoniarrek mendebaldekoek baino urte batzuk gehiago behar izaten dituztela irakurtzen ongi ikasteko.

Halere, milioika mendebaldarrek ezin izan dute irakurtzen eta idazten ikasi. Japonian Mendebaldean baino alfabetatze maila handiagoa dago –nahiz eta diotena bezain handia izan ez–. Idazkera japoniarra konplexua bada ere, horrek ez dio galarazi Japoniari botere ekonomiko handia bihurtzea. Konplexutasun horrek ez du ekarri karaktere txinatarrek utzi eta haien ordez zeinu silabikoetan oinarritutako zeinu-sorta murriztagoa baliatzea, teorian egin bazitekeen ere.

60ko hamarkadaren erdialdean Mao Zedongek Kultura Iraultza gidatu zuen Txinan. Milioika txinatar alfabetatugabeak erromatar idazkeran alfabetatzearen, karaktere txinatar guztiak ezabatuko zituela esaten zuen. Baina kontserbadoreek aurka egin zioten, gogor asko gainera, eta Kultura Iraultzan zehar, Zaindari Gorriek erromatar idazkerako ereduak suntsitu zituzten.

ERANTZUNAK

I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. a	16. d	31. c	46. d	61. d
2. c	17. c	32. a	47. a	62. b
3. c	18. a	33. a	48. d	63. d
4. c	19. d	34. d	49. c	64. a
5. d	20. c	35. a	50. b	65. a
6. b	21. d	36. d	51. b	66. b
7. c	22. d	37. a	52. a	67. d
8. b	23. d	38. c	53. a	68. b
9. b	24. a	39. c	54. b	69. b
10. a	25. c	40. a	55. a	70. d
11. b	26. d	41. a	56. d	
12. b	27. c	42. d	57. a	
13. d	28. a	43. a	58. c	
14. a	29. c	44. c	59. b	
15. d	30. b	45. a	60. a	

II. ENTZUNAREN ULERMENA

71. b	76. a
72. c	77. c
73. d	78. a
74. d	79. d
75. d	80. c

III. IRAKURRIAREN ULERMENA

81. d	86. c
82. c	87. b
83. b	88. a
84. a	89. b
85. c	90. c

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

PROBA IDATZIA

Ohar garrantzitsuak

- Azterketa honek 10 orri ditu, 2 multzotan banaturik.
- Ez jarri izenik edo sinadurarik azterketa orrietan.
- Idazteko boligrafo beltza edo urdin iluna erabili.

<i>Proba idatzia</i>		<i>Puntu Kopurua</i>	
		<i>Gehienez</i>	<i>Gutxienez</i>
Idazlan laburra	100 hitz, gutxienez, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe. 2 GAI aukeran.	10	5
Idazlan luzea	300 hitz, gutxienez. 3 GAI aukeran.	30	15
Azterketa osoa gainditzeko, GUTXIENEZ, 22 puntu atera behar dira.			

IDAZLAN LABURRA

- * Proposatzen diren bi gaien artean **bat** aukeratu behar duzu.
- * Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 100** hitzekoa izanen da (15-20 lerro).
- * Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu "Gaia", "Egitekoa" eta, batez ere, "Nahitaez eman behar duzun informazioa" izeneko atalei. **Labur eta argi** adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe. Ez ahaztu atal honetan zuzentasun handia eskatuko zaizula.

1. idazlana



Gaia:

Gazte kuadrilla batek auzoan arazoak sortzen ditu motoekin.

Egitekoa:

Auzokidea zara eta alkateari eskutitza idatzi nahi diozu gertaerak salatzeke.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

1. Gazte kuadrillak eragindako kalteak.
2. Salatutakoak non eta noiz gertatu diren.
3. Haserrea adierazi eta soluzioa eskatu.

2. idazlana

Gaia:

Auzuneko euskaldunei umeak zaintzeko zerbitzua eskaini nahi diezu.

Egitekoa:

Auzuneko postontzietan sartzeko eskaintza orria egin behar duzu gurasoentzat.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

1. Zeure buruaren aurkezpena.
2. Zer eskaintzen duzun: ordutegia, prezioa...
3. Ikasketak eta eskarmentua.



IDAZLAN LUZEA

OHARRAK:

- * Proposatzen diren hiru gaien artean bat aukeratu behar duzu.
- * Idazlanak **300 hitz** eduki behar ditu, **gutxienez**.
- * Idazlana egiteko orri hauetako informazioa erabiltzea aukerakoa da. Beraz, ez zaude erabiltzera beharturik.
- * Proba honetan gaia garatzeko duzun gaitasuna erakutsi behar duzu.
- * Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.
- * Proba baloratzeko lau alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, testuaren antolaketa (koherentzia eta kohesioa), egokitasuna eta aberastasuna.

1. GAIA OPARIZALE AL ZARA?



Lore-saltzaileen iritziz,
gero eta normalagoa da bikotekide ez denari lo-
reak oparitzea.
Baita gizonezkoei ere.

Amaren egunean, aitaren egunean,
maiteminduen egunean...,
nahitaez egin behar dira opariak?

Ondoko puntu hauetaz balia zaitetzke:

- ▶ Zenbait datatan, besteak beste urtebetetzeetan eta Gabonetan, konpromisoz erosten ditugu opariak.
- ▶ Hala ere, bada opariak egiten eta jasotzen izugarri gozatzen duenik.
- ▶ Zergatik egiten zaie umeei hainbeste opari?

2. GAIA ANALFABETO ESKOLATUAK

Gaur egun bi analfabeto mota ditugu: alde batetik, irakurtzen eta idazten ez dakitenak (800 milioi pertsona inguru munduan, eta horien % 15 herrialde industrializatuetan); beste aldetik, teknologia berrietan trebatu ez direnak.



Argazki kamera, sakelako telefonoa eta ordenagailua dira, besteak beste, analfabetoen eta eskolatuaren arteko aldea handitzen dutenak.

Ondoko puntu hauetaz balia zaitetzke:

- ▶ XXI. mendean teknologia berriak erabiltzen ez dakiena, *ziberanalfabetoa* alegia, irakurtzen ez dakiena bezain galduta dago.
- ▶ Guraso askok ikusten dute beranduegi iritsi direla informatikaren mundura eta horrek seme-alabengandik urrundu egiten dituela.
- ▶ Bangladeshen ordenagailu bat erosteko zortzi urtez irabazitako soldata behar da. Estatubatuar batek, berriz, hilabeteko soldata nahikoa du horretarako.

3. GAIA ETXEKO ANIMALIAK

Iratxe Medrano,

Guau klinikako arduradun eta albaitaria:

"Gure katuei eta txakurrei ez zaie komeni loditzea, eta gutuziak neurrian eman behar zaizkie".



Agatha Ruiz de la Prada diseinatzaileak katuendako eta txakurrendako etxetxoak, lumatxak, kuxinak, zirak eta bestelakoak jarri berri ditu merkatuan.



Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Ohiko pentsuaz gainera, katuendako eta txakurrendako bonboiak, gurin usaina duten hezurak eta menda zaporeko pentsua ere eros daitezke.
- ▶ Zientzialari askoren ustez, maskotak edukitzea da gaixotasunei aurre egiteko modurik onenetakoa: autistei laguntzeko, bihotzeko arazoak dituztenak lasaitzeko, HIESa dutenen ondoan egoteko...
- ▶ Atariko bizilagun guztiak ez dira animaliazaleak izaten eta batzuetan haserreak ere sortzen dira: higiena dela, zaunkak direla...

**2004ko
bigarren
deialdia**

**Atariko proba
Erantzunak
Proba idatzia**

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

ATARIKO PROBA

Ohar garrantzitsuak

- EZ JARRI IZENIK EDO SINADURARIK AZTERKETA ORRIETAN ETA ERANTZUN ORRIAN, plika sistema erabiliko baita.
- Arkatzez idatzi. Honela, okertzen bazara, erantzun okerra ezaba dezakezu.
- Azterketa osoko erantzunak **ERANTZUN ORRIAN** markatu behar dira. Orri-multzo hone-tako erantzunak ez dira kontuan hartuko.
- Entzunaren ulermena goizeko **11:00**etan eginen da.

<i>Proba</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Galdera kopurua</i>	<i>Gehienezko puntu kopurua</i>
Aukera anitzeko galderak	1-9	70	70
Entzunaren ulermena	1011	10	15
Irakurriaren ulermena	12-16	10	15
Azterketa gainditzeko, gutxienez, 65 puntu atera behar dituzu.			

I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. **Zergatik ez duzu egin nik agindutakoa, Kepa? Erantzun galderari:**

- a) Ez dudalako nahi izan ez dut egin.
- b) Nahi izan ez dudalako ez dut egin.
- c) Ez dut egin ez dudalako nahi izan.
- d) Ez dudalako ez dut egin nahi izan.

2. **Ezin izan dut lorik egin; gau osoa batean eman duzu.**

- a) zurrunga.
- b) zurrusta.
- c) zurrupa.
- d) zuztar.

3. **Puntuazioari dagokionez, zein esaldi dago ongi?**

- a) Hamaiketakoa, bukatutakoan jokoak izanen dira haurrentzat.
- b) Datorren ostegunean hilak 17, hartuko ditugu oporrak.
- c) Liburutegiko arduradunek, erabilera ez egokia sumatu dute.
- d) Etxera bueltatutakoan konturatu ginen goizeko hirurak zirela.

4. **Lan gutxi egin du Ferminen bere bizian. Bestela esanda:**

- a) Ez du kolpe zorririk jo bere bizian.
- b) Ez zaio, ez, hernia handirik atera.
- c) Gosea baino faltsuagoa izan da beti.
- d) Ez du ezta izerdi tantarik ere atera bere bizian.

5. **Maiz aski ekarri ohi ditu, baina atzo ez onddorik Xabierrek menditik.**

- a) zekartzan.
- b) zituen ekarri.
- c) zekarren.
- d) zituen ekartzen.

6. **Aukeratu esaldi zuzena.**

- a) Zu eta zure lagunekin joango naiz afaltzera.
- b) Irakasle, ikasle eta gurasoei bidali diegu gutuna.
- c) Gurasoak eta gazteen arteko harremanak hobetzen ari dira.
- d) Burlata, Goizueta eta Leitzak pilotari onak atera dituzte.

7. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Bilboko toki ezagunenean ibiltzen naiz poteatzen: Zazpi Kaletan.
- b) Hainbat pertsoneri ez zaizkie gustatzen halako lekuak.
- c) Karlosi ere ez zaizkio gustatzen hainbeste jendea dabilen tokiak.
- d) Konforme, baina zenbat toki daude hori baino animatuagoak?

8. Zein esaldi da zuzena euskara batuan?

- a) Munduko gauzik ederrena, jan eta lo egitea. Bai, alafede!
- b) Urrezko katearik handiena erosi diot nire lagunari.
- c) Hartu duzu sakelako telefonoa?
- d) Iraken heriotz ugari gertatzen ari da egun.

9. Zein esaldi da zuzena?

- a) Iaz Real Madril lehengoa gelditu zen Espainiako futbol ligan.
- b) Hainbat mutilei kontatu diezu gezur bera, neska!
- c) Menderen mende hala izan omen da; hala diote behinik behin adituek.
- d) Hauen guztien artean, zein da animalirik ederrena?

10. Trena gustatzen zait eta baita autoa ere. Zeinek EZ du ideia bera adierazten?

- a) Bai trena, bai autoa, biak ditut gustuko.
- b) Trena izan ezik, autoa ere gustuko dut.
- c) Trena ez ezik, autoa ere gustuko dut.
- d) Nola trena hala autoa, biak ditut gustuko.

11. Esanahiari dagokionez, ondoko hitzetatik batek EZ du zerikusirik besteekin. Zeinek?

- a) Tarrapatan.
- b) Itsumustuan.
- c) Ezkutaketan.
- d) Arrapaladan.

12. Tomax ostatutik bota du nagusiak edaririk ordaintzen ez duelako. Hau da:

- a) Ez duenez gero ordaintzen bota du nagusiak Tomax ostatutik.
- b) Nagusiak Tomax ostatutik bota du zergatik ez baitu edaririk ordaintzen.
- c) Nagusiak Tomax ostatutik bota du ezen edaririk ez du ordaintzen.
- d) Ordaintzen ez duenez gero bota du nagusiak Tomax ostatutik.

13. Izaskunek amaren antz izugarria du. Bestela esanda:

- a) Ama bete-betea da.
- b) Ama peto-petoa da.
- c) Amaren azala du.
- d) Amaren odolaldia du.

14. Ezagutzen duzu Harkaitz Cano idazlea?

- a) Ez da erraza hori ezagutzen.
- b) Sarri saiatu naiz ezagutzeko.
- c) Lotsa ematen dit horrelako jendea ezagutzea.
- d) Ez nau inork animatu ezagutzea.

15. Egiten ahal dizut galdera bat? Aukeratu erantzun egokiena.

- a) Noski baietz, egin, egin!
- b) Hala-moduz bada...
- c) Bai horixe!
- d) Esan gabe doa, bota!

16. Gaur ezin dut, baina bihar

- a) begiratuko zaitut haurra.
- b) lagunduko dizut etxeraino.
- c) gonbidatuko dizut afaltzera jatetxe eder horretan.
- d) itxarongo zaitut elkarrekin joateko.

17. Aukeratu esaldi egokia.

- a) Erdi finalak jokatuko dituzte laster Europako Ligan.
- b) Ni halako hiru da Susana.
- c) Atzo goizean izan gara dentistarenean Senperen.
- d) Aurrekolan dago gure alabarik gazteena.

18. Nolako egurra, halako ezpala. Bestela esanda:

- a) Egurra ona izan arren sutarako, ezpalak ez duela su handirik egiten.
- b) Aurrekoaren jarrera eta portaera horrelako, ondokoarena ere halako.
- c) Egurra eta ezpala oso onak direla sua pizteko.
- d) Aurrekoaren jarrerak ez duela nahitaez ondokoarena baldintzatu behar.

19. Entzun duzu utzi nizun diskoa?

- a) Bai, entzun dut.
- b) Bai, diskoa entzun dut.
- c) Bai, entzun egin dut.
- d) Bai, entzun dut gaur.

20. Abuztuaren 15ean,, hasiko dira Leringo jaiak.

- a) asteazkenez.
- b) asteazkenen.
- c) asteazkenarekin.
- d) asteazkenak.

21. Aukeratu esaldi egokia.

- a) Ez du beste egiterik: bere fisikoaz arduratu.
- b) Gaztigatu mendi gailurrera iritsi bezain laster, mesedez.
- c) Horrek ez du inoiz ordu fijosik jaikitzen.
- d) Zenbat hotz igaro duzun mendian, gizagaixoa!

22. Ortografiari dagokionez, zein esalditan dago akatsen bat?

- a) Parisera maiatzaren 8an joanen gara.
- b) Aste santuan opor politik pasatu genituen.
- c) Manifestazio ikaragarria izan zen Maiatzaren Lehenean.
- d) Juan XXIII.ak oso osasun makala du.

23. Eskatutako guztiak eraman zuek, ez zenuketen goserik

- a) bazenute pasatuko.
- b) bazenituzte pasako.
- c) bazenitu pasako.
- d) bazenituzte pasatuko.

24. Noiztik noiz arte egon zara Pagadi tabernan?

- a) Hamarretatik goizeko hirurak arte.
- b) Hamarrak laurden gutxietatik ordu biak arte.
- c) Hamar t'erdietatik hiru t'erdiak arte.
- d) Hamarrak laurdenetik hiru eta erdiak arte.

25. Jonek etxean zein bulegoan egin dezake lan. Bestela esanda:

- a) Etxean ez du lanik egiten, bulegoan baizik.
- b) Ez du etxean lanik egiten, bulegoan besterik.
- c) Etxean izan ezik, bulegoan ere egin dezake lan.
- d) Etxean nahiz bulegoan egiten du lan.

26. Ez dinat uste, Ane, gure lagun Joxe gurera etorriko

- a) dela.
- b) dudan.
- c) denik.
- d) dukan.

27. Udako bero zakarrek asko "atakatzen dute" aitona. Bestela esanda:

- a) Uda osoa izerdi batean ematen du aitonak.
- b) Udako bero zakarrek erasaten diote aitonari.
- c) Udako atakerik latzenak jasan arren, aitona sano dago.
- d) Udan bero egiten duenez, aitonak atakeak izaten ditu.

28. Zein esaldi da zuzena?

- a) Mikel Xabier baino handiagokoa da.
- b) Mikel Xabier baina handiagoa da.
- c) Mikel Xabier baino handiagoa da.
- d) Mikel bezain handiagoa da Xabier.

29. Zurekin geldi nahi baduzu, esan berehala.

- a) nadin.
- b) nendin.
- c) nintekeela.
- d) nendila.

30. Gaurko neska gazteen erretzen dute.

- a) % 62k.
- b) % 62ak.
- c) % 62ek.
- d) % 62-k.

31. "Billabesa"n txirrina jo nahi duzu, baina ezin duzu, eta txirrinetik hurbil dagoenari:

- a) Joko duzu txirrina, mesedez?
- b) Zer iruditzen zaizu txirrina sakatuko bazenit?
- c) Jotzak txirrina, hi! Ni ez nauk iristen eta!
- d) Sakatzen didazu txirrina, mesedez, hemendik ezin dut eta?

32. Honakoxe hau esan zion amak alabari. Aukeratu segida zuzena:

- a) Ez dun zertan erantzun beharrik hain gogor.
- b) Erne zer esaten dunan, mukizu!
- c) Kontuz ibili zer esaten dunanarekin, neskato!
- d) Hirekin ez zagon zer egitekorik.

33. On Tiburtzio oso pertsona aberatsa eta boteretsua da. Bestela esanda:

- a) Eltze askotako burruntzia da.
- b) Hori bai ale ederra!
- c) Ur handiko arraina da.
- d) Bere onenean dago.

34. Ahots gora esaten esaten ere, niri bost!

- a) duela duela.
- b) duena duena.
- c) duena duela.
- d) duela duena.

- 35. *Idazlan laburrak hogei lerro ditu; bada, horietako hamaika gauza bera esaten da.***
- a) lerroetan.
 - b) lerroan.
 - c) lerrotan.
 - d) lerroez.
- 36. *Zein esaldi da zuzena?***
- a) Dirua izatekotan, etxe hori erosiko nuke.
 - b) Dirua izan ezik, etxe hori erosiko nuke.
 - c) Dirua izan banu, etxe hori erosiko nuke.
 - d) Dirua izanez gero, etxe hori erosiko nuke.
- 37. *Zein hitz bikote EZ da egokia?***
- a) Harri galanta.
 - b) Pertsona otzana.
 - c) Zuhaitz gizena.
 - d) Neskaxa pinpirina.
- 38. *Oso mutil atsegina dugu Imanol; jende guztiak maite du, hain da***
- a) maitabera.
 - b) maitagarria.
 - c) maitekorra.
 - d) maitekoa.
- 39. *Aukeratu esaldi zuzena.***
- a) Sehaskari eraginez lokartu zuen haurra.
 - b) Atarikoak egiten asko ikasten da.
 - c) Lurdesi idatzi nion astebururako nire planak azalduz.
 - d) Irakurriz eta irakurriz eman zuen arratsalde osoa.
- 40. *Ezta hurrik eman ere! Zer esan nahi du esamolde horrek?***
- a) Gosez hiltzen bada, hil dadila, baina etsaiari ezta hurrik ere.
 - b) Oso zikoitza, zuhurra da eta ez du ezer ematen.
 - c) Ez nuen imajinatu ere egiten.
 - d) Egun onak ematen ditu, baina hortik aurrera...
- 41. *Ez iezaiozu, mesedez, kasurik egin, eri plantak egiten ari baita. Bestela esanda:***
- a) Planta ederrekoa bada ere, hobe kasurik egiten ez bazaio.
 - b) Garbi dago: kasu eginez gero, ez du eri plantarik egiten.
 - c) Gure laguna ez dago gaixo, hala izatearen itxura egiten ari bada ere.
 - d) Itxura ederrekoa bada ere, noizean behin gaixotzen da.

42. Noiz jaio zen Jexux Mari?

- a) 1945eko ekainaren 11n.
- b) 1.945.eneko ekainaren 11n.
- c) 1945eko Ekainaren 11an.
- d) 1.945eko ekainaren 11an.

43. Gazteak baleki, zaharrak baleza. Zer esan nahi da horrekin?

- a) Gaztea eta zaharra, biak ala biak, ez daude konforme bizitza honen egoerarekin.
- b) Gaztea jakintsua bada ere, ez dela zaharraren jakintasun mailara iristen.
- c) Gazteak duen zerbait zaharrari falta zaio, eta alderantziz ere bai.
- d) Zaharra gazte izan zen bezala, gaztea ere zahartuko dela.

44. Zer EZ zenioke esango mutiko bati?

- a) Mutiko lerdena egiten ari zaigu Mikel.
- b) Errea da gero gure mutiko koskor hau!
- c) Oilotzen ari da Salaberriko lker.
- d) Hau mutiko gajoa!

45. deitu ahal bezain laster, berantetsita egonen bainaiz.

- a) Iruñera ailegatzen zarenean.
- b) Heldu eta Iruñera.
- c) Iruñera ailegatzeko.
- d) Iruñera ailegatuko zarenean.

46. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Esaiozu mutiko horri isil dadila, mesedez.
- b) Atxaga da euskal idazleetan hoberenatarikoa.
- c) Ezin zaie kasurik egin neskato berritsu hoi.
- d) Ekarki diozu Esterreri gaurko egunkaria?

47. Erakunde ofizial batera bidali beharreko gutunaren agurra:

- a) Zuzendari hori:
- b) Zuzendari jaun txit gorena:
- c) Kaixo, zuzendari jauna:
- d) Zuzendaria horri:

48. Nola idazten da 23.718?

- a) Hogeita hiru mila zazpiehun eta hemezortzi.
- b) Hogeita hiru mila zazpirehun da hamazortzi.
- c) Hogeita hiru mila zazpiehun ta hemezortzi.
- d) Hogeita hiru mila zazpirehun eta hamazortzi.

49. Sinonimo pare hauetako bat GAIZKI dago. Zein?

- a) Izara maindire.
- b) Trumoi ostots.
- c) Erabat arras.
- d) Oparo zeharo.

50. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Ainhoa ez da etorri; hortaz, zuk joan beharko duzu.
- b) Ez duzu erosi? Ez, eske oso garestia zen.
- c) Seietan atera da Madrilera; dagoeneko, han izan beharko du.
- d) Nik ere hala uste dut: dagoeneko han izan beharko duela.

51. Axunek zortzi urte betetzen ditu. Bere lagunak merienda egitera etorriko dira, eta zuk ohar txiki bat utzi diozu. Aukeratu esaldi egokiena.

- a) Ni ez egon arren, zuen portaera ezin hobea izango delakoan nago.
- b) Ni etorri arte, ez hartu merienda. Ongi portatu.
- c) Lana bukatzeke dut. Berehala joanen natzaizue. Karmen.
- d) Axun, bigilatu dena ongi joan dadin. Itxoin pixka bat, banoala berehala.

52. Robert de Niro oso pertsona ezaguna da; horregatik, esaten dugu

- a) sona handiko pertsona dela.
- b) oso pertsona xelebrea dela.
- c) benetan pertsona xehea dela.
- d) kanporakoia dela.

53. Esan zenuen euria eginen zuela eta... bai egin ere! Aukeratu esaldirik jatorrena.

- a) Badut begi bat...
- b) Ez zait bat ere eskapatzen.
- c) Ez pentsa, txirulak kasualitatez jo du.
- d) Azti-hitzak izaten dira nireak.

54. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Eparotz herria Nafarroako iparralderantz erortzen da.
- b) San Fermin eguna ostiralean erortzen da.
- c) Oso eroria ikusi nuen lehengoan gure ama.
- d) Baztango klima hezea ez zait batere ongi erortzen.

55. Zein esaldi dago euskara batuan zuzen idatzita?

- a) Bihar, hilak 16an, irekiko da autobide berriaren lehen zatia.
- b) Uztailaren 7n ez dugu lanik egiten Iruñean.
- c) 2003ko martxoak 15ean bukatzen da eskabideak aurkezteko epea.
- d) Gaur zortzi, hilak 21, urteak beteko ditut.

56. Ondoko hitz sortetan hitz bat lekuz kanpo dago. Zeinetan?

- a) Muino, gailur, erpin, gain.
- b) Amaginarreba, iloba txiki, erregina, suhi.
- c) Lerden, lirain, eder, polit.
- d) Teniente, kaporal, jeneral, koronel.

57. Zein dago euskara batuan zuzen idatzita?

- a) Lautan hogeita hamabost.
- b) Lauretan hogeita hiru.
- c) Seirehun eta hamairu.
- d) Hirurehun ta hamazortzi.

58. Sinonimo pare hauetako bat GAIZKI dago. Zein?

- a) Ezkongabe ezkongai.
- b) Bizkor azkar.
- c) Aurrera gibelera.
- d) Haserretu muturtu.

59. Zein esaldi da zuzena euskara batuan?

- a) Lehorte honekin urarik ere ez dago errekan.
- b) Ez dut giltzik aurkitzen.
- c) Jatetxe famatua eta ez dute ezta arrozarik ere.
- d) Bota al diozu gatzik entsaladari?

60. Gaixo bat joan da zure kontsultara; aztertu ondoren, ulertzeko moduko azalpen hau eman diozu:

- a) Ez dakit hurrengo kukua entzungo duzun... Lastima!
- b) Kontuz ibili! Zelula epitelioidetz osaturiko granulomak dituzu.
- c) Lasai, udazkeneko gaixotasuna da. Birus iragazkor batek sortutako eritasun pandemikoa duzu.
- d) Kasu pattarrarekin! Ez dut gibel hori batere santu ikusten.

61. Ondokoetatik zein EZ da barazkia?

- a) Orburu.
- b) Kuia.
- c) Zainzuri.
- d) Txermen.

62. Zein esaldi da zuzena?

- a) Ez dakit etorri den gurera herriko maisua.
- b) Ez dakit etorri baden gaur okina herrira.
- c) Ez dakit etorri badena gaur Mikel eskolara.
- d) Ez dakit etorri badenik amaginarreba medikuarenera.

63. Beheko hitzetatik zein EZ da *itzuli* hitzaren sinonimoa?

- a) Iratzarri.
- b) Bihurtu.
- c) Irauli.
- d) Biratu.

64. Zein esaldi da zuzena?

- a) Baloiarengandik hurbil zegoen Osasunako jokalaria Krutxaga.
- b) Eltzea su txikian utzirik atera zen etxetik andrea.
- c) Neguan hormatutak gelditzen dira eskuak esku-zorrorik gabe.
- d) Osaba Joxek etortzen den aldioro, eskupekoa ematen digu.

65. *Ederrak eta bi esan zizkiguten. Bestela esanda:*

- a) Ziria erro-erroraino sartu ziguten.
- b) Adarra jo ziguten, gaintik eta azpitik.
- c) Esaldi gozo eta gustagarriak entzun genituen.
- d) Ozenak entzun behar izan genituen.

66. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Nork bota du mahaira urreko seia?
- b) Autoa hemendik utzi dut.
- c) Nor da kartak ematen?
- d) Ordu hauetan Lesakan egonen da.

67. *Ilunpeko lana eguargiz ageri. Hau da:*

- a) Argirik gabe egiten den lana, zakurraren buztana.
- b) Lana ez da egin behar gauean, egun argitan baizik.
- c) Argi dagoenean ikusten dira gauez egindako lanen akatsak.
- d) Isilean egindako lana biziki eskertzen da argitan ageri denean.

68. Zer esaldi dago gaizki?

- a) Bihar, goizean goiz, mendira abiatzekoa da gure Mikel.
- b) Zer ordutan aterako zara gaur eskolatik?
- c) Zaude pixka batean, oraintxe jartzen da eta.
- d) Eginen dugu lana bion artean?

69. Jatuna den bati beheko zein esamolde atxikiko zenioke?

- a) Buruan laino galanta du.
- b) Buru handia eta jate urria du.
- c) Buruan ere hesteak ditu.
- d) Buruan gatz ugari du.

70. Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Legatz hori ez da gaurkoa; oso gaizki usaintzen du.
- b) Zein da nahien duzun jatetxea?
- c) Ez duzu zertan joan beharrik.
- d) Bazkaria eta gero, mus partida bikaina jokatuko dugu.

II. ENTZUNAREN ULERMENA

Entzungaiak liburuari erantsirik datozen CDan daude eta haien transkripzioa liburuaren bukaerako eranskinean.

71. Espezie inbaditzaileak...

- a) erraz egokitzen dira bereak ez diren habitatatara.
- b) erraz ugaltzen dira petroliontzietan.
- c) edozein habitatatako espezieekin arrakastaz moldatzen dira.
- d) espezie baliokideei esker bizi izaten dira.

72. Petroliontziek eta kargaontzietan...

- a) jatorrizko ekosisteman eta helmugakoan kalteak eragiten dituzte.
- b) ura hartu eta bertako ekosisteman desoreka sortzen dute.
- c) milaka kilometrora eramandako urak kalte egiten dio ekosistemari.
- d) beste toki batera eramandako animalia batzuk kaltegarriak izaten dira.

73. Inbasioaren ondorioetako bat hauxe izan daiteke:

- a) Autoktonoak ezin dio aurre egin inbaditzaileak ekarritako gaixotasunari.
- b) Inbaditzaileak ekosistematik kanpora botatzen du autoktonoa.
- c) Espezie inbaditzaileak bere kate trofikoan sartzen du autoktonoa.
- d) Bertako espeziea ezin da elikatu kanpotik iritsitako ondorez.

74. Zebra muskuilua...

- a) Estatu Batuetako laku handietatik beste batzuetara eraman zuten.
- b) espezie inbaditzaileak ezagunenetakoa da.
- c) izugarri ugaltzen zen, batez ere hodi itxietan.
- d) laku handietako espezieez jabetu zen.

75. Espezie inbaditzaileen kalteak saihesteko, soluzio ona litzateke...

- a) bidaian ura hainbatetan aldatzea.
- b) Londreseko bileran proposamenak egitea.
- c) duela laurogei urte egindako proposamenak berritzea.
- d) espezie horien kontrako programetan diru gehiago erabiltzea.

76. Teknologia berriek eragiten diguten lilura...

- a) giza miserian oinarritzen da.
- b) begiak eta ahoa zabal izateko modukoa da.
- c) sugeak izaten duena bezalakoa da.
- d) hutsaren hurrengoaren seinale da.

77. Inprentaren teknologiak...

- a) ez du euskara munduko egin.
- b) ez ditu liburuen gaitz guztiak sendatu.
- c) Beñat Etxepareren esperantza bete zuen.
- d) liburua du problema nagusi.

78. Sarea eta liburua...

- a) lilura iturri izan dira zein bere garaian.
- b) zahartzaroan zaharkitu egiten dira.
- c) sortu, klasiko bihurtu eta zahartu egiten dira.
- d) antzekoak dira biziraupenari dagokionez.

79. Liburua desagertuko omen da...

- a) baina ez du inork negarrik eginen.
- b) gaur egun kuttun edo fetitxe bihurtu delako.
- c) euskarri elektronikoen lekua kenduta.
- d) komunikabideetan gizarte gertakari delako.

80. Liburua eskultura balitz bezala gurtzen dugu...

- a) baina ezer ez daraman gurdia izaten da.
- b) durangoko azoka, besteak beste, horretarako delako.
- c) gurdi antigoalekoa eta prestigio handikoa delako.
- d) baina barruko pentsamendua da inportanteena.

III. IRAKURRIAREN ULERMENA (I) GALDERAK

81. Kristobal Kolon eta lehenengo euskaldunak Kuban.

- Duela 512 urte Antilla uhartean ibilitako euskal herritarren gorabeheri buruzko liburua idatzi du Cecilia Arrozarenak.
- Kolonek egindako hondarreko bidaian hamabiren bat euskaldun behintzat joan ziren Kubara *Santa Maria* itsasontziaren barnean.
- Azken bost mende baino gehiagoan Kuba uhartetik igarotako euskaldunen ibilerak izan ditu hizpide Cecilia Arrozarenak bere liburuan.
- Kopuru zehatza ez dakigun arren, Kolonek dozenaka euskaldun izan omen zituen bidaide *Santa Maria* ontzian.

82. Juan Lacosa.

- Lacosa bera bizkaitarra zen ala ez oso argi ez badago ere, ezaguna da berarekin batera lauzpabost lekeitiar bederen izan zirela Kuban.
- Aurretik ere noizbait irudikatua zuten arren, Lacosa izan zen 1500. urtean Kuba uhartea marraztu zuen lehen kartografoa.
- Erabat egiaztaturik ez badago ere, ikerketek diotenaren arabera, Juan Lacosa Bizkaikoa zelako ustea dago.
- Santa Maria* ontziaren jabea izateaz gainera, Kolonek Kubara egindako lehen bidaiaren gidari ere izan zen Juan Lacosa.

83. Cecilia Arrozarenak Lacosa kartografoari buruz esandakoak:

- Sinatu ezean, mihia moztuko ziotela mehatxu egin omen zion Kolonek Juan Lacosari.
- Segur aski Juan Lacosak ederki asko zekien sinatu behar izan zuenak ez zuela inolako zentzurik.
- Kubara joanik, kartografo moduan besteengandik aparte samar gelditu zen Lacosa eta horregatik behartu zuten gezurra zena sinatzera.
- Presioak presio, marraztu ez ezik, Kuba uharte bat zela ere sinatu behar izan zuen Lacosak.

84. Konkista eta kolonizazioa.

- Dirudienez, aurreneko euskaldun haiek urrerik kausitu ez izanak aski moteldu zituen Kubaren konkista eta kolonizazioa.
- Kolon hil aurreko lau urteetan lortu zuten Kuba konkistatzea, nahiz eta gero pare bat mendean jarraitu zuen sarraskiak.
- Hiri sortu berrietan finkaturiko euskaldunek, gainerakoek ez bezala, merkataritza eta hargintzatik ateratzen zuten bizimodua.
- 1510etik aitzina, berehala hasi ziren euskaldunak hiri berriak sortzen Kuban eta zenbait egibidetan lanean.

85. Zer esaten da testuan Hatueyren kondairaz?

- a) Apaizaren erantzunak arras konbentzitu zuen Hatuey bere burua zerurako bidean jartzeko.
- b) Apaiz batek hauxe agindu zion Hatueyri: espainiarrak erre izana garaiz damutzen bazitzaion, zerura joango zela kristau zintzoen moduan.
- c) *Tainoen* etniako kazike zen Hatueyk espainiarrak bizirik erretzeko agindua eman zuenean, damutzeko esan zion apaiz batek.
- d) Pasarte honetan argi gelditu da Hatueyk ez zuela inolaz ere kristauen pare jarri nahi bere burua.

86. Amerikaren aurkikuntzak...

- a) sortutako ondasunak itsasontziz garraiatzen zituzten, bide berberetan barna betiere.
- b) ekarri zuen aberastasuna franko Europako hamaika herrialdetara euskaldunei esker.
- c) merkataritza indartzeaz gainera, itsaslapurrak ugaltzea ere ekarri zuen.
- d) piraten, filibusteroen eta kortsarioen betiko ibilbide ezezagunak erabiltzen hasia eragin zuen.

87. Independentziaren Gerra zela eta,...

- a) euskaldun orok ez zuten jarrera bera hartu, nahiz eta Calvo Agirreraren inguruan elkartzeko garaian denek bat egin zuten.
- b) menderik mende indarkeriaz galdua zuten askatasuna berreskuratu ahal izan zuten kubatarrek XIX. mendearen amaieran.
- c) Espainiaren interesak, sakarokrazia batik bat, babestu beharra ikusi zuten Kubako euskaldunek.
- d) Calvo Agirre Portugaletekoak *Batasun Konstituzionalaren Alderdia* sortu zuen Kubaren independentzia bultzatzearen.

88. Iraultzaren ganean, zer esaten da testuan?

- a) Kubako historiako egun nagusietakoa dela, ezbairik gabe, 1959. eneko Urteberri eguna.
- b) Iraultzan esku hartu zuten euskaldunak asko izan ez baziren ere, gero sozialismoaren proiektuan eduki zuten eragina handia izan zela.
- c) Iraultzak aurrera egin ahala, euskal burgesia ere Kubako iraultzaren alde egiten eta gerrillarekin batera borrokatzen hasi zela.
- d) Kuban bizi ziren euskal negozio gizon apurrei negozio guztiak bahitu zizkietela iraultzaileek.

89. Pilotariak Kubako izarrak.

- a) Kuban ez bezala, Estatu Batuetan arrakasta itzela lortu zuen zesta-puntak.
- b) Dirutza xahutzen zuten euskal aristokrata eta oligarka anitz hurbiltzen ziren pilotalekuetara zesta-puntako partidak jokatzera.
- c) Esamesa batzuek ziotenez, Estatu Batuetako beisbol jokalaria entzutetsu eta onenatariko bat zesta-puntan hastekotan egon zen.
- d) Lesio bat zela medio, etsi egin behar izan zuen George H. Ruthek, ezin izan baitzituen aurretiko indarra eta teknika berreskuratu.

90. Adierazpen hauetan bakarra da egia. Zein?

- a) Askoz gehiago izan ziren Kubaren independentziaren alde borrokatu eta Euskal Herrira itzuli ziren euskaldunak, Miamira alde egin zutenak baino.
- b) Ameriketara jotzen zuten euskal emigranteek gehienbat Kuba hautatu ohi zuten bizileku moduan.
- c) Azken bost mendeotan liskartsuak eta bortitzak izan dira kubatarren eta emigrante euskaldunen arteko harremanak.
- d) Amerika aurkitu izanak merkataritzari bultzada handia eman zion eta Europako herrialde batzuek aprobetxatu zuten abagune hura; euskalduna franko ere aberastu zen.

III. IRAKURRIAREN ULERMENA (II) TESTUA

BOST MENDEKO HARREMANA

Gorka Quevedo. BERRIA, Igandea gehigarria, 2004-02-29 (moldatua)

Kristobal Kolonek 1492. urteko urriaren 27an zapaldu zuen estreinakoz Kuba. Berekin batean hainbat euskaldun joan ziren, gehienak ere *Santa Maria* ontzian. Lehenengo euskaldun haiek Kubara heldu zirenetik bost mendetik gora igaro dira dagoeneko. Hain zuzen ere, azken 512 urteotan Antilla itsasoko uharte handienetik igarotako euskal herritarren ibilbidea jaso du Cecilia Arrozarenak *El roble y la ceiba. Historia de los vascos en Cuba* liburuan.

Nekez jakin daiteke zehatz-mehatz zenbat euskaldun joan ziren Kolonek gidatutako lehen bidaian, baina gutxienez hamabi inguru izan ziren, antza; gehienak *Santa Maria* itsasontzian joandakoak. Guztien artean, hala ere, Juan Lacosa nabarmendu behar da. *Santa Maria* itsasontziaren jabea zen bera, eta guztiz ziurtatuta ez egonagatik, bizkaitarra zela diote ikerketek.

Jakina da haren ama Katalina Debakoa zela. Lacosarekin batera, Domingo Lekeitiokoa, Ispasterko Domingo Atxi, Lekeitioko Martin Urtubia, Lope Erandiokoa, Debako Juan Martin Azoge... joan ziren, besteak beste.

Berebiziko garrantzia izan zuen Lacosak garai hartan. Kartografoa zen eta bera izan zen Kuba uharte gisa marraztu zuen lehena, 1500. urtean. Cecilia Arrozarenak Lacosak jasan behar izan zituen presioak azpimarratu ditu. "1494. urteko ekainaren 12an Kuba kontinente bat zela sinatu behar izan zuen. Kolonek Kuba kontinentea zela legezatu nahi zuen, eta, horretarako, Lacosaren sinadura ezinbestekoa zuen. Kartografo aparta zen Lacosa; eta berak, ziurrenik, jakin bazekien sinatzera behartu zutenak ez zuela ez bururik ez buztanik. Kontuak kontu, derrigortu egin zuten, eta inoiz kontrakoa esaten bazuen mingaina mozteko mehatxua ere egin zioten. Harrigarria da Lacosak zein zehatz irudikatu zuen Kuba. Mapa egin zuen garaian ez zituzten ez San Antonio lurmuturra, ez iparraldeko itsasertzaren zati handi bat ezagutzen. Bere irudimenean eta indigenek egindako testigantzetan oinarritu zen. Kolon 1506. urtean zendu zen, aurkitutako lurraldea Asia zelakoan eta Kuba kontinente horren hasiera zela erabat sinetsita".

Lehenengo euskaldunek ez bide zuten urrerik aurkitu Kuban. Horren ondorioz, itxuraz, konkista eta kolonizazioa nahiko atzeratu ziren; 1510. urtera arte, hain zuzen. Hala ere, urte horretatik aurrera, laster hasi ziren euskaldunak sortu berriak ziren hirietan finkatzen. Era askotako ogibideak zituzten: merkataritzako ahaldunak, harginak... Alabaina, euskaldunen eta Kubako indigenen arteko lehenengo harremanak ez ziren gizalegean oinarritu. "Lehen euskaldunek eta Kubako indigenek ez zuten ez berdintasunean ez gizalegean oinarrituriko harremanik izan. Kubaren konkista lau urtean egin zen, eta pare bat belaunaldiren buruan ia indigena guztiak sarraskitu zituzten".

Garai hartako harremanen lekuko aski ezaguna da Kuban Hatueyren kondaira. "Hatuey *tainoen* etniako kazike bat zen. Espainiarrek bizirik erre behar zutela eta, apaiz batek zin egin zion damutzen bazen zerura joango zela. Hatueyk ea kristauak zerura joaten ziren galdetu zion apaizari. Eta hark, jakina, baiezkoa erantzun, kristau zintzoak hil oste-

an zerura joaten zirela. Orduan, Hatueyk apaizari esan omen zion: “*Tira, ba, kristauak zerura joaten badira, nik ez dut hara joan nahi*”. Kondaira honek argi uzten du bi kulturen arteko topo egitea ez zela baketsua izan. Ameriketako gainerako herrialdeetan gertatu bezala, sarraskia izan zen, eta euskaldunek ere zerikusi handia izan zuten horretan”.

XVII. eta XVIII. mendeetan euskaldun ugari izan zuten lotura Kubarekin. Gehienak piratak, filibusteroak, kortsarioak edo merkataritzan zihardutenak ziren. Garai hartan lotura estua zuten ogibide horiek. Amerika aurkitzeak sustatu egin zuen merkataritza, eta Europako herrialde nagusiek bertako aberastasun handienak lapurtzen zituzten Europa-ramateko. Ontzi gehienek ibilbide bertsuak egiten zituztenez, piratak, filibusteroak eta kortsarioak ugari egin ziren. Makina bat euskaldun aberastu zen.

XIX. mendearen erdialdean nabarmen handitu zen euskaldunen emigrazioa. Gehienak bizkaitarrak ziren, nekazari jendea batik bat. Uharteko osoan zabaldu ziren eta gehienek merkataritzaren inguruko ogibideetan egiten zuten lan. Hala ere, eskulangileak, nekazariak eta jornalariak ere ugari ziren. “Premutasunaren tradizioa zela eta, presio demografikoa zela medio eta gerra karlistaren ondorioz, euskaldun ugari Ameriketara joan ziren 40ko hamarkadatik aurrera. Gehienak Rio de la Plata ingurura joan ziren arren, emigrazioaren % 20 Kubara heldu zen”.

Kuba Espainiaren kolonia zen garai hartan, baina askatasuna lortzeko mugimenduak sortuz eta indartuz joan ziren apurka-apurka. Horrela, 1898. urtean, mende luzez indarraren bidez kendu zioten askatasuna berreskuratu zuen Kubak Independentziaren Gerran. Garai hartan, euskaldunek jarrera ezberdinak hartu zituztela dio Arrozarenak. “Independentziaren Gerran hainbat euskaldun Manuel Calvo Agirreren inguruan batu ziren. Calvo Agirre Portugaleteko aberats berri bat zen; esklabotzatik dirutza handia irabazi zuen oligarka zen, eta gerran interes asko zituen. Botere handia zuen, baina beti itzalean mugitu zen. Calvo Agirrek *Batasun Konstituzionalaren Alderdia* sostengatzen zuen. Espainiak Kuban zituen interesen eta sakarokraziaren –azukrearekin lotutako oligarkialde egiten zuten alderdi horretako kideek. Gero, Canovasen alderdi kontserbadoreko edo Sagastaren alderdi liberaleko kideak izan zitezkeen, lasai asko. Beste euskaldun batzuk, berriz, Kubaren independentziaren alde borrokatu ziren. Ez da ahaztu behar euskal nazionalismoaren sortzailea, Sabino Arana, Kubaren independentziaren aldeko elkartasuna adierazteagatik kartzelatu zutela”.

Espainiako gerrak (1936-1939) bultzada nabarmena eman zion euskaldunen emigrazioari. Batez ere, alderdi abertzale eta ezkertiarretako kideak izan ziren Kubara joan zirenak. Esate baterako, Jesus Larrañaga eta Juan Astigarribia komunista gipuzkoarrak aipa daitezke. “Horiek gehienak gero iraultzaren alde borrokatu ziren, eta ardura handiak ere izan zituzten”.

Zalantzarik gabe, 1959. urteko lehen eguna Kubako historiako egunik garrantzitsuenetakoa da. Egun horretan, iraultzaren garaipenak Fulgencio Batistaren diktadurari eta 60 urtez Ameriketako Estatu Batuek ezarritako egitura neokolonialari eman zien amaiera. Kuban bizi ziren euskaldunek oso jarrera kontrajarriak hartu zituzten iraultzaren inguruan. “Denetik egon zen, baina iraultza *erradikalizatzen* joan zen neurrian, burgesia Kubatik alde egiten hasi zen. Euskaldun dirudun asko zeuden Kuban, negozio gizonak. Pertsona horiei negozioak bahitu zizkieten. Euskal Etxea bahitu zuten; *Jai Alai* pilotalekua ere nazionalizatu zuten. Egun *Ponce Carrasco* izena du lekuak eta boxeorako eta borroka liberako erabiltzen dute. Jende xumearentzat, berriz, iraultza askatasuna izan zen. Euskaldun ugari hartu zuten parte iraultzan; gerrillariekin batera borrokatu ziren, eta ondo-

ren, lan handia egin zuten sozialismoaren eraikuntzan. Garaituak izan ziren burgesen artean bi joera egon ziren. Euskaldun sentitzen zirenak Euskal Herrira itzuli ziren. Beste batzuk, negozio gizon soilak, Miamiara joan ziren”.

Azken hamarkadetan bukatu da Kubarako euskal emigrazioa, eta euskal jatorriko kubatarrek adinekoak dira gehienak. “Hala ere, senide diren bi herriri buruz hitz egiten ari gara”.

Pilotariak Kubako izarrak

Euskal Herritik Ameriketara emigratu zuten euskaldunek pilota eraman zuten XIX. eta XX. mendeetan. Jokoak arrakasta handia izan zuen, eta Florida, Mexiko, Caracas, Buenos Aires, Montevideo eta Habana hirietan harrera bikaina izan zuen. Hiru urteko proiektu baten ostean, *Jai Alai* pilotaleku handia inauguratu zuten 1901. urteko martxoaren 3an. Zesta-puntak Kubako aristokraten eta oligarken artean bereganatu zuen, eta pilotariak izar handiak bihurtu ziren. Diru kopuru handiak xahutzen zituzten lagun ugari biltzen ziren partidak ikusteko.

Udan Habanara joaten ziren estatubatuarrek ere erreparatu zioten zestari. Horrela, 1921. urtean, George H. Ruth beisbol jokalaria zestara izugarri zaletu zen. Ruth *New York Yankees* taldeko izarra zen, eta beisbolak inoiz eman duen jokalaria onenetakoa. Zenbait zurrumurruren arabera, beisbola utzi eta zestan jokatzeko asmoa izan zuen. Adituek ziotenez, izugarrizko indarra zuen, baina teknika falta zitzaion. Kontuak kontu, entrenamendu batean bizkarreko tendoi bat apurtu zuen. Ameriketako Estatu Batuek inoiz eman duten kirolari ospetsuenetakoak utzi egin behar izan zuen Habana lesio larri batengatik.

ERANTZUNAK

I. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1.	b	16.	b	31.	a	46.	b	61.	d
2.	a	17.	b	32.	b	47.	a	62.	a
3.	d	18.	b	33.	c	48.	a	63.	a
4.	a	19.	a	34.	c	49.	d	64.	b
5.	c	20.	c	35.	c	50.	a	65.	d
6.	b	21.	b	36.	d	51.	b	66.	c
7.	d	22.	b	37.	c	52.	a	67.	c
8.	c	23.	d	38.	b	53.	d	68.	c
9.	c	24.	a	39.	a	54.	c	69.	c
10.	b	25.	d	40.	c	55.	d	70.	b
11.	c	26.	c	41.	c	56.	b		
12.	d	27.	b	42.	a	57.	b		
13.	b	28.	c	43.	c	58.	c		
14.	a	29.	a	44.	d	59.	d		
15.	c	30.	a	45.	a	60.	d		

II. ENTZUNAREN ULERMENA

71.	a	76.	a
72.	d	77.	a
73.	a	78.	a
74.	b	79.	c
75.	a	80.	d

III. IRAKURRIAREN ULERMENA

81.	c	86.	c
82.	c	87.	b
83.	b	88.	a
84.	a	89.	c
85.	d	90.	d

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

PROBA IDATZIA

Ohar garrantzitsuak

- Azterketa honek 10 orri ditu, 2 multzotan banaturik.
- Ez jarri izenik edo sinadurarik azterketa orrietan.
- Idazteko boligrafo beltza edo urdin iluna erabili.

<i>Proba idatzia</i>		<i>Puntu Kopurua</i>	
		<i>Gehienez</i>	<i>Gutxienez</i>
Idazlan laburra	100 hitz, gutxienez, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe. 2 GAI aukeran.	10	5
Idazlan luzea	300 hitz, gutxienez. 3 GAI aukeran.	30	15
Azterketa osoa gainditzeko, GUTXIENEZ, 22 puntu atera behar dira.			

IDAZLAN LABURRA

- * Proposatzen diren bi gaien artean **bat** aukeratu behar duzu.
- * Idazlana, hasiera eta bukaera kontuan hartu gabe, **gutxienez, 100** hitzekoa izanen da (15-20 lerro).
- * Proba honetan gauzak zehatz adierazteko gaitasuna baloratu nahi dugu. Hortaz, estu-estu lotu "Gaia", "Egitekoa" eta, batez ere, "Nahitaez eman behar duzun informazioa" izeneko atalei. **Labur eta argi** adierazi azaldu beharrekoa, alferrik luzatu gabe. Ez ahaztu atal honetan zuzentasun handia eskatuko zaizula.

1. idazlana



Gaia:

Ez duzu aldizkari baten harpidetza berri nahi.

Egitekoa:

Adierazi zure asmoa eskutitz baten bidez.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

1. Harpidetzaren bukaerako data.
2. Hartutako erabakiaren arrazoiak.

2. idazlana

Gaia:

Txoriak lotara etortzen dira zure etxe ondoan dagoen parkeko zuhaitzetara. Horren ondorioz, zure bizi kalitatea ez da lehengoa, egunsentia urratzerakoan zalaparta handia ateratzen dutelako eta parke osoa kakaz zikindua uzten dutelako.

Egitekoa:

Gurelur elkarteari eskutitz bat bidali.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

1. Gertatzen denaren berri eman.
2. Irtenbidea eskatu.



IDAZLAN LUZEA

OHARRAK:

- * Proposatzen diren hiru gaien artean bat aukeratu behar duzu.
- * Idazlanak **300 hitz** eduki behar ditu, **gutxienez**.
- * Idazlana egiteko orri hauetako informazioa erabiltzea aukerakoa da. Beraz, ez zaude erabiltzera beharturik.
- * Proba honetan gaia garatzeko duzun gaitasuna erakutsi behar duzu.
- * Gogora ezazu ezin duzula zure benetako izena erabili sinatzeko.
- * Proba baloratzeko lau alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, testuaren antolaketa (koherentzia eta kohesioa), egokitasuna eta aberastasuna.

1. GAIA

ADIERAZPEN ASKATASUNA ETA INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

Sarri gertatzen dira eztabaida pizten duten gertakariak: kazetarien kontrako salaketak, oinarritzko eskubideak ez errespetatzea, kazetariak informazioa jaso eta zabaltzeko duten eskubidea...



Bizitza intimoa eta bizitza pribatua gauza bera al da?

Zenbaitetan, historia klinikoak eta lan elkarrizketen oharrak agertu dira zakarrontzietan.

Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Intimitaterako eskubidea da nork bere bizitza pribatua besteen interesetatik babestuta egotea. Eskubide hori saltzen ahal da?
- ▶ Iritzi publikoa librea izan dadin, nahitaezkoa da informazio askatasuna errespetatzea. Informazioa lortzeko, ordea, dena al da zilegi?
- ▶ Non dago arazoa? Programa arrosetan? Audientzian? Gizartean?

2. GAIA BURUKO GAIXOTASUNAK

Buruko osasun arazoak dituztenak HIESak edo minbiziak jotakoak baino gehiago omen dira munduan.



Haur prodijio asko depresioak jota omen daude.



Mobbing-ak edo laneko jazarpenak eta arrakastaren kulturak badute zerikusirik buruko arazo horiekin?



Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Mendebaldeko ikuspuntutik begiratuta, buruko osasun arazoak dira XXI. mendeko gaitzik zabalduenak.
- ▶ Depresioa eta elikadura arazoak (anorexia, bulimia eta obesitatea) dira gaitz zabalduenak.
- ▶ Gaixotasun horiek zergatik bihurtu dira izurri?

3. GAIA EMAKUMEA HEDABIDEETAN

Hegoamerikako kulebroietan emakumea bera da matxista eta, aldi berean, matxismoaren biktima.

Publizitatea ere ildo beretik doa: modernitate itxura duten iragarki askok mezu tradizionalak ematen dituzte.



Gizarteari eta aisiari dagozkien gaien % 21etan azaltzen dira emakumeak. Ekonomian, berriz, albisteen % 3tan dira protagonista.

Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- ▶ Sexu bereizkeria ikusten da hedabideetan; batez ere, telebistak bultzatzen dituen estereotipoetan. Bada, bestalde, gaur egun bereizkeriarik egiten ez duenik?
- ▶ Gizarte sailean indarkeriaren biktima gisa azaltzen da gehienetan emakumea (tratu txarrak, eskubideen urratzeak, eta abar).
- ▶ Aldizkari askotan eta TBko programa arrosotan emakumea edertasunarekin, maitasunarekin eta etxearekin lotzen dute.

III

Ahozko proba

AHOZKO GIDA

Azterketa hirunaka egingo duzue eta hurrengo bi ariketei aurre egin beharko diezue:

1

Irakurriaren azalpena

Ariketa honen
euskarria

C

Artikulua

Eman zaizun testua irakurri eta tribunalaren aurrean, taldeko hirurok batera zaudetela, horren azalpena egin beharko duzu. Hirurok gai bera duzue, baina artikulua desberdinak. Zuk zurea azalduko duzu.

20 minutu dituzu irakurtzeko eta 5 minutu azalpena egiteko epaimahaiaren aurrean.

Prestaketarako: 20 minutu. Solasean: 5 minutu

2

Taldeko eztabaida

Ariketa honen
euskarria

C

Gidoia

(Tribunalaren aurrean zaudela emango zaizu gidoia)

Taldeko bakoitzak bere artikulua azaldu ondoren, gaiaren inguruko eztabaida sortu beharko duzue. Horretarako, lagungarri izango zaizuen gidoia emango zaizue. Bertan, elkarrizketa pizteko galderak dituzue.

Hasteko, lehenengo galderaren inguruan mintzatuko zarete, gero bigarrenaren inguruan eta horrela segituko duzue 10 minutuak bete arte.

Galderak zuen arteko eztabaida lortzeko pentsatuak daude. Hartara, zuek ikusi noiz pasatu nahi duzuen hurrengora: galdera erantzunda dagoenean edo gehiagorako ematen ez duenean.

Bat-batean. Solasean: hiruren artean, 10 minutu.

BERDINAK AL GARA DIBORTZIOARI AURRE EGITEKO ORDUAN?

Orain dela 18 urte jarri zen martxan Dibortzioaren Legea, eta harrezkero, milioi bat pertsona inguru banandu dira Espainian. Legea aldatzeko eskaera ugari ere egin da. Elkarrekin bizitzen jarraitu nahi ez dutenek makina bat buruhauste eta tentsio handiko egoera izaten dituzte. Gainera, seme-alabek ere, batere errurik izan gabe, sufritzen dituzte banantzearen ondorioak. Dibortzio eta banantze egoerak gertutik ezagutu dituztenen zenbait ikuspuntu jaso ditugu.

Cristina Gómez



"Landaberea & Abogados"eko abokatua

Familia Zuzenbidearen esparruan, justiziak ez ditu era berean tratatzen emakumezkoak eta gizonezkoak, nahiz eta berdintasuna Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasota dagoen. Auzitegien jarduerak garbi erakusten du berdintasun hori ez dela betetzen Familia Zuzenbidearen eremuan: justiziaren balantzak emakumezkoen alde egiten du nabarmen.

Zergatik? Bada, alde batetik, gizarteak berak ezarritako rolen arabera, emakumezkoa delako familia zaintzen duena; bestetik, gizonezkoek gaur arte ez dutelako erakutsi familiaren inguruko gaietan inplikatu nahi izateko borondate argirik; horren ondorioetako bat da ez dietela epaileei eskatu gai horien guztien erregulazioa.

Baldin eta auzitegietan gizonezkoek ez badute eskatzen adin txikikoen zaintza, edo gutxienez guraso bien artean konpartitzea edo bisita eta komunikazioen erregimen zabalagoak ezartzea... nola egingo dute epaileek haien alde?

Seme-alabak zaintzeko eskubidea aldarrikatzera auzitegira joaten den gizonezkoak hainbat tabu, topiko eta trabaren aurka egin behar izaten du borroka; baina, era berean,

egia da gizartea aldatu ahala, epaileak ere hasi direla emakumezkoek eta gizonezkoek eskubide berak dituztela aitortzen.

Blanca Estrella



Clara Campoamor elkarteko presidentea

Legez, emakumezkoak eta gizonezkoak berdinak gara teoriarik; ez, ordea, praktikan. Hala ere, egia da lege hori kaltegarria dela gizonezkoentzat, izan ere ez ditu berdintzat erasotzaileak ez diren aitak. Gaur egungo Dibortzioaren Legearen arabera, seme-alaben ardura amaren eskuetan geratzen da, baina uste dut horrek ez digula mesederik egiten. Nik uste dut bikote bakoitzak erabaki beharko lukeela haurrak norekin dauden hobeto. Tratu txarrik izan bada, amak du arazoia. Nire iritziz, epaileek psikologo eta antzeko profesionalen osatutako aholku-emaile talde bat eduki beharko lukete alboan. Bikote normal baten kasuan, aita on baten kasuan, krudela da seme-alabak amarekin joatea. Zein da orduan irtenbidea? Bada, partekatzea. Esaten dute ez dela komeni seme-alabak sei hilabetez leku batean egotea eta beste sei hilabetez beste leku batean egotea; baina nik uste dut hobeto egongo lirakeela horrela oraingo moduan baino. Hori bai, ikastetxe bera, lagunak eta jolastokiak ere bai, etab. Feminista naiz, baina aitaren egoera ulertzen dut. Aitek ordaindu behar duten pentsioari dagokionez, hor arazo bat dago: gizonezkoek emazteak etxerako gustatzen zaizkie, etxea zaintzeko, janaria prestatzeko, etab. Etxean lan egiten duen adineko emakume bat banantzen denean, nora joango da lan bila? Nire ustez, bien ardura da.

Iturria (moldatua):

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ 43. zk.

BERDINAK AL GARA DIBORTZIOARI AURRE EGITEKO ORDUAN?

Orain dela 18 urte jarri zen martxan Dibortzioaren Legea, eta harrezkero, milioi bat pertsona inguru banandu dira Espainian. Legea aldatzeko eskaera ugari ere egin da. Elkarrekin bizitzen jarraitu nahi ez dutenek makina bat buruhauste eta tentsio handiko egoera izaten dituzte. Gainera, seme-alabek ere, batere errurik izan gabe, sufritzen dituzte banantzearen ondorioak. Dibortzio eta banantze egoerak gertutik ezagutu dituztenen zenbait ikuspuntu jaso ditugu.

Jaime Tapia



Gasteizko Probintzi Auzitegiko magistratua

Konstituzioaren ikuspegitik begiratuta (Konstituzioaren 14. artikulua), gizona eta emakumeak berdinak dira legearen aurrean, eta berdintasun horrekin tratatzen dira dibortzio prozesuetan. Printzipioz, epaileak errespetatu egin behar ditu ezkontideek erdietsitako akordioak. Seme-alabarik badago, haiek dira kaltetuenak, eta erabakiak (zaintzea, bisiten erregimena, eta abar) haien onura kontuan izanda hartu behar dituzte epaileek.

Berdintasunerako eskubide hori errespetatzen den arren, egia da emakumeak gizartean nolabait diskriminatuta daudela, eta horren eraginez, sarritan, kaltetuenak emakumezkoak izaten dira. Ezberdintasun hori konpentsatzen saiatzen da epailea, emaztearen alde elikagaien pentsio bat emanez -banantze prozesuetan bakarrik eman daiteke- edo pentsio konpentsatorio bat emanez; baina oreka bat berrezartzea zaila izaten da. Batzuetan, senar ohiak ez du ordaintzen, eta ez da seme-alabez arduratzen.

Etorkizuna hobetzeko pare bat proposamen egingo nituzke: alde batetik, Kode Zibila erreformatzea, gizona eta emakumezkoak zuzen-zuzenean dibortzia daitezela; eta bestetik, familiaren bitartekotza bultzatzea, ezkontideen arteko liskarrak konpontzeko.

Luis F. Etxeberribar



APFSko (Asociación de Padres de Familia Separados) ordezkaria Euskadin

Banantze eta dibortzio kasuen %90 baino gehiagotan amak lortzen du seme-alaben zaintza. Datu horrek erakusten du aita gehienetan diskriminatu egiten dela: banandutako aitari eskubide gutxi batzuk baino ez zaizkio aitortzen, eta eskubide horiek urratu egiten dira sistematikoki.

Ez da errespetatzen *Gurasoen ahala* deiturikoa, hau da, gure seme-alabei eragiten dieten erabakiak amarekin batera hartzeko eskubidea.

Jartzen zaizkigun betebeharrak oso zorrotz begiratzen dituzte. Zigorrek gogortu egiten dira elikagaien pentsioa ez ordaintzeagatik, eta batzuetan pentsio horiek handiagoak izaten dira aitaren diru-sarrerak baino; hala ere, diru horri ez zaio inolako jarraipenik egiten.

Ezarri berri duten Babesari buruzko Legea sortu, etxe barruko bortxakeriari aurre egiteko sortu zen; baina, egia esan, ez du arazo hori konpondu, inondik inora. Eta zertarako erabiltzen da? Bada, tratu txar faltsuen salaketak egiteko. Orduan, non geratzen da errugabetasun-presuntzioa?

APFS lanean ari da gaur egungo Dibortzioaren Legea lehenbailehen berraztertu eta Zaintza Partekatua lege horretan sar dadin. Azken batean, Zaintza Partekatua da biderik onena aitek eta amek berdintasunezko tratua jasotzeko, hau guztia gure seme-alaben onerako izango baita. Eta administrazioak eta alderdi politikoek hartu beharko lukete ardua hori.

Iturria (moldatua):

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ 43. zk.

BERDINAK AL GARA DIBORTZIOARI AURRE EGITEKO ORDUAN?

Orain dela 18 urte jarri zen martxan Dibortzioaren Legea, eta harrezkero, milioi bat pertsona inguru banandu dira Espainian. Legea aldatzeko eskaera ugari ere egin da. Elkarrekin bizitzen jarraitu nahi ez dutenek makina bat buruhauste eta tentsio handiko egoera izaten dituzte. Gainera, seme-alabek ere, batere errurik izan gabe, sufritzen dituzte banantzearen ondorioak. Dibortzio eta banantze egoerak gertutik ezagutu dituztenen zenbait ikuspuntu jaso ditugu.

Jose Luis Iturrate



Deustuko Unibertsitateko Familiaren Soziologiako irakaslea

Gure inguruan ikerketak badira dibortzioaren gainean eta guraso bakarreko familien gainean, eta uste dut, soziologo gisa, horietan oinarritu behar dela galderari erantzuteko. Ezkontza-hausturak bi prozesu hartzen ditu: banantzea eta dibortzioa. Eta haustura hori izaten da edo elkarren artean adostuta edo ez. Banantzearen arrazoiak fideltasun eza, maitasun edota elkarrenganako interes falta izan daitezke. Gehienetan emakumezkoak erabakitzen du banantzea. Beharbada, senarrak arazoei ihes egiten dien bitartean, emazteak harremana hondatzen ari dela sumatu, eta harremana amaitu egin dela onar dezake. Independentzia ekonomikorik ez badu, legez egindako banantzeak seme-alabentzako elikagaien pentsioa eta pentsio konpentsatorioa bermatzen dizkio emazteari.

Dibortzioari dagokionez, berriz, gehienetan gizona eskatzen du dibortzioa, beharbada berriro ezkondu ahal izateko. Bizitza mailari dagokionez, gizona antzera biziko da, baina andrea okerrago; eta are okerrago oraindik, seme-alabarik badauka bere kargu (kasuen % 82). Seme-alaben bizitza maila ere jaitsi egiten da. Horri aurre egiteko, emakumeen artean, lanean ari dira banandu edo dibortziatu gehienak. Jakina, emakumeak etxetik kanpora lan egiten badu, ez du trabarik izango banantzea edo dibortziatzea erabaki beharra badu.

Mónica Álvarez



Donostiako Eki-Lore psikoterapia kabineteko psikologoa

Normalean terapia egitera etortzen dena ezkontideetik ahulena izan ohi da. Seme-alabek ere ez dute ongi pasatzen, batez ere gurasoak banandu egin direla eta zergatik banandu diren ez zaielako azaltzen. Terapiak egiten hasten garenean ateratzen dira horrelako gauzak. Seme-alabek gurasoak berriro elkartuko diren itxaropena izaten dute sarri-tan; gainera, gurasoen banantzearen errudun sentitzen dira.

Bikote batek seme-alabak izaten dituenean, ez dira bereizten bikote izatea eta guraso izatea. Bikote askok haurrak izateko erabakia hartzen dute beren arteko krisia konpontzeko asmoz, baina geroxeago arazoak berriro azaleratzen dira.

Beste batzuetan, emakumezkoa lanean hasten denean sortzen da konfliktua, eta egoera horrek eragiten du dibortzioa.

Etxetik atera eta beste etxe bat bilatu behar duen ezkontidea da ezer gabe gelditzen dena: gizartearen aurrean biluzik. Banantzeak ezkontidearen familiarengandik eta kuadrillakoengandik aldentzea dakar aldi berean, eta horrek ez luke zertan horrela izan.

Uste dut emakumezkoek hobeto gainditzen dutela banantzea, errekurtsu afektibo gehiago dituztela horretarako. Seme-alaben zaintza amari ematen bazaio, ama da garai-le, eta horrelakoetan senar ohia matxakatu egiten dute emakume batzuek. Tratu txar faltsuak ere salatu izan dira, eta halako egoeretan gizonezkoa erruduntzat jotzen da.

Iturria (moldatua):

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ 43. zk.

BERDINAK AL GARA DIBORTZIOARI AURRE EGITEKO ORDUAN?

TALDEKO EZTABAIDARAKO GIDOIA

1. Zuen ustez, dibortzio kasuetan, epaileek emakumeen alde egiten dute gehienetan? Ala gizonezkoen alde? Zergatik? Bat al zatozte hirurok?
2. Ezkontzean, bikotekide batek etxean gelditzea erabakitzen badu, dibortziazten direnean, besteak mantendu behar du?
3. Umerik badago, zer erregimen da egokiena beraiantzat? Asteaz zehar batekin eta asteburuetan bestearekin? Sei hilabete etxe batean, beste sei bestean? Aukera hauen alde onak eta txarrak.
4. Hobeto bizi gara dibortzioa onartu zenetik? Gaur egun bizi gintezke dibortziorik gabe?

TELEZABORRA

Telebistako programazioa telezaborra dela kritikatzeko da beti. Zergatik ikusten du, orduan, hainbeste jende? Telebistari buruzko inkesta soziologikoen emaitzak egia balira, gizakia benetan *homo sapiens* "sapiens" dela frogatuko litzateke, denok egunero ikusten omen dugulako *National Geographic*. Telebistaren audientzia-datuei erreparatzen badiegu, berriz, arrain kakajaleen antz handiagoa dugu homo sapiens-ena baino: *Operación Triunfo* ikusiz amesten du jende xeheak izar izatera ere irits litekeela; eta bikoteen dibortziorako lehen urratsa tele-mandoa utzi nahi ez izatea da: etxeko boterea baitago jokoan. Zer arraio gertatzen da?

Javier Sádaba

Filosofoa



Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dut niri txarra iruditzen zaidala telebistako programazioa: bene-benetan txar-txarra, gainera. Bistan da telebistan badela interes politikorik, inolako eztabaidarik ager ez dadin. Bestela esanda: ez zaie eztabaida ideologikorik agertzea interesatzen telebista kontrolatzen dutenei. Beraz, hasteko, botere publikoak dira telebistak arinkeriaren bidez zerbait interesgarria ezkutatu nahi izate horren erantzuleak.

Audientzia-datuak ikusita, berriz, ikusleen konplizitatea da agerian dagoena. Jakina da erosoagoa zaigula telebistako errazkeriak irenstea (pentsamendua aktibatu beharrik ez duten programa hutsalak) programa mamitsuak ikustea baino. Hau da: jendeak, orokorrean, atseginez eta lasaitasun osoz ikusten du "zaborreria".

Azkenik, telebistako propaganda-sistemak oso onak dira: jendearen senera jotzen dute zuzen-zuzenean, bete-betean; badakite nola iritsi ikusleengana; eta, beraz, eraginkorrek dira oso. Horrek berekin dakar jendeak telebistaren aurrean har lezakeen jokabi-

dea ezerezean gelditzea. Alegia, zaborreria salatu egiten du jendeak, bai; baina, ikusle den aldetik, ez ditu bere jarrera eta ohiturak aldatzen.

Santi Urrutia



Soziologiako irakaslea (Kazetaritza Fakultatea)

Elkarren zorionak edo zoritxarrak jakitea, garaian garaiko herioen "balentria" ospatzea, aldamenekoak goratzea edo larrutzea, hori guztia izan da mendez mende jendearen denbora-pasarik atseginenetakoa. Hain zuzen, horrexetan laguntzen du telebistak.

Gaur eguneko "berritsu", "nonzebarri", eta "kuxkuxero" guztiak -denok baikara horrelakoak- biltzen gara telebistaren kutxa magikoaren aurrean. Telebistak komunitate nazional baten ika-mika, gorabehera, zeresan, marmar, esamesa eta gainerakoak kontatzeko bidea eskaintzen eta indartzen du. Une bakoitzean zer indaba klase egosten den jabetuta egon nahi duenak hura ikustea beste biderik ez du; bestela, "ondatik kanpora dago".

Komunitate nazionala esan dut, eta Hego Euskal Herriaren kasuan komunitate nazional hori Espainia da. Hegoaldeko herritarrei ez zaizkie interesatzen, adibidez, Frantziako komunitate nazionalako txutxu-mutxuak, Monakoko Estefania edo antzeko salbuespen batzuk izan ezik.

Telebista gailu bitxia da: lotsa kentzen dio jendeari, eta bere inguruko ia inori kontutuko ez lizkiokeen gauzak kontatu ahal dizkio telebistako aurkezleari, batez ere aurkezle-aitorle hori neska liraina bada. Audientziak pertsonaren lotsa falta –edo ausardia– mi-rets dezake; baina ikusleak salbu sentitzen du bere burua, gonbidatuak kontatzen dituen gauzen gordintasunaz disfrutatzen plazer infinitua sentitzen duen bitartean. Segur aski ez da konturatzen pertsona horiek telebista-platoan badira, bera hantxe ikusten dagoelako dela.

Iturria (moldatua):

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ 37. zk.

TELEZABORRA

Telebistako programazioa telezaborra dela kritikatzeko da beti. Zergatik ikusten du, orduan, hainbeste jende? Telebistari buruzko inkesta soziologikoen emaitzak egia balira, gizakia benetan *homo sapiens* "sapiens" dela frogatuko litzateke, denok egunero ikusten omen dugulako *National Geographic*. Telebistaren audientzia-datuei erreparatzen badiegu, berriz, arrain kakajaleen antz handiagoa dugu homo sapiens-ena baino: *Operación Triunfo* ikusiz amesten du jende xeheak izar izatera ere irits litekeela; eta bikoteen dibortziorako lehen urratsa tele-mandoa utzi nahi ez izatea da: etxeko boterea baitago jokoan. Zer arraio gertatzen da?

Jose Javier Esparza



Telebista-kritikaria

Gehiegizkoa da "telebistako programazioa telezaborra da" esatea: orokorkerietan erortzeko arriskua baitago. Programazioan bada zaborrik, hala da; baina, beste gauza gehiago ere bai. Egia da zaborraren usaina gehiago barreiatzen dela gainerakoena baino; hala ere, ez ditugu gauzak beren lekutik atera behar. Gainera, telebistari dagokionez, zer da zaborra? Nire iritziz -eta zuk nahi duzun bezain xumea izango da-, telebistaz ari garenean, "zaborra" deitzen dugun hori zera da: oinarrizko senari eragiteko bidalitako mezu primario mordoa: sexua, indarkeria eta bestelakoak. Zaku berean leudeke sexuaren eta indarkeriaren forma komikoak: halakoak ere gutxi-asko agertzen direlako. Eta hain justu zaku horixe da, audientzia kontuetan, halako etekin ona ematen duena. Oinarrizko senari buruzko mezu primarioak denok ulertzen ditugu: halakoak jasotzeko ez baititugu sakon eta berehala hausnartu behar, ez baitugu jarrera berezirik behar. Eta guztiarekin ere, nik neuk ukatu egiten dut betiko uste hori, eta diot: audientziari dagokionez, jada (aspalditik gainera), programa "zaborrek" galduta dute lidergoa. Egia da, oraindik ere, askok ikusten dituzte-

la halako programak; baina, batek ere ez du lortu "arrakasta historikotzat" jo dezakegun audientziarik (*Gran hermanori*, adibidez, gainbehera datorkio bolada honetan).

Kontrara, arrakasta historikoen sailean, elementu bat agertzen da beti: sentimendu onak, zenbaitetan likatsu izateraino iristen diren horietakoak. Eta horra hor non ditugun *Farmacia de guardia*, *Médico de familia*, *Cuéntame*, *Operación triunfo*, eta abar. Beraz, kontuak ez daude hain ilun, ikuspegi horretatik begiratuta, bederen. Benetan larria dena zera da: programatzaileek, estu eta larri dabiltzanean, oraindik pentsatzea zaborra dela aukera ona, audientzia-galera gelditzeko. Baina, hori besterik da.

Elixabete Garmendia



Bertatik bertara saioaren zuzendaria (ETB1)

Jo dezagun Arzak jatetxeari *McDonald's* bat jartzen diotela alboan eta, haren "tiradizoa" aprobetxatzearen, dastatze-menuaren salneurria jaisten duela hamar eurora; hau da, sormenezko sukaldaritza sofistikatua eskaintzen digula hanburgesa eta patata izoztu frijituen prezioan, *Coca-Cola* basoaren ordez erreserba markadunaz. Eta, hala ere, *McDonald's*i ilaraka hurbiltzen zaiola jendea eta *Arzaki*, berriz, bakan. Edo *Armanik* irekitzen duela denda bat, non goi mailako jantziak *Zarako* prezioetan saltzen dituen, eta, hala ere, *Zarara* joaten direla erostunak, samaldan orain arte bezalaxe. Fenomenoak antropologoen azterketa sakona beharko

luke, halako portaera logikaz kanpokoak ulertzeko. Bada, telebistan hori da gutxi gorabehera indarrean dagoen legea. Portaera horiek, antropologoena ez ezik, psikologo sozialen arreta osoa ere behar lukete, tele-saio zenbaitekin gertatzen ari diren masa-fenomenoak ulertzen hasteko.

Orain, nago psikologorik onenak ez ote dauden barrikadaren beste aldean, masa-fenomenoak izatera iristen diren saio horien atzean. Profesional oso onak dauden bezala, badira medioa ondo ezagutu eta erabiltzen dakitenak ere. Zer egiteko, ordea? *Coca-Colaz* irentsi beharreko hanburgesak, edo laugarren garbiturako listuta dauden jantziak egiteko. Zenbat eta arroteago izan, zenbat eta xeblearego ageri, orduan eta aukera handiagoa dauka jendeak telebistako izar bihurtzeko. Errauskineren ipuina hartu, *exhibicionismo-voyeurismo*z ondo gazitu, filiak eta fobiak piztu, ikusleei parte hartzeko ilusioa eskaini..., hortxe errezetaren osagaietako batzuk. Baina ez, halere, ez zaizkit kontuak ateratzen. Koprofagiari buruzko eskuliburu onen bat ba al dauka norbaitek?

Iturria (moldatua):

TELEZABORRA

Telebistako programazioa telezaborra dela kritikatzeko da beti. Zergatik ikusten du, orduan, hainbeste jendek? Telebistari buruzko inkesta soziologikoen emaitzak egia balira, gizakia benetan *homo sapiens* "sapiens" dela frogatuko litzateke, denok egunero ikusten omen dugulako *National Geographic*. Telebistaren audientzia-datuei erreparatzen badiegu, berriz, arrain kakajaleen antz handiagoa dugu homo sapiens-ena baino: *Operación Triunfo* ikusiz amesten du jende xeheak izar izatera ere irits litekeela; eta bikoteen dibortziorako lehen urratsa tele-mandoa utzi nahi ez izatea da: etxeko boterea baitago jokoan. Zer arraio gertatzen da?

Izaro Iraeta



Esta es mi gente saioaren aurkezlea (ETB2)

Ez zait erraza iruditzen galdera horri erantzutea; izan ere, ikusleak telemandoa noiz eta zergatik sakatzen duen jakitea *Coca-Colaren* formula baino misteriotsuagoa da. Baina kontua da jendeak telebista ikusi egiten duela, eta gehienok, gainera, saio berberak ikusten ditugula (ez dut uste adibideren bat jartzea beharrezkoa denik).


Garai batean jendeari lotsa ematen zion kulebroiak, *realityak* edo *talk showak* ikusten zituela esateak, baina, egun, lotsa hori gaintitu egin da; eta are gehiago, kontrakoa bihurtu da lotsagarri, mundu guztiak jarraitzen dituen saioak ez ikustea, alegia. Lagunartean, poteoan, edo lanean, aurreko egunean telebistan jazotakoak izaten dira hizpide: telebistarik ikusi ez baduzu... adios! Eta hau zergatik? Batek daki.

Telebista, komunikabide izateaz gain, aisialdirako tresna bihurtu dugu, eta badirudi aisialdian burua gehiegi nekatuko ez diguten edo kezkatuko ez gaituzten gauzak nahi ditugula. Hau ez da telebistaren kasuan bakarrik gertatzen; zeintzuk dira aldizkaririk ero-

sienak? Libururik salduenak? Kontsumo errazeko produktuak nahi ditugu eta horixe da ematen digutena.

Alternatiba zein den? Telebistaren kasuan kontraprogramazioa, noski; baina, enpresa ez da arriskatzen galerak emango dizkion produktuak kaleratzera. Tamalez, saio batek arrakasta duenean, honen klonak sortzen dira batean eta bestean; eta ikuslearentzat ez da alternatiba handirik gelditzen. Honen errua nork duen jakitea ez da erraza: eskaintza eta eskari kontua da. Dena den, galdera bat egin nahi nuke: Nork ikusten ditu *La doseko* dokumentalak?

Josemari Otermin



ETBko programazioaren zuzendariordea

Telebistaren egoeraz hitz egiterakoan, sarritan "zaborra", "maila eskasekoa", "deskulturatua" eta antzeko kontzeptuak erabiltzen ditugu. Ez nuke nahi, ez da nire asmoa, kontzeptu horien kontrako pentsaera agertzea. Hori guztia baino ariketa sinpleagoa egiten saiatuko naiz.

Maiatzak 30 egun ditu gaur. Eguneroko ohiturari jarraiki, bezperako audientziak aztertzen ari naiz. Zer erakusten didate jaso ditudan datuek? Har dezadan ordu jakin bat, arratsaldeko 4retatik 5etara doana. Atzoko telebista-kontsumoa honelakoa izan zen:

- TVE 1: *La verdad de Laura*, teleseriea, 128.000 ikusle.
- TVE 2: *El manantial de la eterna juventud*, dokumentala, 51.000 ikusle.
- ANTENA 3: *Ecomoda*, teleseriea, 91.000 ikusle.
- TELE 5: *Gran Hermano*, realitya, 93.000 ikusle.
- ETB1: *Giroa*, kirola, 31.000 ikusle.
- ETB2: *Lo que faltaba*, talk showa, 95.000 ikusle.

Nire ustez, hemen eta ordu honetan zenbait eskaintza zeuden eta ikuslearen esku zegoen aukera egitea. Eskubide horrek eraman du *La verdad de Laura* eta *Lo que faltaba* primatzera. Eta eskubide horrek bultzatu ditu ikusleak *Giroa* eta *El manantial de la eterna juventud* baztertzerara. Beraz, guztiz gehiegizkoa da gaur telebistan zaborra bakarrik ematen dutela esatea eta erantzukizun guztia programatzaileen bizkarretan uztea. Aukera egiteko orduan, ikusleak du eta izango du azken erantzukizuna. Gaurko ikuslearen nahiak, esate baterako, erabat baztertu du musika klasikoa telebistan.

Iturria (moldatua):

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ 37. zk.

TELEZABORRA

TALDEKO EZTABAIDARAKO GIDOIA

1. Zergatik ikusten du hainbeste jendek telezaborra?
2. Nork agintzen du programazioan? Ikusleek? Telebista kateek?
3. Zein saio motari deitzen diozu telezaborra?
4. Zer asetzeko ikusten duzu telebista?
5. Zer egin daiteke telezaborraren kontra?
6. Inkesten arabera, zergatik ikusten ditugu denok National Geographic bezalako dokumentalak?
7. Posible al da gaur egungo gizartean integratuta egotea Tamara, Bisbal eta Aramis Fuster ezagutu gabe?

IV

Eranskina:

entzungaien transkripzioa

APNEA (03-05-10)

EUSKADI IRRATIA. Gaur medikuaren kontsultan loaldiari begiratu nahi diogu. Lotan gaudelarik gertatzen den apneari buruz hitz egingo digulako Felix Zubia medikuak. Felix, arratsalde on.

FELIX ZUBIA. Bai arratsalde on.

E.I. Apnea. Lotan gaudelarik arnasketan ematen diren etenaldiak. Hori oso orokorrean esanda, e?

F.Z. Bai.

E.I. Gehiago sakonduko dugu, baina, hasteko, galderatxo bat: arnasa hartzeko era aldatu egiten al da esna gaudenean eta lotan gaudenean, Felix?

F.Z. Gutxi gora behera berdintsua da. Arnasketa zerbait automatikoa da, ez dugu guk pentsatzen arnasa noiz hartu behar dugun edo ez. Gure gorputzak berak daramakiena da, eta gero nahi dugunean, sakonago edo egin dezakegu, ez? Baina berez gauza automatikoa da. Eta gizakiok arnasketa presio negatiboz egiten dugu, ez? Gure muskuluek, gure giharrek, barrurantz indarra egiten dute, esango genuke ba, bueno, aspiragailu baten moduan arnasa guk xurgatu egiten dugula, ez? Gauean loak fase ezberdinak ditu, eta fase horietako batzuetan muskulu guztiak, gihar guztiak gelditu egiten dira arnasketakoak izan ezik. Arnasketako muskuluak dira egun guztian lanean diharduten bakarrak, beste guztiak gelditu egiten dira eta arnasketakoak lanean jarraitzen dute etengabe, ez? Ordun arriskua da ezta-rrian, goian, mukosak berak indar gutxi du, nahiko ahula da, tentsio gutxi du eta horiek barrurantz jotzeko joera izaten dute eta presio horrek gehiago ixten ditu, ez? Eta horrek barrurantz ez egiteko tentsioa mantendu behar du, bestela ezta-rrian gutzia itxi egiten delako, mukosa horregatik.

E.I. Eta orduan etortzen dira zarata harrigarri horiek...

F.Z. Bai, horrek bibratu egiten du ba... gitarra baten soke bezala ba... dantza egiten dute eta zurrunka eragiten dute, izango luke haizeak pasatzean mukosak eragiten ditu eta hori zurrunka izan litzateke, bai.

- E.I.** Galdera egiten genuen jende askori entzun izan diogulako: nik egunez sudurretik hartzen dut arnasa eta lotan nagoelarik, ahotik hartzen dut arnasa eta, egia esan, atentzio ematen digu horrek.
- F.Z.** Gerta liteke, e? Esango nuke aho sapaia aurreko aldea gogorra du, antzeko mukosa da, ta bueno lo egiteko segun ze postura duen edo horren arabera itxi du, ireki egin liteke bai, gerta liteke bai.
- E.I.** Apnari buruz hitz egin nahi dugu gaur, Felix, zer da apnea? Ze nik oso orokorrean esan dut...
- F.Z.** Apnea da arnasketaren etenaldia, guk ematen dugun hitz potoloa da, ez? Edozein pertsonak arnasa hartzen uzten duenari apnea esaten diogu. Adibidez, urpekari batek arrantzan ari dela edo arnasa uzten baldin badu, apnea bat egiten du eta arnasa hartzeari arnasa deitzen diogu. Eta kasu honetan sindrome berezi batez hitz egiten ari gara, hau da lotan ari den bitartean gogoz kontra ematen den apnea, kasu honetan sindrome berezi bat izango litzateke, bai.
- E.I.** ... Bakarrik lotan gaudelarik gertatzen dena.
- F.Z.** Kasu honetan horri buruz hitz egiten ari gara, eta batez ere gogoz kontrakoa dena, ez dena guk bilatua, ez? Nik arnasari utz diezaioke minutu batzuk, esango genuke, baina hortik aurrera ez; hauek gogoz kontra edo gure borondatearen aurka egindako apneak izango lirateke.
- E.I.** Eta horrek eragiten digu guri, zer sentitzen dugu edo zer gerta daiteke?
- F.Z.** Gauean eztarriko mukosak itxi egiten dira, arnasbidea ixten da eta arnasa hartzeari uzten diogu, bueno, segundo batzuk agoantatzen ditugu, gorputzeko oxigenoa erabat goitik behera jaisten da, esango genuke ba... arnasari utziko bagenioke bezala behin eta berriz, orduan gauan pertsona hau ez du deskantsatzen, lo dagoelarik esnatu egiten da arnasa falta delako, derrepente esnatzen da eta bueno, ba... berak berriz arnasa, bueno, oxigenoa hartzen du eta berrituz lo gelditzen da, handik pixka batera berriz arnasa hartzeari uzten dio eta esango genuke lo erabat etena duena. Ordun, bueno, gauean behintzat, lo hori ez da batere... ez du deskantsurako balio, ez beretzat eta normalean ezta bere ingurukoentzat. Askotan, ez? Gaixoak bere emazteak aginduta etortzen dira, andreak zurrungarekin ez duelako lorik egiten eta gainera berak ikusten duelako bere gizonak –normalean gizonetako gehiago izaten direlako– gauean zurrungak egin eta bat-batean arnasik hartu gabe gelditzen dela, bera beldurtu egiten da, berriz arnasa hartzen hasten da eta esaten du: ui, pasa zaio! Behin eta berriz, zurrunka eta arnasa hartzea lagatzen du, zurrunka... arnasa hartzea lagatzen du... Hori gauez, ba... bueno, esango genuke lo horrek ez duela ezertarako balio, ez? Beti... esango genuke ordu laudenero despertadoreak joko baliguke bezala delako eta egunez pertsona horrek lo hartzen du, hasiera batean esango genuke sofan eseritzen denean edo telebista ikustean pixkanaka-pixkanaka gero eta gauza, esango genuke, garrantzitsuagoetan. Badira jaten, jaten ari diren bitartean lo hartzen dutenak ere, gidatzen ari direnean eta bueno, istripua izan dezakete, lanean atentzioa mantentzeko gauza ere ez direlako eta bere bizi kalitatea oso txarra izaten da. Hori egunean, eta horretaz gain oxigeno jeitsiera horiek beste arrisku batzuk dituzte; tentsioa igotzen dute,

gorputzeko globulo gorriak igotzen dira eta bihotzekoak izateko arrisku handiagoa izaten dute bai arritmiak izateko eta bai infartoak izateko.

E.I. Beraz, hau ez da tontakeria.

F.Z. Ez, ez, heriotza asko eragiten dituen sindromea da. Duela hogeit bat urte edo hola ezagutu zen, ordurarte izan izango zen, baina ez zizaion garrantzirik ematen eta ikusi da hilkortasuna duela eta batez ere bizi kalitatea oso txarra, bai berarentzat bai ingurukoentzat.

E.I. Emaztea joaten da normalean. Horrek zer esan nahi du? Gizonengan eragin gehiago duela apneak?

F.Z. Esango genuke arrisku faktore batzuk daudela, ez? Adibidez, gizonezkoak geroz eta gehiago, matrailla hezurra barrurantz sartu baldin badugu, eztarriaren itxiera ere txikiagoa, bueno irekiera bera itxiago esango genuke, eta horregatik matrailla barrura izatea beste arrisku bat da, mingaina haundia izatea...

E.I. ... ez luzea...

F.Z. ... ez luzea... handia, ezta arina ere... barrurantz... eztarria bera ere mukosa barrurantz egitea, hor... esango genuke... hor... eztarriaren forma... bakoitzak berea izaten duela... eta gero gizentasunak asko laguntzen du, gizona izateak... mukosa guzti horrek grasa hartzen du eta lehen indarra zuena erdi erorita gelditzen da eta ixteko joera izaten du.

E.I. Seinalea zurrunga izan daiteke?

F.Z. Zurrunga bera esango nuke aurrepauso bat izango litzateke, ez? Zurrunga egiteak ez dauka berez inolako arriskurik...

E.I. Jende askok egiten du zurrunga apnea izan gabe, ezta?

F.Z. ... Hori da, ... bibrazio hori egingo luke baina itxi gabe eta mukosa horiek arnasbide guztiak ixtera iristen direnean, arriskua hor sartzen da, bai.

E.I. Askotan, zuk esan duzu, emazteak dira... nolabait bere senarra hartu eta sendagi-learengana eramaten dutenak... Bakarrik bizi den jendearentzat hau desberdina izango da, ez? Beraiek sentituko dute nekatuta daudela eta horregatik joango dira.

F.Z. Gauzez normalean ez dute ezer sentitzen, ez? Haiek tarteka-tarteka esnatzen dira, baina ia konturatu gabe arnasa hartzen hasten dira eta berriz lo jarraitzen dute, esango nuke lo sakonagotikan lo arinagoko batera pasatzen direla ta ohartu ere ez, eta ikusiko dutena da egunez lo hartzen dutela, izugarritzko joera dutela lo hartzeko, edozein gauza egiten ari direla, nekea, bai izaten dutela erorialdia, konzentratzeko gaitasunik eza, eta bueno askotan tentsio altua dugulako edo beste gauza batengatik galderak egiten hasi eta orduan nabarmentzen da, bai.

E.I. Zergatik gertatzen da apnea? Zerk eragiten du hori?

F.Z. Gauza asko dira, ez? Esan nahi dut... batez ere, mukosa horiek indarririk ez dutelako eta arnasbidea ixten dutelako eta beste kasu batzuetan, berriz, arnasketa prozesua agintzen duena garuna izaten da eta garuneko arazoa, baina oso-oso gutxi dira, batez ere eztarriak indarririk ez duelako.

- E.I.** Lehenago esan dugu nork duen joera gehiago eta diagnostikoa egiteko, Felix, ez du erraza ematen kanpotik begiratuta.
- F.Z.** Askotan bai, esan nahi det, denok ezagutu dugu horrelako gizonezkoren bat, denok ezagutu dugu besteren bat, ez? Askotan beraiei entzunda bakarrik, bai andreak, bikoteari entzunda, batek esaten du egunez xixko eginda dagoela, lo hartzen duela edozein bazterretan, nekatuta dagoela eta ezin duela kontzentratu eta besteak esaten du gizonak izugarritzko zurrungak egiten dituela eta beldurra hartzen duela, sustoak, ez? Derrepente arnasik ez duelako hartzen. Eta ba, bueno, ia behin horrekin aztarna hartzen diogu, susmoa hartzen diogu, eta diagnostikoa egiteko polixonografia bat egiten diogu.
- E.I.** Zer da hori? Zer da hori?
- F.Z.** Ospitalera etorri, bertan lotan egon eta gau bat lotan pasatzen da. Eta lotan ari diren bitartean gauza batzuk neurtzen dira. Alde batetik loaren faseak nolakoak diren eta zer fasetan dagoen; hori buruan pegatina batzuk jarri eta egiten dira, arnasketa muskuluak nola mugitzen diren eta odolean zenbat oxigeno dugun, eta hor ikusten da gauean bat-batean arnasketa muskuluak gelditu egiten direla eta oxigeno jeitsi egiten dela, berriz esnatzen da, arnasketako muskuluak martxan jartzen dira eta oxigeno igotzen da. Zenbait neurketa eginda jakin daiteke gauen arnasa hartzea uzten dugun edo ez eta horrek zer ondorio egiten duen, bai.
- E.I.** Eta hori nola konpon liteke? Konpontzen da? Sendatzen da? Gaixotasun bat da?
- F.Z.** Bai gaixotasun bat da, senda daiteke eta gainera, bueno, batez ere bizi kalitate hobetu. Ez da gutxi, ez, izugarri, eta arazoari buelta eman, bai. Alde batetik, bueno, beti neurri higienikoak, esango nuke, gizentasuna baldin bada, beti argaldu, alkohola oso txarra da, beraz alkohola utzi erabat...
- E.I.** Eta esango dut nik entzun dut, ez dakit egia izango ote den, asko gehiegi afaltzea ere bai.
- F.Z.** Ez, ez dauka horrelako...
- E.I.** Ez da..., begira..., ikusten? Askotan entzuten dira gauzak eta...
- F.Z.** Lo egiteko beti esaten da afari astun batek kalte egiten duela, baina hori orokorki, ez kasu honetarako. Eta tratamendurik gehien erabiltzen dena da inglesezkotako zipper deitzen dioguna da, presio positiboa. Eta egiten duena da makina baten bidez eztarriak berak ixteko joera izaten duen kanpotik presioa eragin, maskarilla jarri eta makina horren bidez presio egin eta ez utzi mukosei barrura jeisten, horrekin bakarrik... ba bueno, makina berak zarata pixka bat egiten du baina zurrunkin aldean ezer ez. Egia da, e? Askotan entzuten duzu makina bera, motor txiki bat du eta esaten duzu, joe, horrekin lo egitea... eta esaten dizu andrea ez, ez, ez...
- E.I.** ... Ni ohituta nago bestera, lasai, lasai...
- F.Z.** Izugarri... hotsarena..., baina badakizu gizonezkoarena, ez? Ba, beno gauean arnasa... presioa sortzen da, arnabidea irekita mantentzen dugu eta arnasa etengabe onartzen du. Hori dela eta gauean lo egiten du, egunez ez du lo hartzen, oxigeno mailak berdin mantentzen dira, tentsio altua desagertu egiten da eta bihotzeko izateko arriskuak ere bai.

E.I. Eta makina horrekin egin behar dugu lo betirako?

F.Z. Bai, makina hori baldin badugu, bai.

E.I. Beraz, hirukotea, bikotea ez, hirukotea.

F.Z. Bai, hirukotea.

PATAGONIA (03-09-06)

BABELGO DORREA. ...historialariarekin, Román Artanorekin, arratsalde on, Román, eta ongi etorri Babelgo Dorrera.

ROMAN ARTANO. Baita zuri ere.

B.D. Zer moduz, ondo?

R.A. Bai.

B.D. Patagoniaz hitz egingo diguzu...

R.A. Bai, eskaini zidatenean kolaborazioa ba... pentsatu nuen zerbait ba... pixka bat xarmaduna eta berezia ekarri behar zela lehenengo atalera ta ba... segituan burura Patagonia etorri zitzaidan, ba... zergaitikan? Ba... ez dakit... ba... lehen esan bezela, xarma haundia duelako. Patagonia da lurralde bat ba... nahiko... bueno... oso haundia da, esan nahi dut, ez dakit ba... igual milioi bat kilometro karratu ditu –oso haundia–, oso ezezaguna, jende gutxi bizi da, natura aldetik izugarrizko aberastasunak ditu, ta bueno historia aldetik zer esanik ez, ezta?

B.D. Kokatuko dugu non dagoen?

R.A. Bai, bueno, Patagonia ba... pentsatzen dut egongo dela jendea ez dakien non dagoen. Patagoniak hartzen du Argentina eta Txileko hegoaldea, Hego Ameriketako hego konoa edo deitzen zaiona eta ba... daude ba... mila ingurune ta mila habitat ezberdin; hasi ba... glaziarretatik, orain gaur egun burrukan dauden Argentina eta Txileko gobernoak... ba hor glaziarren inguruan eta bueno, desertuak, mendia, itsasoak, itsaslabarrak, ba... izugarrizko basoak nahiz eta txikitu egin dituzten ba... hauetako asko, baina hori, aberastasun handia du natura aldetik, oso handia da.

B.D. Eta eguraldiaren aldetik oso muturrekoa, esango dugu.

R.A. Bai, bai, hau da, ba... ba... oraindik ba... jende gutxi bizi da zeren eta da lur bat ba... extrema ezta? Ba... oso lehorra leku gehiengan, oso hezea ere bai, hegoal-

dean, eta hotza, batez ere oso hotza da, oso oso hotza. Ordun, ba ez da ba... zentzu... mendebaldeko zentzuan giza garapenerako ez da lur egokia.

B.D. Hori esan behar nizun, ez? Han bizitzeko baldintzak ere ez direla oso egokiak izan.

R.A. Ez, han ondo egokitzen ziren bakarrak eta beraientzat paradisu hobe zena Patagonia bakarrikan hango indigenentzat, ezta? Gero hitz egingo dugu indigenez pixka bat, baina gizon zuriari asko kostatu izan zaio han sartzea eta han pixka bizitzen jartzea eta gaur egun ere hor ikusten da ba... demografikoki dentsitatea ba... oso oso bajua da, Artikoko zonak bezala.

B.D. Eta... egokitzen ziren horiek nolakoak ziren –barkatu?– egokitu ziren horiek, han bizitzera egokitu ziren horiek nolakoak ziren?

R.A. Ba... ez dakit, horren lurralde haundia izanda... Darwinek esaten du ba... mugaga-beak zirela hango zelaiak eta mugaezinezko e... ezaugarri txarrak zituztela hango lurrak, hori esaten du Darwinek bere *bidai kronikan* eee... baziren indiar etnia ezberdinak. Garrantzitsuenak ziren *onak*, *yaganak* edo *yamanak*, beraien bere buruari *yamano* hots egiten zioten eta baita ere *teuelcheak* eta *alacalufak*, beraien kultura asko oinarritzen zen *guanakoan* eta gero ba... inguru hortan bale asko bizi dira. Adibidez, *onak* Tierra del Fuego deritzaion lurraldeko irla haundien iparraldean bizi ziren, itsaslabarretan eta. Ordun, baleak hil zorian bazeuden eta, porke ehizatzeke ez ziren oso ondo... teknika... ez ziren oso garatuak... Etortzen baziren hondartzara edo erdi hil zorian zeudenak, akabatu eta gero haragi puska haundiak egiten zituzten lur azpian, hondar azpian sartu. Lur hura *permafrost* deitzen zaio, urte guztian izoztuta egoten da eta ordun ba... hori, hozkailu erraldoi bat da hura, ezta? Eta hori. Gero, *yaganak* ere oso interesgarriak dira. Etnia horretan emakumeak ziren..., beste etnietan ere bai, zikina eta lan gehiena egiten dutenak, baina hemen oraindik eta nabarmenagoa da eta *yaganak* pixka bat etnikoki ezberdinduta daude *ona* eta *patagoiengandik* eta emakumeak ziren hemen ba... urpekari ezin hobeak eta uretara salto egiten zuten –kontutan hartu zero gradotan bizi dirala, e?– eta haizea dela etengabeko fenomeno bat eta otarrainak eta mariskoa biltzen zuten eta hori zen osagai nagusia beraien dietan, ezta? Ordun, misiolariak, aita salesiarrak eta etorri zirenean, beraien ideiarik brillanteena izan zen ba... pertsona hauek –*homo silvestris* jartzen dute beraien idatzietan– jantzi behar zirela eta, klaro, europear jantziak eman zizkietenean, ba... klaro, uretatik ateratzen ziren arrokekin eta hai-zeak ez zien lagatzen lehen bezala gorputza segituan lehortzen, ezta? eta gero larreekin tapatzen, ordun, erropa bustitzeak ekarri zituen katarroak eta ya ba... tribu hauek desagertuz joan ziren baino... era oso azkarrean... oso oso azkarrean.

B.D. Eta era oso bitxian, zeren gainera hauek oso indartsuak ziren, ezta?

R.A. Bai, bai, batez ere *onak*. *Onak* eta *teuelcheak* ziren gizaki izugarriak. Lehen gizon txuria etortzen denean, ba..., bueno, *Drake* kapitaina eta lehenago gaztelar inperioarentzat nabigatzen zuten Magallanes eta Elkano getariarra... Magallanes bere izena daraman itsas artera iristen denean, bere kronista Antonio Pigazetta italiarrak oso kronika polita idazten du, ba... ikusi omen zuten gizaki izugarri bat, indiar *teuelche* bat zen, baina berak ez zekien gizakia zenik ere, klaro, aber, mundu berri-ira iritsi ziren eta ez zekiten zer aurkitu zuten eta gizon izugarri bat metro eta larrogei zentimetro baino gehiago zituen... eta klaro, garai hartan, orain lauhun urte

ere europarrak ere metro eta erdi eskax izango zituzten eta untzira ere nolabait igoarazi zuten eta ikusi zutenean ba... nola guanako larruez estaltzen zuen gorputza eta oinetan ere larruz oso ondo josita ba omen zituen, ba... kapitainak esan omen zuen: *o, patagon!* Eta hortik omen dator Patagonia. Bada beste teoria bat baita ere, garai hartan zaldun eleberriak edo pixka bat... oinarritu zen Amadis de Gaula eta hauetako baten monstrua izena omen zuen Patagon eta, klaro, europearrak oso kontutan hartu erlijioak nola mediatizatzen zituen mundu berrira zetozen eta klaro haiek prest zeuden edozer gauza ikusteko eta sinisteko, ezta? Ta ba... bueno, horren eleberri horren omenez Patagonia omen dator... ez dakit, ez dakit... oso materia ezberdinak dira baino... ez dakit, interesgarriak, ezta?

B.D. Behintzat, altueran garaiak zirela, bai? Bai gizonak eta baita emakumeak ere, e?

R.A. Emakumeak ere bai, bizi ziren ba... hori... oso oso ondo egokitzen ziren beren lurrrera eta... gero misiolari britaniarrak ere jaso dituzte, beraien hizkuntza, bueno ia... Usuaia(?), Punta Arenas horrelako misioetan indioak konfinatuak egin ziren, desagertarazi zituzten ba... batzutan sarraskien bidez eta bestetan ba... izurriteen bidez, ezta?

B.D. Sarraskia aipatu duzu, Roman.

R.A. Bai, hau da, agian, ba... historia ba... horrelakoa da, oso gogorra da askotan. Indio hauek... Patagonian gertatzen dena da... hain hego muturrean zegoen, hain bizi baldintza desagokiak ziren gizon zuriarentzat, ba... beste lur batzuk ez bezela, ba... hemeretzigarren mendearen erdirarte edo bertako biztanleak, natiboak izan ziren hango jaun eta jabe, osea gizon zuria apenas sartu zuen, jesuitak edo galestar... etorkin batzuk... baino lur haiek ziren *teulcheenak*... *Teulcheak* zaldi gainean gaztelarrei ihes egindako zaldien gainean kultura oso aberatsa sortu zuten, *siouxek* bezela, zazpi mila kilometro gorago, ezta? Eta etorri zirenean, hor gertatzen dena da, hor independentzia lortzen dute Hego Amerikako herrialdeek eta Argentinak ba... kriston txoltoa bilatzen du, zergaitik iraultza industrialaren garai gorian ba... populazioa asko igotzen da, beraz, Argentinak nahi duena da ardi uzteak eta, haragiena eta zituena biderkatu... porke biderkatzen zuen heinean dana saltzen zuen Europara eta ordun lurrak behar ditu eta lur horiek, klaro, indigenenak dira, ordun, zer egingo dute? Ba... milioka eta milioika hektarea baso erre, eta indioak zuzenean akabatu.

Hor general Julio Argentino Roca uste dut izena zuela 1878 eta 1983 urteen atean gerra eraman zuena eta heroe nazional bihurtu zen Argentinan eta Lehendakaritzara iritsi zen. Oso historia tristea da, ezta? Baina... eta esaten da hango estanziak edo, estanzia deitzen da Argentinan, baserrietan libra esterlina ematen zela indio belarri bakoitzeko, ta Generala ospetsua egin zen, adibidez, McLalan eskoziar bat, Zerri Gorria ezizenez ezaguna, ba...

B.D. Ezizen horrekin oso oso atsegina ez zen izango.

R.A. Ez zen izango. Ba... britaniar inperioan soldadu izan zen eta gero ba... hauetako baserri haundi batera eramaten zuen eta bere kirol nagusia hori zen: indioak akabatzea, gazte, haur, zahar... denak.

URBANO EGOZKUE (04-05-15)

EUSKADI IRRATIA. Urbano Egozkue nor zen zehazki ezagutzeko Kike Diez de Ulzurrunekin mintzatu gara. Kikek esanen digu xehaztasun guztiekin Urbano Egozkue nor zen eta zergatik egin zen horren ezagun.

KIKE DIEZ DE ULZURRUN. Urbano Egozkue Gaskue sortu zen duela laurogeita bederatzi urte (ia laurogeita bederatzi urte) ba, Eugin, Eugiko borda batean. Han, Eugin, eta Nafarroako beste zenbait tokitan bordari edo baserriari borda deitzen zaio eta han, Eugin, baziren lehenago orain baino askoz borda gehiago eta Luzioinborda izeneko hartan sortu zen, baina gero urtegiak, Eugiko urtegi famatu horrek urpean hartu zuen borda hori eta beste asko ere bai eta horregatikan etxe berria eraiki zioten Urbanori herriaren ondoran. Orduan, maiatzaren hogeita bostean sortu zen gizon hau, duela laurogeita bederatzi urte San Urbano egunez eta horregatikan jarri zioten Urbano izena honi. Eta orduan, ba bueno, gizarte molde tradizional hartan hazi eta hezitutakoa, beti nekazaritza eta abeltzaintza lanbideetan ibilitakoa, eta gero mendian ibilitakoa, aizkolari... eta kontuan hartu beharra dago garai hartan, Urbano gaztea zenean, Eugi osotara herri arrunt euskalduna zela, euskara zen hizkuntza nagusia eta Eugik, bestalde, izan ditu oso harreman onak bestaldearekin, Urepel eta alde horrekin, ezta? Baxe Nafarroarekin. Bertsoetan-eta hasi zen gaztetan eta oroitzen zen nola joaten zen koplak saltzaile edo bertso zaharren saltzaile bat, besomotza zena... Eugira iristen zen eta bertso paperak-eta saltzen zituen eta orduan hartan ikasi zituen, paper haietatik ikasi zituen Txirritaren bertsoerik ezagunenak eta gero hango oihanetara lanera joaten ziren goizuetar edo baztandar edo gipuzkoar hoiekin ere bertsoetan hasi zen, zaletu zen eta horrela pixka bat hasi zen eta gero tabernako bertsolaria zen, afalondoetan-eta, animatzen zenean, polliki ba... bueno, aritzen zena... eta bueno Eugin bertan baziren beste bi bertsolari, beste bat behintzat ere txapelketetan aritutakoa, Joxe Anjel Linzoain, eta gero beste bat Txantxotenbordako ezdakitnor, Frantzisko Mari-edo izena ezta? Eta gero, bueno, duela berrogei urte, berrogeita hiru urte, Diputazio barnean hedatua baitzegoen euskararen aldeko saila eta esan zuten: beharbada bertsolarien bitartez, bertsoen bitartez, ea euskara suspertzen digu pixka bat eta deialdi berezia egin zuten bertsolariak plazara edo txapelketetara ager zitezten eta Eugi inguru horretan ere deialdia egin zuten eta Eugiko bi bertsolari agertu ziren. Elizondon jokatu zen 1960. urte hartan jokatu zen gerra ondoko lehendabiziko bertso,

saio, hartara, txapelketa barrukoa, hain zuzen ere Anjel Linzoain eta Urbano Egozkue Gaskue. Biak eugiarrak, ezta?

Bertsolaria izateaz aparte, eta, bueno, beste hainbat gauza ere bai, gizon xelebrea zen, ez? Gizon ezaguna, maitatua, bai bere inguruan...

Iruñera maiz etortzen baitzenazienda ferietara,azienda azoketara,txerri, behor, behi eta halakoekin eta noski... parrandazalea zen toki guztietan eta beti ibiltzen zen gizon hau azkena, ezta? Herriko jaiak hasi, herriko festak bukatu... eta behin, han Ultzama aldean, galdetu omen zioten, herriko festak bukatuta, gaua zen eta galdetu zioten Urbanori: "zer Urbano, ez duzu etxera joan behar?" Eta berak erantzun zuen: "Ez, ez, gaua baita, eta ez da deus ikusten, eta biharamun goizian egun argiz ere ez naiz joanen ikusiko bainaute". Hori erran zuen, ezta? Eta gero Iruñeko sanferminetan ere egindakoak ere ez dira gutxi. Esate baterako kontatzen da nola behin laupabost egunez Iruñeko sanferminetan ibili ondoren koadrila guztia ia joana zen herrira, honek autobusa galdu eta azkenean bururatu zitzaion taxi bat hartzea herrira itzultzeko, taxia hartu, Eugira iritsi eta galdetu zuen: "zenbat da?" eta taxistak erran zion: "horrenbeste joan-etorria barne delako" "A! buelta ere Iruñera ordainduta dago? Orduan zurekin joanen naiz. Berriz ere Iruñera, ezta?"

ZIENTZIA EDO ERLIJIOA?

"Europako lehen gizakiak" jarri diote izenburutzat Atapuercako aurkikundeek lagin batekin egunotan New Yorken antolatu duten erakusketari. Atapuercako Burgosko probintzian dago eta hango indusketan gauza asko aurkitu dira, balio handikoak, itxura denez. Baina, dudarik gabe, aurkikunderik esanguratsuen zera izan da: uste zenaz beste, duela lauhun mila urteko gizaki tximinokara hura gizaki bete zela, funtsean. Antza denez, aurkikundeek argi eta garbi erakusten dute gizaki hark hildakoak lurperatzeko zeremonia jakin batzuk erabiltzen zituela eta horrek esan nahi bide du heriotzaren kontzientzia bete zuela gizaki hark eta, ondorioz, haren adimena sinbolikoa zela. Horregatik ematen diote gizaki gradua: heriotzaren kontzientziak eta adimen sinbolikoak bereizten baikaite animalietatik. Esan bezala, duela lauhun mila urteko kontuak omen dira Altapuercakoak. Huskeria bat, egia esan, unibertsoaren historian. Eta, hala ere, aurrerapen handiak egin ditu gizakiak ordutik hona. Bai horixe! Besteak beste, mitoa abolitu, erlijioa pribatizatu eta gizartea laikoa dela aldarrikatu du. Harro gaude, goitik behera gurasokeriaz, errutik puntu samur batez begiratzen diogu Atapuercako gizaki erdi tximinoari, umetako argazkietan geure burua ikusten dugunean bezalatsu. Baina gaurko gizakia mitoaren eta erlijioaren aldareak suntsitu baditu ere, ez da aldare gabe bizi. Funtsean Atapuercakoa segitzen du izaten. Eraiki dituen aldareetako bat zientziarena da, ez bairik gabe. Zientziak betetzen du, neurri batean behintzat, behiala erlijioak betetzen zuen funtzioa gizartean. Erlijioek beren dogmak dituzte. Erlijio katolikoak, esaterako, Aita Santua ez daitekeela erratu dio. Orain gure gizarte laikotik zientzia da erratu ez omen daitekeena. Hala bada, zientziaren babesa bilatzen da zernahi frogatzeko, eta saltzeko: halako jogurra jenez, gaztetuko zara, zientifikoki frogatuta dago hori. Aspirinaren onurak zientifikoki dira. Fede itsua diogu zientziari. Seguru gaude orain sendaezinak diren gaixotasunendako sendabideak aurkituko dituela aurki. Gizakien klonazioa dela-eta burrunba handia sortu da egunotan Raelen sektakoak gizaki bat klonatu dutela jakin denetik batez ere. Sekta

horretako bati entzun nion aurreko batean irratiz eta zera zioen gutxi gora behera: klonazioaren bidez gizakia hilezkortasunera iritsiko dala aurki. Ez da harrizkoa klonatu duten horri jarri dioten izena ere: Eba. Horra hor gure gizartea ezin hobeto erretratatu. Zientzia bai, baina mitoren eta erlijioaren zerbitzuan, Atapuercan bezalatsu, azken batean. Baliteke zientzia batzuk benetan zehatzak eta erratu ezinak izatea. Matematikak, esaterako. Batzuen ustez horiek lirakeke benetako zientzia bakarrak, baina kontua da gero eta jardun gehiagok errebindikatzen duela beretzat zientziaren gradua. Nahi duenak hor dauzka aukeran, esaterako, unibertsitatean zientzia ekonomikoak eta zientzia politikoak. Beren burua zientziazat jo eta erratu ezinak direla sinestarazi nahi digute ekonomilariek eta politikoek, horrela: bi gehi bi lau direla esaten ari balitz bezala esan berri digu ministro batek lanbide arteko soldata miserable hori ez dagoela % 2a baino gehiago handitzerik, horrek langabezia areagotuko lukeelako, bestela. Ez zuen esan baina tonuan igaritzen zaio hala esan nahi zuela: diodana zientifikoki frogatua dago, e? Difido aktiboen osasun onurak bezala, edo Pitagorasen teoremaren parekoa da nik diodana.

Metereologiak ere zientziazat du bere burua, nola ez! Bestela ez lioke inor kasurik egingo. Ekonomisten eta politikarien aldean, ordea, zentzudun eta jator iruditzen zaizkit, oro har, metereologoak. Lehenik eta behin, argi eta garbi egiten dituztelako beren iragarpenak: bihar halako eguraldia izango da. Sarri huts egiten dute, egia da, baina huts egin onartu egiten dute eta hurrengo eguneko eguraldia asmatzeari ekiten diote berriro bezperan iragarritakoak zergatik huts egin duten azaltzen denborarik –eta eguraldirik– galdu gabe. Baina beste gauza bat da nik meteorologoei gehien estimatzen eta miresten diodana: apaltasuna. Apalak baitira oso metereologoak ekonomista eta batez ere politikoaren aldean. Izan ere, harrotzekotan asmatu izanaz harrotuko zaizkizue metereologoak; inoiz ez diegu entzungo eguraldi ona egin izana beren meritua denik. Ekonomista eta batez ere politikariek, aldiz, bolara txarraren errua giroari egozten diote, eguraldiari ez bada, eta bolara onen meritua, berriz, bere gain hartzen. Eta itxura guztien arabera, guk sinetsi egiten diegu, hortik bizi dira eta. Laurehun urte ez dira alferrik pasa Atapuercatik hona. Ordutik hona izugarri aurreratu dute gizaki batzuek, behintzat. Esaterako, metereologoek.

ESPEZIE INBADITZAILEAK (04-09-11)

EUSKADI IRRATIA. Itsasontziak munduko bazter batetik bestera eramaten dituzten espezie inbaditzaileei buruz hitz egin behar dugu gaur ekosistemari kalte handia egiten diete eta arazo honi konponbidea aurkitu nahian munduko hainbat gobernutako ordezkariak elkartu egin dira Londresen. Nagore Rementeria, Elhuyarko kidea, arratsalde on.

NAGORE REMENTERIA. Arratsalde on.

E.I. Beste ezer baino lehen, zer dira espezie inbaditzaileak?

N.R. Espezie inbaditzaileak dira ba... jatorrizkoek duten habitat batera iritsi eta bertan arrakasta daukatenak, hau da, erraz ugaltzen direnak eta ba... normalean berezko habitat horrek berezko dituen espezieak baztertzen dituenak, ezta? Askotan bertako espezie baliokidea, nolabait esateko, desagertu egiten da edo gutxitu egiten da eta hau gailentzen da. Askotan izaten dira... ba... alde batetik hori... erraz ugaltzen diren espezieak eta, gainera, edozein ingurunetara erraz egokitzen diren espezieak.

E.I. Eta ze azalpen du itsasuntziek espezie horiek alde batetik bestera eramatea?

N.R. Kontua da karga untziek eta, batez ere, petrolio untziek egiten dutena dela petrolea edo bere karga hustutakoan, ba... nolabait kargak konpentsatzeko, oreka mantentzeko, itsasoko ura jasotzen dute edo portuan bertan dagoen ura jasotzen dute eta beraz, ba... bertako ba... organismo txikiak, krustazeoak, arrainen larbak... bertan doaz, ezta? Ba... ur hortan bertan bizi direnak. Eta ondoren, ba... petrolio unti hori edo karga unti hori ba... beste portu batera iristen denean, ur hori utzi egiten du eta, beraz, askatzen ditu bertan zaramatzan organismoak, krustazeoak, arrainak... ezta? Eta hala iristen dira ba... milaka kilometrotara egon daitekeen ekosistema batera, ba... beraiantzako arrotza dena, baina batzuk arrakasta daukate, batzuk ez dira gai izango bertan bizitzeko, espezie batzuk, baina beste batzuk, aldiz, gustora daude, erraz egokitzen dira eta arazoak sortzen dituzte ekosistema horietan.

E.I. Ze arazo, ze eratako kalteak? Esan dugu erraz egokitzen direnez, imajinatzen dugu besteen kontura egokituko direla, ezta?

N.R. Hori da, eee... ba... adibidez karramarro bat baldin bada espezie inbaditzailea bertako karramarroaren lekua hartzen du, nolabait esateko, ezta? Kate trofikoan ba... bere tokia hartzen du, elikatzen da bertako karramarro horrek jaten zituen elikagai horietaz, ezta? eta bestearentzako gutxiago geratzen da. Beste zenbait kasutan gertatzen da ba... gaixotasunak eraman ditzaketela; ba... agian espezie inbaditzaileari ez dio eragiten gaixotasun horrek –izan daiteke onddo bat edo dena delakoa– baina ezezaguna zaio onddo hori edo gaixotasun hori bertakoari eta gaixotu eta espeziea desagertzeko zorian jar dezake.

E.I. Badago ranking-ean esateko... zein den espezie... arriskutsuena, esate baterako?

N.R. Tira... hori bakoitzak berea izango du, ezta? Badira batzuk oso esanguratsuak direnak, adibidez, ezagun-ezagunetakoa da zebra muskuilua, hori da... eee... uste dut... Estatu Batuetako laku haundietan... ta... laku handi horietara iritsi zen. Muskuilu espezie bat izugarri ugaltu zena, oraindik han dago eta metro karratuko ez dakit zenbat agertzen dira eta arazoak sortzen dituzte batez ere hodiak-eta itxi eta halakoak egiten dituztelako eta gainera, lur zorua betetzen dutenez, estaltzen dutenez, ba... noski, beste espezieentzako leku askorik ez da geratzen.

E.I. Esan dugu gai honekin kezkatuta, hainbat gobernutako ordezkariak Londresen bilera egin dutela, konponbide bat aurkitu nahian ekosistemari egiten zaion kalteak aztertuta, zer irtenbide proposatu dituzte Londresen?

N.R. Tira... irtenbideak proposatzen urteak daramatzate, esan behar da larogei... larogei... larogeigarren urtean edo egin zutela halako lehenengo eskaera eta oraindik ez direla betetzen eskaera hauek. Proposamenak izaten dira, adibidez, ba... itsaso... bai... untxiak daramaten ura itsasoan bidaiatu ahala aldatzen joatea, adibidez, ezta? Gertatzen dena da hori garesti irteten zaiela edo garestiago ezta? Beraien seguruenik gero... ba... globalki hartzen badugu, osotasunean hartzen badugu, garestiago irteten da; espezie inbaditzaileek sortzen duten arazoarengatik, baina ez dute kasurik egiten eta orduan itsasoko ura aldatzen joan beharrean inpaktua hain handia ez izateko, ba... ez dute betetzen.

Beste batzuk proposatzen dute ur horri espezie horiek hiltzeko zenbait agente botatzea ezta? Substantzia kimikoak erabiltzea ba... inongo bizitzarik eraman ez dezan, baina normalean substantzia horiek, gainera, toxikoak izan daitezke edo, gutxienez, polutzaileak dira eta hori ere ez dakit zenbateraino egokia den. Ez da erreza.

E.I. Kopuruaren arabera izango da, noski, zenbat substantzia, zenbat toxizidade botatzen diozu ur horri, ezta?

N.R. Hori da.

E.I. Momentuz ez dago, beraz, konponbide argi bat, baina horretan jarraitzen dute agintariek. Nagore, eskerrik asko.

N.R. Eskerrik asko zuri, Maite.

DURANGOKO AZOKA ETA LILURA

Sugeak begietara tinko begiratzen dioenean, akordua galduta bezala geratzen omen da txoria, lilurak erdiz erdi jota. Halatsu gu ere teknologia berriei begiratzen diegu-nean lelo bai lelo geratzen baikara begiak zabal eta ahoa zabalago. Teknologia berriek eragiten diguten lilura guztien oinarrian, nik uste, giza miseria dago. Badakigu hutsaren hurrengo garelara eta sinistu nahi genuke –komeni zaigu eta– teknologiek erremedio ego-kia jarriko diotela geure ezdeustasunari.

Gaur egun esan liteke Interneten inguruko munduak duela tekno-liluraren eskusiba eta hortxe gaude sarean leihobat zabaldu nahirik esperantzari. Sarean egoteak, besterik gabe, garaiago, indartsuago eta guapoago egiten gaituelakoan. Esperantzaren leihobat zabal eta sinetsi beharra zabalago. Antzinako aldean, ziztu bizian berritzen dira teknologiak gaur egun. Ez naiz horretan aditua, baina egingo nuke sua dela gizateriaren teknologietan lehenetarikoa. Denbora apur bat joan da gizakia sua asmatu-edo zuenetik, baina oraindik bizirik diraute bai su horrek, bai gure suarekiko lilurak ere. Hitzak ere teknologia bat da, seguru-erik sua bezain garrantzitsua izan dena gizateriaren iraupenerako. Hitzak ere ez da noski bart gaueko asmakeria. Gero beste teknologia batzuk etorri ziren, idazketa esaterako, eta gero inprenta. Hori bai bart gaueko kontua! Bosten bat gizaldi baino ez. Inprentaren teknologiak liburuak du enblema nagusi. Eta euskarazko lehen liburuan argi eta garbi ageri da bere garaiko teknologia harengandik zer espero zuen Beñat Echeperak: *Oraindano egon babiliz inprimitu bagerik, iengoiti ibiliren mundu guzietarik*. Globalizazioaren lehen aipamen euskarazkoa ere izan liteke hori, bestalde. Liburuak, bistan denez, ez zituen euskararen gaitz guztiak sendatu eta ez zuen euskara munduko egin. Orain, berriz Sarean ditugu itxaropenak. Sarean egote hutsak sendatu eta mundu-munduko egingo gaituelako uste ustel inozoan. Garaian garaiko teknologiak liluratzen du gizakia: liburuak lehen, Sareak orain. Zahartu, ordea, arras modu diferentean zahartzen dira teknologiok. Liburuak, zahartzean klasiko bihurtzen da. Liburu izateaz gain, beste zerbait bada, behintzat. Informatika, berriz, baliorik gabe geratzen da zahartzean eta zahartu, berriz, sortu orduko egiten da ia. Poliki sortu eta poliki bizi denak hobetu eramaten du zahartzarora ziztu bizian jaio eta ziztu bizian bizi denak baino. Bata, liburuak, zahartu egiten da. Bestea, berriz, zaharkitu. Aditu batzuen ustez, Historiaurreko kontua izango da aurki paperezko liburuak, euskarri elektroniko informatikoen emango omen diote azkena. Hori hala balitz ere, hileta jo behar ote diogu liburuari? Negar egin behar ote dugu liburuak desagertzen denean? Ezetz esango nuke. Liburuak, azken batean garraibidea baino ez da. Sakralizatu egin dugu, baina, funtsean testuaren gurdia baino ez da liburuak eta testuak, berriz, pentsamendu, arrazoibide eta bizipenen gurdia baino ez. Liburuari, beraz, barruan dakarrenaren araberrako balioa eman beharko genioke. Gaur egun, ordea, kuttun edo fetitxe halako bihurtu dugu liburuak. Eta hedabideek erru handia dute horretan. Komunikabideetan gizarte gertakariak da batez ere liburuak, estatus auskalo zeren ordezkio baten sinbolo. Bost axola lastoa bakarrik dakarren gurdi horrek edo dakarren urrea. Eskultura bati begiratzen zaion bezala begiratzen diogu liburuari. Bost axola ezer eramateko balio ez badu ere. Eder irizten diogu nola kalekumeak idi pareari. Baserritarra, aldiz, traktorearen alde dago. Nor ote biotan zurrago? Gurtu, adonatu egiten dugu liburuak. Liburuak, ordea, irakurtzeko da, eta kito. Borgesek esaten zuen bezala, liburuak irakurri ezean, hilkutxak baino ez dira. Ez kontatu niri, beraz, lankide maiteok, zenbat liburu berri plazaratu berri den Durangon; esatekotan, esaidazue zer pentsamendu, ze arrazoibide eta ze bizipen jakingarri aurkitu ahal izango ditugun Durangoko azoka bost egunez okupatu duten liburu esaten diogun gurdi antigualeko horietan.

